

puntuak

+

5G: aurrerapauso teknologikoa; baita kezka ere

Arantza Chaconi elkarrizketa, Larraña Etxeaz

KORONABIRUSA

SENDATUTA

Koronabirusa gainditu dutenak geroago eta gehiago dira, bai etxean eta baita ospitalean / 5

DENDARIAK

Zabalik dauden denda txikiak ondo ari dira erantzuten, segurtasun neurriekin / 11

BONUAK




1a milioi bat euroko laguntza, Arrasateko komertzioen kalteak arintzeko / 18

EKONOMIA

Eztabaida, industria eteteko neurriagatik: enpresaburuak, haserre; sindikatuak, pozik / 39




KIROLA

Kirol txapelketak etenda, ziurgabetasunez begiratzen diote klubek etorkizunari / 40




IRRIBARREAK ERE BADIRA ZAHAR ETXEETAN

Zaharren egoitzetako egoiliarak eta zaintzaileak indarrez eta itxaropenez ari dira erantzuten egoera zail honetan / 4




Kutsatuak Debagoienean / Astebetean metatua



ITURRIA: OSAKIDETZA

Kutsatuak Gipuzkoan / Astebetean metatua



ITURRIA: OSAKIDETZA

Kutsatuak azken astean

	Apirilak 1	Aldea
Arrasate	78	+ 47
Aretxabaleta	23	+ 10
Oñati	24	+ 14
Bergara	20	+ 12
Eskoriatza	7	+ 1
Antzuola	2	0
Aramaio	2	+ 1
Elgeta	1	+ 1
Gatzaga	0	0
Guztira	157	+ 86

ITURRIA: OSAKIDETZA

Konfinamendua hasi da igartzen

Eusko Jaurlaritzak atzo, eguena, emandako azken datuen arabera, EAEn 7.317 pertsona kutsatu ditu koronabirusak. Debagoienean 157 positibo baieztatu dituzte; erdiak, Arrasaten. Kutsatutakoen kopurua "beheranzko joera" hartzen ari da, halere

Maialen Santos DEBAGOIENA

Martxoaren 14an Espainiako Gobernuak konfinamendu egotza ezarri zuenetik aste erabakigarria izaten ari da honako hau. Konfinamendua bere fruituak ematen ari da, eta gaixotasuna "egonkortzen" hasia dela adierazi du Nekane Murga osasun sailburuak asteon. Eguaztenean egindako agerraldian adierazi zuen kutsatu berrien kopurua "beheranzko joera" hartzen ari dela, egun batzuetan "gora ere" egin dezakeen arren. Atzo, eguena, eguneratutako datu ofizialen arabera, EAEn 7.317 pertsonak dute COVID-19 gaitza; Bizkaian 3.682 kutsatu daude, Araban 2.347 positibo zenbatu dituzte eta Gipuzkoan 288 kasu positibo daude. EAE osoan, gainera, 1.906 gaixo daude ospitalean ingresatuta; horietatik 17 -baieztatutako positiboak-, Arrasaten.

Goiena, komunitatea indartzen

Koronabirusaren krisiaren harira, asko dira Goienarekin edukiak elkarbanatzera animatu diren herritarrak. Horren erakusle dira martxan jarritako zenbait saio berri: *Etxetik plazara* kanala, *Kantari erronka*, bertsolarien puntuak...

Debagoieneko Ospitaleko fisioterapeuten eskutik etxean egiteko ariketa ezberdinak jasotzen ditu Goienak egunero, herritarrek etxean egin ditzaten. Ariketa horiek ikusgai daude *Goiena.eus* webgunean, baita Goiena telebistan ere (11:00etan eta 17:30ean).

Komunitatearen parte-hartzea saritu guran zozketa jarri dugu martxan. Apirilaren 19ra arte egongo da parte hartzeko aukera.

GOIENA aldizkari honetako 23. orriko irudiko figurak edo zeuen gustuko beste batzuk ideiatzat hartuta, jantzi aurpegiak etxean daukazuen materialekin, eta atera familia-argazkia mozarrotuta. Argazkiak *Goiena.eus* webguneko #GuEtxean atalean argitaratuko ditugu.

Saria: egun baterako laurdako Sendavivarako sarrerak eta bi heldurendako eta bi umerendako aste bukaera bat inguruko hotel batean.

Argazkiak bidaltzeko: Whatsapp/Telegram: #guetxean [izen abizenak eta telefonoa] 688 69 00 07 zenbakira, edo posta elektronikoz, *argazkiak@goiena.eus* helbidera mezua idatzita.

Debagoieneko datuetara etorrita, 157 kutsatu daude, guztira. Arrasaten dagoeneko 78 kutsatu atzeman dituzte detekzio probetan. Oñatin 24 pertsona daude kutsatuta, guztira; Aretxabaletan, 23; eta Bergaran, 20. Eskoriatzan 7 dira positibo eman dutenak, eta Antzuolan eta Aramaion bina kutsatu daude. Bestalde, Elgeta ere atzo batu zen zerrendara; positibo bakarrarekin. Hala, Leintz Gatzaga da kasu positiborik ez duen Debagoieneko herri bakarra.

Datu positiboek dagokienez, orain artean 2.490 pertsona sendatu dira, guztira, EAeko ospitaleetan. Bestalde, COVID-19 gaitzak hildako pertsonen kopurua 412ra igo da. Osasun sailburuak adierazi duenez, dagoeneko birusa detektatzeko 18.220 proba egin dituzte. Hori kontuan izanik honako hau azpimarratu du: "Zenbat eta proba gehiago egin, orduan eta positibo gehiago atzematen ditugu; hori da gure helburua". Gainera, nabarmendu du, atzo egindako testetan 10etik 3k eman zutela positibo; aurreko astean, 10etik 6k.


Orain artean jarritako salaketei dagokienez, Bergarako Ertzain-etxetik adierazi dute konfinamendua hasi zenetik 80 salaketa inguru jarri dituztela, eta beste horrenbeste izan direla bailarako herrietako udaltzain guztien artean jarritakoak. Gaineratu dute "neurriak ez bete-tzeagatik" jarritako salaketa gehienak "hasierako egunetan"

izan zirela: "Martxoko zubian, zehazki. Konfinamendua hasi berri zegoen, eta jendeak ez zuten neurriak seriotasunez hartu. Eguraldi ona aprobetxatuz irten ziren kalera asko", diote.

ENPRESEN EGOERA

ENPRESA GEHIENAK ITXITA DAUDE; FUNTSEZKOAK DIRENAK, MARTXAN

Espainiako Gobernuak joan den zapatuan iragarritako dekretuaren eraginez, "funtsezkoak ez diren jardueretan" ari ziren industria-enpresetako langileak etxean geratu behar izan dute astelehenetik aurrera. Dekretuaren harira, Eusko Jaurlaritzak ohar bat kaleratu zuen martitzenean, "ezinbesteko gutxieneko jarduerak" honela definituz: "Enpresari barne-egoera optimoa eta ekoizpen-jarduera nahikoa mantentzea ahalbidetzen diona, eta jardue-ira ixtea eragin dezaketen egoera traumatikoak saihestea ahalbidetzen diona". Oharrak industria elektroi-ententsiboari ere egin zion erreferentzia: "Sistema elektrikoaren hornidura eta egonkortasuna bermatzeko beharrezkoa den industria elektroi-ententsiboa ezinbestekoa izango da". Hala, gaur-gaurkoz, Debagoieneko enpresa gehienak itxita dauden arren, gutxi batzuk lanean ari dira; esaterako, Oñatin, Betik, ULMA Packaging



eta Natra ari dira lanean. Fagorren, esaterako, gehienak gelditu dira; hori da, besteak beste, Fagor Automationen kasa, nahiz eta gutxieneko ekoizpena mantendu duten. Egoera bera dute Ederlanen ere. Bergaran, TTTk, Lazpiurrek, Tornilleria Debak, Soraluze Koop-ek eta Ecnarro Koop-ek eten egin behar izan dute jarduna. Baita automoziora dedikatzen den Metagrak ere.

Osasun krisiaren ondorioz EAEn 10.974 langabe gehiago daude, eta bereziki zerbitzuen alorrean izan du eragina, 7.947 lagun geratu dira lan barik. Hiru lurraldeetan egin du gora langabeziak; Gipuzkoan, %9,90. Debagoienean ere izan du eragina, otsaileko datuekin alderatuta 207 langabe gehiago baitaude. Horrenbestez, guztira, 2.644 langabe daude bailaran.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 1era atzeratu die urteko lehenengo hiru hilabeteak dagozkion autoliquidazio eta aitortpenak aurkezteko epea autonomo, mikroenpresa eta enpresa txikiei, baita beste zergadun talde batzuei ere.

EKIMEN SOLIDARIOAK

MONDRAGON ASSEMBLY, LAU MAKINA EKOIZTEN

EPIak –arnasgailuak eta maskarak– egiteko hainbat ekimen sortzen ari dira Debagoienean. Aurpegia babesteko biserak inprimatzen ari dira zenbait tokitan, 3D inprimagailuekin: Esaterako, Bergarako Miguel Altunan, Arizmendi Ikastolan, Oñatiko Zuazola-Larrañako institutuan eta Mondragon Unibertsitatean. Mondragon Assembly enpresa aretxabaletarrak ere badihardu laguntzen; maskara kirurgikoak egiteko lau makina ari dira ekoizten, ostean beste enpresa batek maskarak egin ditzan. Hauetaz gain, Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra eta bailarako zenbait jostun ere ari dira euren kabuz laguntzen, eta bailarako herrietan asko dira snorkel egiteko maskarak dohaintzan eman dituztenak. Debagoieneko ospitaleko langileak "bihotzez eskertuta" azaldu dira jasotako materialarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eguaztenean →

"Ametsgaizto bat bizitzen ari gara, izugarrizko baliabide falta dugu"

ANE BLANCO KATALUNIAN LANEAN ARI DEN ERIZAIN BERGARARRA

Jaiotzaz bergararra da Ane Blanco, baina zortzi bat urte daramatza Katalunian bizitzen. Bertara joan zen Erizaintzako ikasketak egitera, eta Manresako ospitale batean lanean ari da egun.

Koronabirusak lanera itzultzera behartu zaitu...

Nolabait esatearren. Bi urterako eszedentzia hartuta nengoen, Ryzon taldeko goi mailako kirolarietan bidaiatzen. Baina duela egun batzuk, ospitalera deitu nuen bertako egoeraren berri galdetzeko, eta nire beharra zutela esan zidaten.

Zein izan zen erantzuna?

Baietz esan nien, noski; eszedentzia moztu eta lanera itzuliko nintzela. Halere, esan zidaten nire maskara propioa eramateko, bertan ez zutelako niri uzteko modurik.

Zer egin zenuen, orduan?



A.B

Maskara bila hasi nintzen, eta, lortzen ez nuela ikusita, lagun dudana Ryzon taldeko Jan Frodeno ironman-kirolariari galdetu nion ea zer egin nezakeen. Eta hor hartu nuen ezustekoa; lan egiten dudana ospitalerako 1.000 maskarako dohaintza egitea erabaki zuen. **Are gehiago, Instagram sare sozialean "heroia" zarela dio...** Bai. Dohaintza egiteaz gain, aipamena egin zidan bere

Instagramen, eta "heroia" nintzela esan. Sekulako keinua da hori, nirekiko eta osasun arloan lanean ari garen guztiekiko. Izugarri hunkitu ninduen bere argitalpen horrek.

Lanera itzultzeko indarra eman zizun?

Egia esan, zalantzarik gabe itzuli naiz lanera; lankideek kontaktatu zidatena ikusita, laguntzera etorri behar nuen ezinbestean. Hala ere, zein baldintzatan ari garen lanean ikusita, ez da batere erraza izaten ari.

Nola daude gauzak ospitalean?

Amagabeko txandak egiten ari gara gaixoak artatzeko. Atsedetik gabe ari gara, eta psikologikoki oso egoera gordinak ari gara bizitzen. Pentsa, egin dudana azken txandan bakarrik, sei pertsona hil dira koronabirusak jota.

Zer esango zenieke herritarrei?

Hasteko, ahal dugun guztia egiten ari garela, eta eskertzen direla esker hitzak. Bestetik, etxean geratu daitezela, arren.

Covid-19 Osasun Larrialdia

Euskadiko tokiko saltokiak, funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.

Mila esker!

Guztiei egunero pertsiana igotzeagatik.

Mila esker!

Hurbiltasunez eta profesionaltasunez arreta emateagatik.

Mila esker!

Zuen lana ezinbestekoa da.

Mila esker!

Euskadiko tokiko saltokietako pertsonei.

Mila esker!

Bertan egoteagatik zuen beharra daukagunean.

Tokiko erosketak, egin kontsumo arduratsua, zero xahutze.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMA, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO BAIKIADEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak

#etxetikhurbil



—>iragarri zuten FFP2 maskaren "desinfekzioarako" eta "esterilizazioarako" makina erosi duela, material hori berrerabilite aldera. Are, makinak Arrasaten izango du kokalekua.

'MASKARA 19' EGITASMOA

INDARKERIA MATXISTA PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEAK LAGUNTZEKO

Konfinamenduan indarkeria matxista jasaten dabiltzan edo jasan dezaketen emakumeei laguntzeko *Maskara 19* kanpaina jarri du abian Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta harekin bat egin du Gipuzkoako Botikarien Elkargo Ofizialak. Hala, Gipuzkoan dauden 286 botiketako edozeinetara jo ahal izango dute emakumeek laguntza eske. Eskaera hori era "oso diskretuan" egin ahal izango dute; botikako langileari "Maskara 19" berbak esanda, hain zuzen ere: "Indarkeria matxista zein eraso sexuala jasan duela adierazten duten hitz gakoak izango dira horiek".

Farmazialariek, orduan, babes eta harrera protokoloa abiartziko dute, "anonimotasun osoz". Orain arteko bidea ere izango dute erabilgarri indarkeria matxistaren biktimek; Gipuzkoan, 900 84 01 11 telefono zenbakia.

OSTATUAK

BAILARAKO LAU OSTATU ZABALIK, BEHARGINENTZAT

Funtsezko lan jardueretan dabiltzan beharginei ostatu emateko prest azaldu dira Debagoieneko lau hotel edota landetxe: Elgetan, Eguzkitza Landetxean eta Maialden agertu dira beharginak hartzeko prest; Oñatin, Zumeltzegi hotela; eta Eskoriaztan, aldiz, Gorosarri. Aipatutako ostatuetak arduradunek GOIENARI azaldu diote "momentuz" ez dutela euren etxeetan langilerik hartu, ez eta horretarako eskaerarik jaso. Hala eta guztiz ere, "beharra egongo balitz" langile horiek hartzeko prestutasuna azaldu diote Debagoieneko Mankomunitateari.



Jose txo Atxaga kamioilari. M.S.

GARRAIOLARIAK

GARRAIOLARIAK KEXU DIRA BALIABIDE FALTARENGATIK

Garraiolarien lana funtsezkoa izanagatik ere, konfinamendu egoeran zailtasunak izaten ari dira beren lan-jarduna normaltasunez aurrera eraman ahal izateko. Jose txo Atxaga kamioilari aretxabaletarrak GOIENARI aitortu dionez, egunotan ez dute "atseden hartzeko" edota "komunetik pasatzeko" aukerarik. "Egun osoa ematen dugu

etxetik kanpo, eta bazkaltzea edota kafe bat hartzea erronka da guretzat. Guztia dago itxita", dio, kexu. Azaldu duenez, bazkaria etxetik eramagatik ere ez dute berotzeko modurik. Egoera honen aurrean, gasolindegietara jotzen dute, "bertan ogia eta hestekiak izaten baitituzte". Hori gutxi balitz, komun publikoak ere itxita daude, eta dio, pixa egitea zaila bada, "are zailagoa" dela emakumeentzat,

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak zerbitzu-guneetan garraiolariarentzako "gutxieneko

estaldura" ezartzeko eskaria egin zion joan den astean Jose Luis Abalos Espainiako Garraio ministroari. Horren harira, Garraio Ministerioak astean webgune horretan jarri du zein zerbitzu egongo diren zabalik.

GANADU EKOIZLEAK

ESNE ETA HARAGI PRODUKZIOAK ETA SALMENTAK GORA EGIN DUTE

Elikadura katea bermatu ahal izateko lanean jarraitzen dute bailarako abeltzainek. Azaldu dutenez, esne eta haragi produktioak eta salmentak "dezen-te" egin dute gora azken asteetan; esnearen salmentan, supermerkatuen eskaera ohikoa baino zazpi aldiz handiagoa izan zen konfinamenduko lehen astelehen; bestetik, hiltegietak produkzioa hirukoiztu egin zela azaldu dute ganaduzaleek.

Julen Abasolo abeltzainaren aburuz, askotan "gutxietsi" egiten da euren lana, baina "ezinbestekoa" da jendea elikatu dadin. Irumendi elkarteko Pello Legorburuk dio "normaltasunez" jarraitzen duela lanean, baina sektorean "kezkatu" daudela: "Okerrena etortzeke dago, eta ez dakigu horrek nola eragingo dion abeltzaintzari". Ganaduaren salmentak "kolpe gogorra" jaso du, enkante garrantzitsuak bertan behera gelditu direlako.

HILETA ZERBITZUAK

HILDAKOAK 24 ORDUREN BAITAN EHORTZI EDO ERRAUSTU BEHARRA

Alarma egoera ezarri zenean meza eta hileta elizkizun guztiak debekatu zituen Eusko Jaurlaritzak, eta gerora, beilatokiak ixteko agindua ere eman zuen. Ojanguren ehortzeteko arduradun Aitziber Ojangurenek GOIENARI adierazi dionez, hori gutxi balitz, "koronabirusaren ondorioz hildako pertsonen senideak eta hurbilekoak ezin dira horiek lurperatzea edo erraustera joan". Ehortzetxeen funtzionamenduan ere aldaketak ere egon dira: "Lehenago aginduaren kontrari, orain, 24 ordu pasa aurretik erraustu edo ehortzi behar ditugu hildakoak".

"Aste erabakigarria da hau eta, momentuz, ondo doa"

IÑAKI PEÑA DEBAGOIENENKO OSPITALEKO BARNEKO MEDIKUA

Debagoieneko Ospitaleko barneko medikua da Iñaki Peña, eta koronabirusak kutsatutako gaixoak artatzen dihardu krisia hasi zenetik.

Nola dago egoera ospitalean?

Azken egunetako datuek diote moteldu egin dela kutsatuen kopurua. Asteburuan, 40 gaixo baino gehiago izan ditugu ingresatuta, eta orain, 30 inguru ditugu; beraz, azken egunetan hobera egin dugu. Momentu honetan ingresatutako arteen gehienak dira COVID-19 gaitzean positiboak, eta gainontzekoak emaitzen zain dauden negatiboak dira. Gainera, esan beharra daukat positibo arteen gutxi direla larri daudenak.

Zorionez, sendatu direnak ere badaude. Zenbat dira?

Koronabirusaren krisia hasi zenetik, gutxi gorabehera, 25 gaixo bidali ditut etxera. Horrek ez du esan nahi proban negatibo eman dutenik. Alta jasotzea



I.P.

ospitaletik irten ahal izateko modu bat da, etxean erreperatzen jarraitzeko. Izan ere, ospitalean egon behar izatea ez da seinale hoberena; etxera joatea, aldiz, bai. Eboluzio bat egon dela esan gura du.

Zein egoeratan daude gaixoak?

Arrasateko ospitalean egoera egonkorrean dauden gaixoak izaten ditugu. Bertan ez dago zainketa intentsiboko unitaterik; eta, beraz, egoera konplexuagoa denean ospitale handiagotara

bidaltzen ditugu. Normalean, Gasteizekin dugu guk lotura naturala; baina gainezka dabilta bertan, eta, beraz, asko Donostiara bideratu genituen aurreko astean. Halere, Gasteizko egoera hobetzen ari da eta hasi gara berriro jendea bertara bideratzen.

Zein gaixok behar dituzte zaintza bereziak?

Zenbait baldintza bete behar dituzte, jakina. Adina da horietako bat, eta, bestalde, garrantzitsua izaten da aurretiaz gaixotasun kronikorik bat ote duten jakitea. Autonomiaz jardun ezin badute ere, zaintzak behar dituzten seinale izan daiteke.

Gasteizen gainezka dabiltzala diozu. Zuenean baliabide nahikoa dago?

Beti hobetu liteke, baina orain artean baietz esango nuke. Gorabeherak izan ditugu, baina materiala ez da agortu. Hala ere, kritika bat badut: proba gutxiegi


egiten dutela esaten dute zenbaitek, eta arrazoi dute. Norbait sendatuta dagoela ziurtatzeko proba egin beharko genioke, eta, gaur-gaurkoz, proba egin gabe irteten dira hemendik.

Nekane Murga Osasun sailburua itxaropentsu azaldu da asteon. Uste duzu bada horretarako motiborik?

Bai. Aste erabakigarria dugu honako hau eta, momentuz, ikusi dugu konfinamendua hasia dela bere fruituak ematen. Positibo berri gutxiago baieztatzen ari dira; beraz, hobetuz goaz.

Hortaz, uste duzu Espainiako Gobernuak hartutako neurriak beharrezkoak direla?

Ekonomian sartu barik, mediku moduan diot hartu beharreko neurriak zirela, zalantzarik gabe. Langileek pilatuta lan egin behar izateak ez du inolako zentzurik.



Gaitza gainditu dutenak gero eta gehiago dira eta mezu baikorrak dituzte

Sendagileak poliki-poliki ari dira birus berriaren ingurukoak ikasten. Oraingoan, ez dago sendagai eraginkorrik, baina ospitaleetan gero eta senda-agiri gehiago ematen ari dira. Kutsatu eta gaixotasuna gainditu duten hiru debagoiendarrekin izan da GOIENA

Larraitx Zeberio Lekuona DEBAGOIENA Rosa Maria Sanchezek (Arrasate, 55 urte) lau egun egin zituen etxean ondoezik. Sukarra, buruko mina eta eztula zituen. Botaka egiterakoan odola ikusten hasi zenean beldurtu zen benetan. Larrialdietara joan eta pneumonia zuela esan zioten, eta COVID-19aren proba egin zioten. Berehala ingresatu zuten. "Hurrengo egunean esan zidaten positibo nintzela. Mundua erori zitzaidan. Ingurukoak kutsatu izanaren beldur handia sentitu nuen. Zorionez, guztiak daude ondo. Zorte handia da". Bi aste egin ditu Debagoieneko Ospitalean eta beste bi egun behar ditu orain etxean bakartuta. "Logelatik irten barik nago eta bazkaria atean uzten didate, baina oso pozik nago. Kezka bakarra dut, kutsakorra izaten jarraitzea. Ez didate proba egingo, antza, eta beldur hori daukat".


Aitor Agiriano ere (Eskoriatza, 37 urte) etxetik irten barik dago. "Oso nekatuta sentitu nintzen eta sei egun egin nituen sukarrarekin. Mila bider deitu nuen Osakidetzako telefonora, baina alferrik. Azkenean, nire medikuari deitu nion. Plaka egin, eta pneumonia agertu zen. Neska-laguna erizaina da eta bioi egin ziguten COVID-19 proba. Biok gara positibo". Agiriano lau egun egin zituen ingresatuta eta laster amaituko du hamabost eguneko etxeko ospitalizazioa. "Ez gara ezertarako irteten. Etxekoan laguntza dugu hondakinak jaisteko, erosketak egiteko... Jarraipen medikua dut, hor bai. Tarteka etortzen dira botikak ekartzera eta nola nagoen ikustera; izan ere, pneumonia hor dago". Biak positibo izatera, bizitza "normala" daramate Agiriano eta haren bikotekideak.

Ez daude gela batean konfintuta. "Luze egiten ari zait, baina, egia esan, gero eta lasterrago pasatzen dira egunak".

Gaixoaldia etxean

Nuria Fernandez de Arroiabek (Aramaio-53 urte) ez du diagnostiko irmorik, ez diotelako probarik egin, baina hainbat sintoma izan ditu eta itxialdia egitea erabaki zuen. "Ahalegin du nintzen Osakidetzako telefonora deitzen, baina, azkenean, Aramaioko medikuarekin kon-

taktatu nuen. Baja eman, eta etxean gelditzeko esan zigun niri eta gizonari. Makalduta, tripetatik eskas eta dastamena eta usaimena galduta egon naiz". Hamasei egun egin ditu lan egiteko etxean duen gelan sartuta. Irakurtzen, pelikulak ikusten eta Aretxabaletako abesbatzak dituen urteurren ospakizunetarako egitasmoak prestatzen aritu da. "Normaltasun batera itzuli gara. Senda-agiria ere badugu, baina orain dekretua sartu da indarrean", azaltzen du.



Aitor Agiriano, etxeko salan, irakurtzen. AITOR AGIRIANO

"Ospitalekoekin eskertuta nago"

AITOR AGIRIANO ESKORIATZA

"Ospitalean buelta asko ematen dizkiozu buruari. Gela zaude eta ez duzu ia inor ikusten, eta erizainak ere ahalik eta gutxien sartzen dira. Egun gutxi egin nituen nik ingresatuta, baina luze egin zitzaidan. Gero, ondo sentitzen zara, baina pneumonia duzula esaten dizute eta positibo zarela, eta ez dakizu gauzak zein bide hartuko duen. Hildakoak daudela dakizu, eta hedabideetan alarmismo handia dago... Zaila da. Honetan guztian onena sendagile eta erizain taldea da. Lan oso onak egiten ari dira. Oso eskertuta nago. Nire mezua? Pasatzen dela eta momentuan apurua hartu arren aurrera egin behar dela. Familiarekin elkartzeko gogoia dut, eta lagunekin afari on bat eta parranda eder bat egin nahi ditut. Hau guztia bukatutakoan izango da".




Nuria Fernandez de Arroiabe, etxean duen lanerako gelan. N.F.A

"Ezin dugu beldurrean jausi"

NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE ARAMAIO

"Nahiz eta isolamendua egin dudana, etxekoak kutsatzeak ez ninduen askorik kezkatzen, eta beldurrik ez dut pasa. Egia da sintoma arinak izan ditudala, baina uste dut norbera baikorra izatea oso garrantzitsua dela. Gomendatuko nuke beldurrean ez jausteko; izan ere, beldurrak berak jaisten ditu defentsak. Azkenean, gorputza kimikoa da eta beldurrak berak kalte egiten digu. Ahalegin behar dugu gorputzak duen sendatzeko gaitasunean sinisten, eta pentsatu behar dugu aurrera egingo dugula. Egoera gogorak daude: egunero ikusten ditugun hildakoen kopuruak, ospitaleetan arnasa ezin harturik daudenak... Baina egoera guztiak ez dira hain larriak, eta osasungintzako jendea sekulako lana egiten ari da. Hori hartuko dugu kontuan".




Rosa Maria Sanchez, logelan, bazkaria jasotzeko unean. ROSA MARIA SANCHEZ

"Zaindu ditzagun gure nagusiak"

ROSA MARIA SANCHEZ VALOR ARRASATE

"Hasieran, lur jota zaude eta dena oso ilun ikusten duzu, baina osasun zerbitzu bikaina daukagu eta gaixotasun hau gainditu daiteke. Hemen nago ni: hainbat patologia ditut, eta gainditu dut. Hau guztia amaitutakoan asteburu-pasa joango naiz kostara. Hondartzatik ikusi nahi ditut egunsentia, ilunabarra, olatuak... Berdin zait hotza edo euria bada ere. Eta nire mezua horixe: aterako garela honetatik, bai noski! Hori bai, kontuz gure nagusiekin. Nire kezka handiena gure aitona-amonak dira. Kolektibo ahulena da, eta ondo zaindu behar ditugu. Gure alde egin dute borroka bizitza guztian zehar, eta ez dute gertatzen ari zaiena merezi. Eta osasungintzako nire eskerrak beroena. Zoragarriak zarete! Txalo jotzen dizuet, egunero-egunero!".



Adinekoen egoitzetan umorea galdu gabe ari dira gaitzari aurre egiten

Debagoienean adinekoen sei egoitza daude, eta guztira 460 pertsona jasotzeko gaitasuna dute; Arrasateko Iturbide egoitza izan da COVID-19 kasuak konfirmatu dituen egoitza bakarra; gainontzeko egoitzetara, "zorionez", ez da heldu gaixotasuna



Carmen Fernandez eta Brigida Carrasco, Eskoriatzako Jose Aranako egoiliarak, irribarretsu, egoitzan. JOSE ARANA EGOITZA

Eneko Azurmendi ARRASATE
Koronabirusaren krisia, oro har, kalte handiak eragiten ari da adinekoen egoitzetan. Debagoienekoetan, Iturbide da egoitzarik kaltetuena; izan ere, eguenera arte, hamabi kasu positibo konfirmatu zituzten, eta Olatz Etxabe zuzendariaren esanetan, kasuak gora egiten ari dira. Gaitzaren eraginez egoitza horretan hildakoei dagokienez, bi direla baieztatu du zuzendariak. Gainontzeko egoitzetan, aldiz, ez dute koronabirus kasurik baieztatu orain arte.

"Oso ondo ikusten dut ama"

Blanca Medina eskoriatzarraren ama Jose Arana egoitzan dago, duela urtebete geroztik, eta, aitortu duenez, "berak gu baino hobeto" darama egoera hau. "Oso kontzientziatuta dagoen pertsona bat da, berak erabaki zuen egoitzara joatea. Egoera zein den oso ondo ulertzen du, eta ondo dago, pozik eta lasai", dio.

Medinaren esanetan, egoiliarrek badakite egoera zein den, eta kanpotik heltzen diren albiste berri jakiten dute egunero. "Galdetzen digu ea nola

doan guztia, zertan aldatu den egoera; interesa erakusten du kanpoan gertatzen ari denari buruz. Halaber, badakite han barruan baino hobeto ez direla inon egongo, seguru sentitzen dira eta behar duten guztia daukate", azpimarratu du.

Amak lasaitasuna transmititzen diola azaldu du eskoriatzarrak. "Gutaz arduratuago daude haien buruaz baino. Beti galdetzen digu ea ondo gauden, eta guk galdetzen diogunean, beti erantzuten digu oso ondo dagoela; irribarre batekin, gainera".

Senideek, alde batetik, egoera "larritasun puntu batekin" bizi dutela onartu du. "Ezin gara berarekin egon, ezin dugu ukitu, besarkatu, musukatu, eta abar. Baina, beste alde batetik, bera ondo dagoela ikusten dugunean, lasaitu egiten gara. Egunero berarekin hitz egin ahal izatea lasaigarria da eta kasu positiborik ez dagoela jakiteak ere lasaitzen gaitu".

Orain, bideo deien bitartez komunikatzen dira. "Asko entretzen dira, grazia egiten dit. Oso ondo pasatzen dute, eta horrek balio du. 88 urte ditu eta

"Sintomarik ez daukate askok, eta gainontzekoak kutsatzen ari dira"

OLATZ ETXABE ITURBIDE EGOITZAKO ZUZENDARIA

Salbuespen egoera bizitzen ari da Iturbide egoitza; aktibitate guztiak etenda dituzte.

Azken astea zoramena izaten ari da, ezta?

Bai; kasu positiboak igotzen ari dira, eta zoroen pare ari gara eraikina berrantolatzen. Positibo eman dutenak isolatzen saiatzen ari gara, gainontzekoekin ahalik eta kontaktu gutxien eduki dezaten. Gainera, proba gehiago egiten ari gara oraindik, badaezpada.

Kutsatu asko egon daitezke egoitzan?

Egoiliar askok ez daukate sintomarik, baina kutsatuta egon daitezke, eta gainontzekoak kutsatzen ari dira, haiek jakin gabe.

Egoiliarrek beldurtuta edo kezkatuta ikusten dituzu?

Esango nuke nahiko lasai daudela. Hemen heriotzarekin



GOIENA

ohituta daude, azken finean, gauza batengatik ez bada besteagatik hiltzen direlako, eta jende nagusia delako. Heriotzaren beldur baino gehiago da ezin direla irten, eta familiaren falta nabaritzen dutela.

Zuek ze prebentzio neurri hartzen ari zarete?

Hasieran, material aldetik oso justu ibili ginen, baina orain iritsi zaizkigu eskularruak, bata, maskara kirurgikoak, eta abar; babestuago gaude.

teknologia berriekin ez dago ohituta. Baina ilusio handia egiten dio, adibidez, nire semea ikusten duenean. Ezohiko egoera honek gauza politikak ere ematen dizkizu", gehitu du.

"Ondo informatuta nago, lasai"

Fuensi De Frutos oñatiarraren amak bost urte daramatza San Martin egoitzan eta, oraingo, behintzat, lasai dagoela onartu du. "Gure amak burua ez dauka ondo, baina egoitzatik ematen diguten informazioa fidagarria da. Guztiak ondo daudela esaten digute, eta horrek lasaitzen nau. Egunero deitzen dugu egoitzara, nire ahizpak egun batean eta nik bestean, eta gure amaren berri ematen digute hango langileek. Gainera, gura badugu, egunean behin baino gehiagotan deitzeko aukera ematen digute. Informatuta sentitzen gara, eta gertuko tratua daukagu egoitzako langileekin".

Astelehenetan, bideo dei bat egiten dute, eta psikologoarekin edota dinamizatzailearekin egoten dira. "Berarekin apur bat hitz egiteko aukera izaten dugu, baina ez digu gauza askorik

esaten. Agian, berarentzat aurpegi ezagunak garen arren, ez gaitu ezagutzen. Hala ere, musuak bidaltzen dizkigu, eta gu gustura geratzen gara berak lehengo moduan jarraitzen duela ikusita", gaineratu du De Frutosek.

"Mila esker langile guztiei"

Amaia Beitia osintxuarra Gas-teizen bizi da eta izeba, amaren ahizpa, Eskoriatzako Jose Arana egoitzan dauka. Aitortu du "oso gustura" daudela izeba egoitzan nola dagoen ikusita. "Familia moduan eskerrak eman behar dizkiegu Jose Aranako zaintzaile, zuzendari, psikologo, erizain eta mediku guztiei, bihotz-bihotzez. Oso ondo portatu izan dira beti gurekin, eta kasu honetan ere hala izaten ari da".

Oso egoiliar gutxi direnez, familia bat direla dio, eta oso gertuko tratua ematen dietela egoiliar guztiei. "Hango langileekin aurpegia piztu egiten zaio nire izebari, eta hori ezin hobeto zaintzen duten seinale da. Askok gustatzen zait Mireia Larrañaga zuzendariak nola darman gestioa, eta langile guztiak oso jatorrak eta gertukoak dira.

Debagoieneko adinekoren egoitzak

Herria	Egoitza	Lekuak
Aretxabaleta	GSR Debagoiena	144
Arrasate	Iturbide	105
Bergara	Mizpirualde	81
Oñati	San Martin	68
Eskoriatza	Jose Arana	32
Arrasate	Aita Menni*	30

* AITA MENNI BI UNITATETAN BANATUTA DAGO, ETA BAKOITZAK 15 LEKU DITU.

ITURRIA: GFA

Han baino hobeto inon ere ez litzateke egongo orain".

Beitiak dio izeba ez dela konziente kanpoan gertatzen ari den guztiarekin. "Baina nik uste dut arraroa egiten zaiola hainbeste denboran gu hara ez joatea. Atzo esan nion berari laztan handi bat emateko gogoa nuela, eta buruarekin baietz esaten zidan, onartuz moduan".

Bideo dei bidez arratsaldero egoten dira izebarekin, asteburuetan izan ezik. "Egoera xelebrea da, batez ere berarentzat. Pan-

taila batean ikusten gaitu eta harrিতa moduan begiratzen digu. Guk, halere, oso ondo ikusten dugu, oso alai. Horrek asko lasaitzen gaitu".

Harremanak sendotzen

Leire Sanz Osakidetzako medikua da, eta Jose Arana eta San Martin egoitzetan dihardu lanean. Azaldu duenez, egoiliarrek oso babestuta daude egoitzetan. "Hasieratik hartu izan ditugu neurri zorrotzak, heldu zitzaizkigun protokoloak jarraituz.

Egun batetik bestera aldaketa handiak izan genituen egoitzetan. Hasieran, bisita orduak murriztu zituzten; gero, pertsona bakarra etorri zitekeen; eta gero, bisitak erabat eten zituzten. Langileoi dagokigunez, hasieratik sarrera eta irteeretan gorputzeko tenperatura kontrolatzen dugu, erregistro bat eginez; eskuak ondo garbitzen ditugu; maskarak erabiltzen ditugu, eta abar", gaineratu du.

Osasun aldetik egoiliarrek "oso ondo" daudela nabarmendu du Sainzek. "Hala ere, animo aldetik ez horrenbeste. Senideek ezin diete bisita egin eta sumatzen dugu hainbat egoiliar triste daudela horregatik. Gainera, kanpoan zer gertatzen ari den ere ez dakite oso ondo, eta arduratuta daude".

Alazne Irazabal Mizpirualde egoitzako zuzendariak, era berean, alde positiboa topatu gura izan dio ezohiko egoera honi. "Kanpotik bisitarik ez dutenez jasotzen, egoiliarren arteko harremanak indartzen ari dira egun hauetan, eta harreman berriak ere ari dira sortzen", nabarmendu du.

"Egoera normaltasunez hartzen saiatzen gara"

ISABEL EZENARRO MIZPIRUALDEKO EGOILIARRA

Isabel Ezenarro bergararrak 92 urte ditu eta Mizpirualde egoitzako egoiliarra da. Kontatu du garai batean konfinatuta zeuden batzuei bazkaria eramatera joan ohi zirela etxera, baina onartu du honen intzidentzia askoz ere handiagoa dela orduko hura baino.

Zelakoak izaten ari dira egun/aste hauek Mizpirualde egoitzan?

Horrenbestean; ondo daramatzagu egunak, apurka-apurka. Hemen barruan ondo gaude, eta oraindik birusarengandik libre gaudela ematen du, behintzat. Kanpora irtenez gero isunak jartzen dituztela esaten dutenez, barruan gaude. Telebista ikusten dugu, pilota ere ematen dute noizean behin eta gustura ikusten dut. Horrez gain, jolas batzuk ere egiten ditugu eta entretenituta gaude. Oso ondo gaude; guztiak gure moduan egongo balira, ez litzateke albiste txarra izango.

Kanpoan gertatzen ari dena jarraitzen ari zarete? Zer iruditzen zaizu?

Egunero ikusten dugu telebista eta albistegiak ere jarraitzen ditugu. Egun guztian horrekin gaude. Hau ez da gizakiaren eskuek egindako zerbait.

Zuek ere ez zenuten halako egoerarik bizi izango inoiz, ezta?

Ez horixe. Guk bizi izan genuen antzerako kasu bat Bergaran, baztanga birusarekin. Gaixo zeudenak etxetik ezin ziren irten, eta makina bat aldiz joan ginen haien etxepera bazkaria eramatera. Otarre batean eramaten genien, baina haiek ikusi ere ez genituen egiten. Otarra etxe atarian uzten genien eta etxera itzultzen ginen. Honek, hala ere, neurri askoz ere handiagoa du. Mundu mailako zerbait da, eta mundu guztian jendea etxetik atera gabe dago. Auskalo zerk eragingo zuen hau guztia.

Beldurrik edo kezkarik baduzue? Zer komentatzen duzue zuen artean?

Kutsatzeko arriskua eduki genezake, bai, baina ez dugu horren inguruan barbarik egiten. Beldur puntu bat badaukagu, ez dakigulako nondik etorri daitekeen.

Saiatzen zarete distantziak-eta mantentzen?

Neurriak muturrera eramane gabe, baina bai. Esaten digutena egiten dugu, formal-formal. Egoera normaltasunez hartzen saiatzen gara, eta egunerokoari modu berean aurre egiten ere bai.



MIZPIRUALDE EGOITZA

"OSO ONDO GAUDE; GUZTIAK GURE MODUAN EGONGO BALIRA, EZ LITZATEKE ALBISTE TXARRA IZANGO"

Zer egiten duzue egunero, nola pasatzen duzue denbora?

Aktibitateak-eta ez ditugu lehengo moduan egiten, baina egiten ditugu ekintzak. Atzo, esaterako, psikologoarekin egon ginen jolas bat egiten. Istoriak kontatzen zizkigun eta letrero batean letrak jartzen joaten zen bera, esaldiak edo hitzak osatu arte. Ia arratsalde osoa eman genuen horretan. Paseatzeko aukera ere badaukagu, hemendik irten gabe, eta horretarako ere aprobeztatzen dugu.

Senideekin egoten zara telefonoz?

Bi seme ditut. Bat Donostian bizi da eta bestea hemen, Bergaran, eta haiekin ia egunero egoten naiz telefonoz edo bideo dei bitartez. Bestalde, iloba bat Zeelanda Berrian dago, eta bideo deia egin berri dut berarekin. Ondo daudela esan zidan, oraindik ez daudela kutsatu asko han. Munduaren beste puntan egon eta elkar ikusi ahal izatea sekulako aurrerakuntza da, sinesten ere lanak ditut. Donostiako ilobekin ere bideo dei bat egingo dut, haiek ikusteko gogoz nago.

Nola daramazu bisitarik ezin jaso ahal izatea? Gogorra da?

Lehen, ia egunero etortzen zen norbait bisitan, eta orain, telefonoz bakarrik egon naiteke haiekin. Baina ez zait gogorra egiten, arazo orokorra delako, guztioi eragiten diguna. Beraz, guztiok bat egiten dugu, eta eramangarriagoa da. Hori bai, senideak faltan igartzen ditut, baina ez naiz larritzen, hau ez da-eta betiko izango; lehenago edo geroago, birus honek alde egin beharko du norabait.

Eta, azkar egingo al du alde?

Ez, ez da agudo pasako. Honek guztiak bere denbora beharko du eta guk demaseko pazientzia eduki beharko dugu bien bitartean, baina pasatuko da. Hala ere, ondorio asko utziko ditut, baina guztion artean aurrera egingo dugu.



Arrasateko kale-garbitzaileak lanean. IMANOL SORIANO

Udal zerbitzuak eten barik, herritarrendako eskuragarri daude

Beharrezko segurtasun neurriak hartuta Debagoieneko udal guztietako arduradun politikoak eta teknikoak herritarrei ahalik eta zerbitzu onena emateko lanean ari dira; zerbitzu batzuk eten egin dituzte, eta telematikaren bitartez ari dira, gehienbat, lanean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Harrera zerbitzu presentziala dago udaletxe guztietan eta beharrezko langileak bakarrik ari dira lantokietatik lanean.

Arrasaten, dirulaguntza berezia "Udaletxean hamar pertsona gaude lanean. Bulegoetakoak telematikoki aritzen dira euren etxeetatik eta beste hainbat erreten moduan daude", dio Komunikazio arduradun Anuska Ezkurrak, eta zera gaineratu du: "BAZ, Gizarte Zerbitzuak eta Emakume Txokoa zabalik ditugu eta harreman telefonikoa ematen dute, eta, neurri bereziki bada ere, Udal Azoka zabalik dago. Brigadakoek eta BAZeko langileek txandak egiten dituzte. Zinegotziek etxetik egiten dute lan, eta telematikoki dira bilerak. Taldeko batek positibo eman zuenez, bi astez

etxetik egin dugu lan, eta, egoera normalera bueltatuta, nire kasuan, adibidez, goizetan udaletxean egoten naiz eta arratsaldez etxetik jarraitzen dut lanean".

Udalak herritar zaurgarrienei gutxieneko baliabideak bermatzeko laguntza ekonomikoa abiatu du. "Diru partida irekia da, ez du diru toperik izango, behar dutenei laguntza ematea da eta gure lehenetsia".

Bergaran, 43 lagun

Modu presentzian 43 lagun ari dira Udalerako lanean: hamar langile eta alkatea eta zinegotzia,

UDALETXE GUZTIETAN DAGO ZERBITZU PRESENTZIALA, BAINA TELEMATIKA BIDEZ EGITEA LEHENETSITA

eta, horiez gain, udal brigadakoak eta udaltzainak. "Gehienak telelanean ari dira. Herritarrekin aurrez aurreko arreta zuzena galdu dugu, baina, bestela, berdin ari gara lanean, zerbitzu guztiak zabalik ditugu. 010 telefono zenbakian zentralizatuta dago Udalaren arreta; hortik bideratzen da departamentu bakoitzera." dio Gorka Artola alkateak.

Aretxabaletan, zortzi lagun

Zuzenean udal langileak diren 39tik zortzi lagun ari dira presentzialki lanean; honela dio Unai Elkoro alkateak: "Lau udaltzainak, harreragilea, kontuhartzailea eta Ongizateko bi lagun. Teknikari gehienak telelanean, eta brigadakoak tarteka, beharrezkoak diren lanak egiten; horiez gain, egoitzan lan egiten duten Urats Gain udal fundazioako langileak daude. Politika-

rioi dagokigunez, gure arteko bilera eta komunikazioak telematikoki egiten ditugu eta udaletxean ni bakarrik egoten naiz".

Oñatin ere, telelanean gehienak

115 langile ditu Oñatiko Udalak, eta lehenetsunezkoak ez diren lan presentzialak bakarrik daukela galdi dio Izaro Elortza alkateak: "Telelanean ari gara, eta lan presentzian, soilik ezinbestekoak; gainontzekoak, laguntza-guardian. Zerbitzuei buelta bat eman diegu, zerbitzu berak ematen jarraitzeko. Politikariok ere etxetik ari gara".

UDAL TEKNIKARI ETA POLITIKARI GEHIENAK ERE TELELANEAN ARI DIRA, EZINBESTEKO JARDUNETAN IZAN EZIK

Eskoriatzan, "hamaika" dekretu

"Lehenetsuna premiazko arloei eman diegu, eta, aurrez aurreko eten den arren, normal ari gara, gehienak etxetik, lanean. Hamaika dekretu atera ditugu, egoera aldakorrari erantzuteko".

Antzuolan, guztiak lanean

14 udal-langile daude eta guztiak ari dira lanean. "Udaletxean, batez ere, garbiketa eta desinfekzio-lanekin ari gara", dio Beñardo Kortabarría alkateak.

Elgetan, Aramaion eta Gatzagan

Elgetan ere telelanean ari dira zerbitzu guztietakoak, eta brigadakoak, beharrezko diren lanak bakarrik egiten.

Aramaion, ur eta argi hornidurak, garbitasuna... bermatzeko lanean ari dira, etxetik gehienak, edo txandak eginez; hala ari dira Leintz Gatzagan ere.

Herritarrendako arreta telefonoak

Aramaio

• **Udaletxea** Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:30era, 945 44 50 16 eta Udala@aramaio.eus. Ordutegi horretatik kanpo, asteburuetan eta jaiegunetan, 649 99 57 51, eta baita auzo-alkateen bidez ere.

Aretxabaleta

• **Udaletxea** Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 14:00etara, 943 71 18 62 eta Udala@aretxabaleta.eus.

Arrasate

• **BAZ** Astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 19:00etara, eta zapatueta 09:00etatik 13:00era, 943 25 20 00.
• **Emakume Txokoa** Astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 20:00etara 943 79 41 39, 618 20 62 33, eta Emakumetxokoa@arrasate.eus.

Antzuola

• **Udaletxea** Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara: 943 76 62 46. Ordutegi horretatik kanpo, 650 80 52 48.

Bergara

• **Udaletxea** 010 telefonoan zentralizatuta dago Udalaren arreta guztia; hortik bideratzen da Zaintzen boluntario sarera ere.

Elgeta

• **Udaletxea** 943 76 80 22, 634 43 84 58, Udala@elgeta.eus eta [@elgetakoudala](https://twitter.com/elgetakoudala).

Eskoriatza

• **Udaletxea** Astelehenetik egubakoitzera, 9:00etatik 14:30etara, 943 71 44 07 eta Udala@eskoriatza.eus.

Leintz Gatzaga

• **Udaletxea** 943 71 47 46 eta Udala@leintzgatzaga.eus.

Oñati

• **Udaletxea** 943 78 04 11 eta Udala@oinati.eus.
• **Zaintzen boluntario sarea** 688 88 65 19.

Debagoieneko hainbat enpresa ari dira aukera berriei ondo erantzuten

Debagoieneko hainbat enpresa produktuak egokitu eta irtenbide berriak eskaintzen ari dira egoera gaitz honetatik lehenbailehen ateratzeko. Hain zuzen ere, buru-belarri dihardute lanean jasotako eskaera berriei egunotan erantzuna emateko

Amaia Aranegi ARRASATE

Enpresen zerbitzuak eta produktuak kontuan hartuta, hainbat eskaera egin dira enpresek egoera honetan laguntzeko. Batzuek makinak edo produktuak egokitu dituzte, eta beste batzuek, aldiz, ohiko zerbitzuak indartu edo ohiko produktuak gehiago saltzen ari dira. Hala, egoera honetatik lehenbailehen ateratzeko eta momentu honetan garrantzitsuak diren eskaerei erantzun azkarra emateko, lanean buru-belarri dihardute.

Manparak ospitaleetan

Debagoieneko Ospitaleak jenduraren lanean diharduten langileak babesteko neurri berri baten eskaera egin zion Arrasate Kristaldegia. Lehenagotik ez zeukaten horrelako segurtasun sistemarik, baina zeukaten materialez baliatuz eskatutako irtenbidea eman zioten.

Bi edo hiru egunez probak egiten egon ziren, eta, funtzionatzen zuela ikusita, Debagoieneko Ospitalean eta bailarako anbulatorioetan instalatzen hasi ziren kristalez egindako segurtasun manparak.

Mostradoreetan jartzen dute eta egoera honetarako erabilitako materialak bereziak dira, eta segurtasuna bermatzen duela dio Arrasate Kristaldegiko arduradun Gerardo Uribesalgok: "Kristal bikoitza dauka, eta, apurtuz gero, ez dira kristal zatiak jausten".

Hasieran bailarako ospitale-rako eta anbulatorioetarako eskariak jaso bazituzten ere, Euskal Herriko txoko askotako ospitaleetatik eta anbulatorioetatik jaso dituzte enkarguak. Gainera, partikularrak ere jarri dira haiekin harremanetan eta hainbat farmazia eta estankotan ere jarri dituzte segurtasun kristal hauek.

Eskaera asko izaten ari dira egunotan. Arrasate Kristaldegiko langileak buru-belarri ari dira instalazio lanetan, baina lan hau amaitzerakoan jendea oso pozik geratzen da emaitzarekin: "Egoera honetan jenduraren lan egiten duten langileek beldurra daukate eta, hain zuzen ere, asko eskertzen ari dira segurtasunerako kristalezko neurri hauek. Instalatu ostean, lasaiago geratzen dira langileak".

14 milioi maskara

Medikamentuen Espainiako Agentzia Mondragon Assembly-rekin jarri zen duela bi aste harremanetan eta Bexen Medical enpresarekin batera maskara kirurgikoak ekoizteko eskaria egin zion; Mondragon Assemblyn makinak ekoizteko eta Bexen Medicalet maskarak ekoizteko. Izan ere, Mondragon Assemblyn horrelako produktuak egiteko gai diren makinak ekoiz-

teko ezagutza dauka, eta Bexen Medicalet, maskara ekoizpenean urtetako esperientzia.

Gauzak horrela, oso azkar joan zen guztia eta eskaintza onartzeko erabakia hartu zuten; honela dio Mondragon Assemblyko Automatizazio zuzendari Iñigo Velez de Mendizabalek: "Oso azkar joan da prozesua; duela bi aste hasi zen, asteburu batean. Zapatuan jaso genuen eskaria eta, askorik pentsatu gabe, domekan erabaki genuen proiektua aurrera eramatea. Aurretik diseinua landuta geneukan, eta, beraz, makinak lau astean eginda egotea adostu genuen. Hau beste proiektu batean ezinezkoa izango litzateke. Baina egoera zein den kontuan hartuta, adostu genuen makinak ahalik eta azkarren egitea, gero hona ekarri eta lehenbailehen produkzioan jartzeko".

Izan ere, Mondragon Assemblyn Txinan duen filialean dihardute makinaren diseinua eta fabrikazioa lantzen. Guztira, lau makina egingo dituzte: "Makinak maskara kirurgikoak egiteko eskatu dira. Makina automatikoak dira, alde batetik behar diren zuntzak kargatzen dira, eta gero, beste alde batetik belarrietan jartzeko zintak kargatzen dira. Makinek zuntz horiek soldatzen dituzte, ultrasoinuen bidez, maskarek forma eman eta gero behar diren gomak kargatu, moztu eta soldatu maskarak bukatzeko. Horrekin, maskara bukatuta egongo litzateke, eta erabilgarri. Makina bakoitzak hiru milioi eta erdi maskara ekoiztiko ditu eta, guztira, lau makinekin, hamalau milioi maskara ekoiztiko dira". Mondragon Assemblyn ekoiztutako lau makinetatik hiru Bexen Medicalen fabrika batean jarriko dituzte; Lasarten, seguruenik. Eta bestea armadara bideratuko da, Burgoen daukaten farmazia batera; maskarak fabrikatuko dituzte han.

Proiektu hau erronka handia izan da Mondragon Assemblyrentzat: alde batetik, makinak

sortzeko behar larriarengatik; eta, bestetik, lau aste dituztelako makinak martxan ipintzeko. Hala ere, pozik daude egiten ari diren lanarekin. "Erronka izan da, erronka handia izan da guretzat. Makinak ondo jartzeko apur bat sufrituko dugu, baina, egoera zein den ikusita, harrotasuna eta poztasuna sentitzen dugu makina hauek eginda eta ahal dugun guztian lagundu ahal izanda, egoera honetatik lehenbailehen irten gaitzen", dio Velez de Mendizabalek.

Egungo osasun larrialdi egoerak makinaren diseinua, fabrikazioa, logistika eta prest jartzeko lanen koordinazioa asko zaildu duen arren, lau makina horiek apirilaren 15ean irtengo dira Txinatik.

Desinfekzioarako produktuak

Antzuolako Goizper enpresak, berriz, garbiketa eta desinfekzioarako produktuen eskarian igoera nabari du. Mundu osotik ari dira eskariak jasotzen, ehun herrialdetan baino gehiagotan saltzen dute, baina, gehienbat, European eta koronabirusak gehien eragin duen herrialdeetan. Gainera, enpresa pribatuetatik jasotzen dituzte eskariak, eta instituzio publikoetako banatzaileetatik.

Desinfekzioarako eta garbiketarako gama berezia daukate eta egoera honetan produktu hauek gehiago saltzen dituzte. Hala ere, lorezaintzako eta nekazaritzako negozioa ere badaukate eta momentu hauetan negozio hau jausi egin da eta ez dute salmentarik produktu hauetan. Beraz, Goizper enpresan, mundu osoan bizitzen ari den egoeraren ondorioz, salmenta gehiago ez daudela dio pulberizatzaileen negozio arduraduna Andoni Gutierrezek: "Garbiketa eta desinfekzioako produktuak saltzen ari gara, baina ez lorezaintza eta nekazaritzakoak. Beraz, egoera honetatik ez dugu gehiago saltzen, modu ezberdinean ari gara lanean eta egoerara egokitu gara".

**"LANGILEEN
SEGURTASUNERAKO
ESKAINI DUGUN
SISTEMAK HARRERA
OSO ONA IZAN DU"**

GERARDO URIBESALGO, ARRASATE
KRISTALDEGIA

**"ERRONKA HANDIA
IZAN DA GURETZAKO,
BAINA
HARROTASUNEZ EGIN
DIOGU AURRE"**

IÑIGO VELEZ DE MENDIZABAL,
MONDRAGON ASSAMBLY



Debagoieneko Ospitalean, langileen segurtasuna bermatzeko manparak ipini berri. ARRASATE KRISTALDEGIA

Ondorio ekonomikoaz kezkatuta

Osasun mailan izan duen eraginaz ahaztu barik, gerora ekarriko dituen ondorio ekonomikoez hasi dira pentsatzen ia herrialde gehienetan

ALEMANIA

"Ez da kritika handirik entzuten Merkelen kontra"



LAURA
LAKONTXA
OÑATI

Zerbitzuak eta ikastetxeak itxita eta ahal duenak etxetik lan egiteko gomendioa dute Alemaniaren baina egunero atera daitezke kalera kirola egitera. "Esango nuke nahiko egoera lasaian ari garela pasatzen ezohiko egoera hau; bai, behintzat Italiarekin alderatuz. Merkelek esan zuen alemaniarren %70ek izango zutela COVID-19 gaitza, eta, kanpoaldean kritikak izan baditu ere, hemen ez da horrela izan. Egia esan, ez da kritika handirik entzuten Gobernuak hartutako erabakien inguruan", dio oñatiarrak. Ekonomiaren etorkizuna ei da herritarren kezka nagusia eta Gobernuak hasi da laguntzak ematen.

- Kutsatuak: 77.981
- Hildakoak: 931

SUEDIA

"Herriak ikara sortzeari dio beldurra Gobernuak"



GOIZEDER
CABALLERO
ARRASATE

Suedian oraindik "ilargian" bizi direla dio Goizeder Caballero arrasatearrak: "Koronabirusa da gai nagusia, bai, baina, adibidez, eskiatzera joateko bidaiak nolatan debekatuko dituzten galdetzen du jendeak. Aste Santura begira, kanpora ez joateko gomendatu dute, baina ez dago debekurik". Dio hango Gobernuak Britainia Handian hartutako jarrerarekin jarraitzen duela, eta ekonomia lehenetsiz. "Testak 60 urtetik gorakoei eta oso larri daudenei bakarrik egiten dizkiete, eta hildakoak gehiago izan daitezke. Herritarren artean ikara sortzeari dio beldurra Gobernuak; egoerak ekonomian eraginik ez edukitzea gura du".

- Kutsatuak: 4.947
- Hildakoak: 239

SINGAPUR

"Herrialdeen koordinazio falta egon da Europan"



JON
BARRENETXEA
ARETXABALETA

Aurretik ere izan dituzte izurriteak Singapurren, eta orduan ikasitakotik ari dira orain lanean. "Geroztik protokolo oso zorrotzak ezarri dira: zer egin kasu positiboekin, zelan isolatu, beharrezko ekipamendu eta azpiegiturak ospitaleetan bermatu, txandaka eta taldeetan lan egiteko plangintzak antolatu ospitaleetan... Protokolo hauek bateratzea ezinbestekoa da, ez baitago mugarik herrialdeen artean. Protokolo hauen eta EBko herrialdeen koordinazio faltak koronabirusaren hedapena ahalbidetu dute. Etorkizunean, larrialdi neurriak koordinazioz bideratu beharko lirarteke EB mailan", dio Barrenetxeak.

- Kutsatuak: 1.000
- Hildakoak: 4

ERRESUMA BATUA

"Gobernuak neurriak aldatu ditu eta hoberako izan da"



IÑIGO
GALLASTEGI
BERGARA

"Uste dut herrialdea hobeto dagoela. Gobernuak aldaketak egin ditu neurrietan eta hobetu egin da egoera. Italiara eta Espainiara asko begiratzen zaio hemendik eta azkar aldatu dituzte neurriak. Momentu honetan, hemengo osasun zerbitzu publikoari ari dira lehenetsia ematen, eta ekonomiari pixka bat gutxiago. Agendan osasuna dago lehen postuan, albiste ona da", dio Iñigo Gallastegi bergararrak. Herritarrek kezkatuta daudela ere badio, egungo egoerak noiz arte jarraituko duen argi ez dagoelako inon. "Ea hurrengo lau asteetan-edo egoerak ze itxura hartzen duen eta gero poliki-poliki ohikora bueltatzen garen".

- Kutsatuak: 29.474
- Hildakoak: 2.352

MEXIKO

"Meme sorta handia egin da Lopez Obradorren esanekin"



MIKEL
AGINAGALDE
BERGARA

"Duela bost urte, *influenza* izeneko pandemia eduki zuten Mexikon; antza, oraingoa baino hilkorragoa. Eta orduan aurrera egitea lortu zuten moduan, oraingoan ere egingo dutela diote mexikarrek, eta lasai daude, ez dituzte ez urduri ez kezkatuta ikusten", dio Mikel Aginagalde bergararrak. Herritarrek Lopez Obrador presidenteari entzun ere ez diotela egiten gaineratu du: "Meme sorta handia egin da berak esandakoekin. Elkar besarkatzeko lehenengo eta kalera atera eta kontsumitzeko gero. Orain, berriz, Guadalupeko Ama Birjinarekin eta mexikarren odolarekin, apenas egingo direla hildakorik".

- Kutsatuak: 1.378
- Hildakoak: 37

ZEELANDA BERRIA

"8.000 euroko hegaldia hartzea proposatu digute"



MARIA
AGINAGALDE
BERGARA

Koronabirusaren krisiak Zeelanda Berrian harrapatu du Maria Aginagalde bergararra. Larrialdi egoera ezarri dute hain eta zailtasunak ditu etxera bueltatzeko. "Alemaniak antolatu du aberriratzeko hegaldiak, baina espainiar bat edo bi sartzen dira bakarrik horietan. Bestalde, Qatar Airways konpainiak 8.000 euroko hegaldiak jarri ditu, baina inork ez ditu hartu. Merkeagoak ere jarri ditu, 2.000 euro pasakoak Europara. Baina zer egiten du Europako edozein herritan? Eta handik etxera joan beharko nintzateke gero, prezioa garestituz. Enbaxadaren laguntza txikia da momentuan. Deia zain jarraituko dut".

- Kutsatuak: 797
- Hildakoak: 1

BELGIKA

"Apirilaren 19ra arte luzatu dute konfinamendua"



AMAIA
EGOSKOZABAL
OÑATI

Martxoaren 18an ezarri zuen konfinamendua Belgikako Gobernuak eta apirilaren 19ra arte luzatu du, beste bi aste luzatu dezakeela ohartarazita. "Konfinamendua, baina, ez da erabatekoa. Kalera atera gaitezke, adibidez. Zerbitzuak eta ikastetxeak itxita daude, hori bai. Janari dendak eta gasolindegia daude zabalik eta garraio publikoa ere badabil, baina bidaiari kopurua txikitu egin dute bidaiari", dio hemezortzi urtez Bruselan bizi den oñatiarrak. Ospitaleetako egoerari buruz galdetuta, dio egoera ez dela hain larria oraindik: "Badago tokia, baina gertatzen ari dira kopurua handitzen denerako".

- Kutsatuak: 15.348
- Hildakoak: 1.011

AEB

"Trump inprobisatzen dabil koronabirusarekin"



NAIARA
AKIZU
ARETXABALETA

200.000 kasu baino gehiagorekin, koronabirusak gehien kolpatu duen herrialdea da Ameriketako Estatu Batua. Estatu bakoitzak bere arauak eta neurriak hartzen ditu eta egoerak ezberdinak dira batean edo bestean. Donald Trump presidentek jarrera aldatu du hasieratik hona eta "inprobisatu" egiten duela uste du Akizuk: "Duela hilabete gutxi esan zuen koronabirusa heldu ere ez zela egingo, eta oraingo egoera beste bat da. Apirilaren 12an normaltasunera bueltatuko ginela, baina 30era atzeratu du data orain. Gauza bat esan eta beste bat gertatzen da beti Trumpekin, baina ez da inoiz ezer pasatzen".

- Kutsatuak: 215.344
- Hildakoak: 5.112

SUITZA

"ERTEa eskatu dute luxuzko denda askok"



GORKA
GALDOS
OÑATI

Suitzako Gobernuak ez du oraindik enpresak itxeko erabakirik hartu, baina enpresa askok eten egin dute produkzioa, salmentarik ez dutelako. "Hori pasa da, adibidez, luxuzko produktuak, erlojuak eta bitxiak saltzen dituzten dendetan. ERTEa eskatu dute askok", dio oñatiarrak. Hezkuntza zentroak itxita daude eta ikastetxeek prestatutako plan baten barruan ari dira eskolak jarraitzen ikasleak. Hain zuzen, umeen etorkizuna da herritarren kezka nagusienetako bat, ekonomikoarekin batera. "Suitzak diru dezente du erreberban, baina mundu osoarekin dago ekonomikoki lotuta, eta kostako zaigu buelta ematea".

- Kutsatuak: 18.117
- Hildakoak: 505

HERBEHEREAK


"Espainiako egoerari harriduraz begiratzen diote"



TXEBI
ETXEBARRIA
BERGARA

Belgikan bizi eta Herbehereetan egiten du lan Txebi Etxebarria bergararrak. "Belgikan ez bezala, Herbehereetan ez dago konfinamendurik, nahiz eta beraiek ikusten duten beharrezkoa dela etxean gelditzea. Ni autonomoa naiz, eta laguntzak jarriko dituela esan du Gobernuak, baina horretarako han bizi behar duzu, eta ez da nire kasua. Eskolak ere ematen dituzte, eta horiek *online* ematen ari naiz". Europako Batasunean Herbehereetako Gobernuak izandako jarreraren inguruan, Etxebarria dio bai sumatzen duela euren harridura Espainiako egoeraz, eta uste dutela testak egiteko aukerak lehenago etorri behar zuela.

- Kutsatuak: 13.614
- Hildakoak: 1.173



Zabalik dauden denda txikiak, segurtasun neurriekin lehen lerroan

Komertzio txikia ari da izaten kaltetu handienetako bat koronabirusak eragindako egoeran. Lehen lerroan lanean ari diren dendari txikiak segurtasun neurriekin ari dira aurre egiten egoera honi eta itxita dauden dendariak beltz ikusten dute etorkizuna

Amaia Aranegi ARRASATE

Alarma egoera ezarri zenetik, oinarritzkoak diren elikagaiak eta produktuak saltzen dituzten dendak daude soilik zabalik. Hasieran, jendeak erosketak asko

egin zituen eta dendari txikiek asko sumatu zuten. Gero, denbora aurrera joan ahala, egoera normaldu egin dela diote, eta orain, beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuz, nor-

maltasunez ari dira lanean. Hartutako neurrien artean daude maskarak eta eskularruak erabiltzea, segurtasun distantzia mantentzea, denda barruan jende askorik ez pilatzeko txanda-

ka sartzea eta eskuak maiz garbitzea, txanponekin ibili ondoren, batez ere. Izan ere, erosketak ordaintzeko orduan ere igarri dute aldaketa: txartelarekin gehiago ordaintzen du orain jendeak. Bergarako Kabutzia arrandegian, adibidez, erosketen erdia baino gehiago datafonoarekin kobratzen dute eta txanponekin ordaintzen dutenak 10 euro baino gutxiagoko erosketak egiten dituztenak izaten dira.

Hasierako egunak gogorrak izan baziren ere, orain, normaltasuna da nagusi eta dendari txikiek ez dute horniketa arazorik. Aretxabaletako Jon harategian, adibidez, lehen egunetan oilasko falta zegoen. Jendea jeneroa erosten hasi zen, gehienbat oilaskoa, eta abeltegiak desorekatu egin ziren. Orain,

egoera normaldu egin da eta ez dago horrelako arazorik.

Salmentei dagokienez, dendari txikiek ez dute aldaketa handirik sumatu. Esan bezala, hasieran, jendearen urduritasunagatik igoera bat igarri zuten produktu zehatz batzuetan, baina orain, normaltasunez ari dira saltzen. Arrasateko Balanzategi kioskoan, adibidez, bai igarri dute adineko pertsonen falta. Salmentetan jaitsiera pixka bat sumatu dute eta adineko pertsonak egunkaria erostera joan beharrean, familiarrak edo etxean dauden laguntzaileak joaten direla ikusi dute.

Izan ere, adineko pertsonak kalera irten daitezten saihesteko eta orokorrean jendea dendan ez pilatzeko, enkarguak etxetara eramaten dabilta hainbat dendari txiki. Kabutzia arrandegian eta Jon harategian enkarguak etxetara eramaten dabilta, aurretik telefonoz eskatuta.

Dendari txikiek kontaktu zuzena dute bezeroekin, bezero asko betikoak dira, eta egun hauetako giroa desberdina ari da izaten. Izan ere, bezero batzuk urduri ikusten dituzte gaixotasunaren inguruan eta beste batzuk arduratuta daude etorkizunera begira. Ziurgabetasun asko sumatzen dute egoera honen inguruan; noiz bukatuko den eta ondoren zer gertatuko den galdetzen dute askok, eta beste asko kutsatuak dauden edo izateko beldur dira.


Hala ere, egoeraren gainean oso kontzientziatuta ikusten dituzte bezeroak eta hartu beharreko neurri guztiak betetzen ari direla diote.

Egoera honetan, beharrezko elikagaiak eta produktuak saltzen dituzten dendari txikiak burubelarra ari dira lanean zerbitzua ematen. Baina gainontzeko denda txiki guztiak itxita daude. Eta honek ondorio ekonomiko larriak eragingo dizkietela salatzen dute.

Alarma egoera ezarri zenetik, koronabirusaren osteko etorkizuna beltz ikusten dute itxita dauden denda txikiek. Galtzen duten egun edo hilabete bat berreskuratu ezin daitekeen eguna edo hilabetea dela diote. Dendak itxita dauden bitartean, gastuak izaten jarraitzen dute, alokairua adibidez, eta krisialdi honetatik ateratzea erronka handia izango da hauentzat.

Nola egiten ari zarete aurre egoera honi?

ESKORIATZA



JON DIAZ
JON HARATEGIA

"Ez gaude arduratuta, neurriak hartu ditugu"

"Mostradorea daukagu eta horrek nahikoa distantzia uzten du bezeroarekin, eta, harategia handia denez, hiruak edo lauak sartzen dira. Hori bai, merkatariek ez dira dendara sartzen, bakteriak ez sartzeko. Langileok ez dugu maskararik erabiltzen, baina eskuak asko garbitzen ditugu. Aretxabaletan, bezeroen artean mesfidantza sumatzen dut, ez baitakite koronabirusik duten edo ez. Batzuek zalantza hori dute, baina gutxieneok dira. Hala ere, guztiak distantzia eta segurtasun neurriak errespetatzen dituzte eta kontzientziatuta daude bizitzen ari garen egoeraren gainean. Bestetik, salmentari dagokionez, antzera ari gara saltzen. Hasieran, jendeak asko erosi zuen, eta orain, normal ari gara saltzen".

BERGARA



IDOIA ORMAZABAL
KABUTZIA ARRANDEGIA

"Hasiera gogorra izan zen; orain, jendea lasaia dago"

"Segurtasun neurriak hartu ditugu; eskularruak erabiltzen ditugu, dendara bezeroak banan-banan sartzen dira eta eskuak maiz garbitzen ditugu. Gainera, erosketen erdia baino gehiago datafonoarekin kobratzen dugu eta txanponekin, normalean, hamar eurotik beheragoko erosketak izaten dira. Bergaran, bezeroak urduri eta arduratuta ikusten ditut; zer gertatuko den, horrek arduratzen ditu. Adineko pertsonak gaixotzeko beldur dira; eta jende gazteari, egoera hau noiz amaituko den arduratzen zaio. Konfinamenduaren lehen astean gehiago saltzen genuen, baina orain, normaltasunez ari gara saltzen. Gainera, enkarguak ere egiten ditugu. Adineko pertsonen, gehienbat, alde aurretik eskatutakoa etxera eramaten ari gara".

OÑATI




GOTZONE GOENAGA
ESKOLATXO OKINDEGIA

"Elkarri animoak ematen saiatzen gara"

"Okindegira jendea banan-banan sartzen da eta guk eskularruak eta maskarak erabiltzen ari gara, beti segurtasun distantziak mantenduz. Konfinamendu egoeraren hasieran, egunkariak, Doritos, Lays eta horrelako gehiago saltzen genituen. Jendeak etxean denbora asko egon behar zuen, ordu libre gehiagorekin, eta horrelako produktuen salmentaren igoera sumatu genuen. Orain, normaltasunez ari gara lanean eta berdin saltzen dugu. Oñatin, bezeroen artean denetarik ikusten dut; batzuk lasai daude eta beste batzuk, aldiz, arduratuta. Baina, orokorrean, giro normala nabaritzen dut. Gehiengoak egoera hau luzatu egingo den arduratuta dauka eta honek izango dituen ondorioen beldur da".

ARRASATE



MIKEL BRIÑAS
BALANZATEGI KIOSKOA

"Egoera honen aurrean ordutegia aldatu dugu"

"Arrasateko negozio familiarra da gurea eta betiko hiru langileek txandaka egiten dugu lan. Gure ohiko ordutegia moldatu dugu, eta orain, goizez bakarrik daukagu kioskoa zabalik, 13:00ak arte, hain zuzen. Segurtasun neurriak dagokienez, distantzia mantentzen dugu, eta zaila ari da izaten eskularruak eta maskarak topatzea. Betiko egunkariak jasotzen ditugu ordutegi berean; horrenbestez, ez dugu aldaketarik sumatu aspektu honetan. Bezeroen artean, adineko pertsonen falta sumatu dugu. Orain, familiarrak edo etxeko laguntzaileak etortzen dira. Kala jendearen artean beldurra dagoela ikusten dut. Jende askok maskarak erabiltzen ditu, eta maskarak txarto jarrita edota paperez egindakoak ikusi izan ditut".



ZABALIK

NEREA ZUBIA BLAZQUEZ

Oximorona

Itxialdian *Zabalik* idaztea egokitu zait, inora joan barik gauden sasoi honetan. Tentsioz betetako barealdia sumatzen da egongeletan egunek aurrera egin ahala. Emozionalki geroz eta gorabeheratsuago gaudela partekatzen dugu erabiltzen ikasi orduko gure egunerokoa integratu ditugun *Zoom*, *Hangouts* edo *Meet*-eko solasaldietan. Gure lankideen sukaldetaraino sartu gara, apaleko katilurik *cool*-ena erakutsiaz, kafe-deskafainatua hartzen dugun bitartean. Eta gu geu ere deskafainatzen hasita gaude, balkoietan inprobisatutako agertokietarako kopia originalak sortu nahian.

Logeletan inoiz baino ozenago oihukatzen diren plazer intziriak entzuten dira, harpidetzak esponenzialki igo diren kanal pornoetako eszenak imitatu nahian edo. Baina badira bestelako oihiak ere, oihi isilak. Oihi isilduak. Kolpetik datozenak, minaren eroale.

EZ DEZAGUN AHAZTU: PROTAGONISTAK 'GU' GARA, ETA 'GU' HORI ZUK, NIK ETA HARK OSATZEN DUGU

Bitartean, txakur-jabeekiko diskriminazio positiboaz kexu gara, bake-armada gure kaleen zaintzaz jabetu den aldi berean.

Eta *Teleberri*-etako gonbidatu *ofizialek* errealtate faltsu bat sinestarazi nahi digute errepikaren errepikaz, Donostiako su-artifizialez ariko balira bezala. Baina hiperbentilatzen eta makillaje gabe ikusi ditugu.

Lagunok, benetan surrealista geratu zaigu udaberria, margarita-malutak ikusteraino. Ikusiko dugu hurrengo denboraldiak zer dakargun, baina ez dezagun ahaztu datorrena datorrela protagonistak *gu* garela. Eta *gu* hori zuk, nik eta hark osatzen dugula. Zaindu gaitezen.

A! Jakizu errealtatetik gertu dagoen hitz-jolas bat besterik ez dela hau: zenbat oximoron daude testuan? Pista: 10etik gora dira.

Oharra: psikologiako artikulu batean irakurri dut oximoronek burmuinaren ezkerreko alderdia aktibatzen laguntzen dutela. Jolastu, otoi.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Errefuxiatuak, guztien jostailuak

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Azkarra da Turkiako presidentea, Erdogan. Ondo daki zerk ematen dion beldurra Europari: migratzaileak eta errefuxiatuak kontrolik gabe iristea gure lurraldera..

Horrela, Errusiako hegazkinek Idliben (Siria) 33 soldadu turkiar hil zituztenean, Erdoganek argi izan zuen nola lortu Europaren babesa: mugak irekiz.

Handik aurrera, iritsi zaizkigun irudiak ikaragarriak izan dira:

Greziako polizia ke-poteak botatzen errefuxiatuei, faxistak jendez betetako ontzi bat portura iristea eragozten edo gizonak kolpatuak, biluzik, dirurik, paperik eta telefonorik gabe, Turkiara itzultzen galtzontzilo hutsetan. Hau da XXI. mendeko Europa lotsagarria.

Ez dira bakarrak izan. Gobernu kanpoko erakundeei eta kazetariei ere eraso diete, Zaporeak elkarteari bezala, eta, honen ondorioz, erakunde ugari Lesbostik joan dira, iristen direnen edo jada Lesbosen denbora daramatenen errefuxiatuen egoera larriagotuz, adibidez, Moriako eremuan bizi direnentzat.

Baina gure gizartearen zati batek erantzun irmoa eman du berriro. SOS Arrazakeriak eta Mugak Zabalduz-ek, besteak beste, herritarren mobilizazioak hasi ez ezik, bilera formalak egin dituzte jada Nafarroako hainbat alderdi politikorekin, erantzun zehatzak eskatuz.

Hitz hutsetan geratzen diren keinu politikoez nekatuta daudela esan diete, eta politika gizagabe hauek gelditu behar dituztela Nafarroatik, Madrilatik eta Europatik. Hori gertatzen ez den bitartean mobilizatzeari utziko ez diotela ziurtatu dute. Ezinbesteko borroka, eskuin muturra inoiz baino indartsuago sentitzen den garai honetan.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Salaketak asko jaitsi dira, herritarrak ondo ari dira"

ANDONI LARRAÑAGA ERTZAINA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Ertzainak eta udaltzainak lan berezietan ari dira egun hauetan. Konfinamendu egoerari aurre egiteko neurriak zorrozten. Bergarako ertzain etxeko ertzainak eman ditu datuak.

Herritarrak ondo ari dira konfinamenduan?

Orokorrean, bai. Udaltzainek zein guk geuk geroago eta salaketa gutxiago ipintzen ditugu. Jendeak badaki ze dagoen baimenduta eta ze ez. Konfinamendua ezarri zenean, batez ere zubi luze hartan, jarri ziren salaketa gehienak. Gaur arteko bi herenak. Azkeneko egunetan, salaketa bat edo bi jarri dira eguneko. **Zenbat jarri dira Debagoienan?** Larrialdi egoera ezarri zenetik gaur arte [eguztena], ertzainok 93 jarri ditugu eta eskualdeko udaltzain guztiek, beste horrenbeste. Eskualde osoan, hortaz, 200 salaketa inguru. Gehienak, Arrasate, Bergara eta Eskoriatza aldean.



Andoni Larrañaga, Bergarako ertzain etxean, egunean. GOIENA

Zelakoak eta zergatik?

Jendeak, oro har, ez du asmo txarrik erakutsi, garden jokatu du: ez zekitela bidegorrian paseatu ezin zitekeenik eta halakoak esaten zuten herritarrek.

Batik bat, helduek. Gauez, ostera, ikusi ditugu mutil gazteak, batik bat: lau lagun auto batean buelta bat ematera irteerakoak edo garagardo batzuk hartzera ateratakoak...

Liskarrik, eztabaidarik eta halakorik izan duzue herritarrekin?

Kasu bakarra, baina Debagoienetik kanpo, Soroluzen. Atxilotuta bukatu zuen herritar batek. Gauez atera zen kalera buelta bat ematera eta herritar batek etxetik ikusi eta deitu egin zigan. Kargu hartu genionean, eztabaida berotzen joan zen eta salaketa jartzeko hasi ginenean, herritarra ertzainak kolpatzen hasi zen eta atxilotuta amaitu zuen.

Hainbat herritar polizia edo salatari lanetan hasi da...

Bai, jaso ditugu hainbat herritarren deiak abisuak ematen. Telefonoa sutan izan dugu hasieratik. Jendeak deitzen zuen zalantzak argitzeko edo abisuak emateko.

Kutsatuei dagokienez, Bergarako ertzain etxean zein da egoera?

195 bat laguneko lantaldean, zazpi baja izan ditugu, berrogeialdian egon behar izan dutelako, senideak kutsatuta dituztelako; eta, bestetik, koronabirus kasu bakarra dugu.

Ikusi dugu Bilbon ertzainak herritarrei oldartzen. Komentatua izan da kasua.

Gurearekin alderatuta oso bestelakoa da egoera Bilbon. Han, 40 bat lagun daude bajaran,

batzuk birusarekin, gaixorik, ingresatuta... egoera ezberdinetan. Muturreko egoeran ari dira lanean. Aipatzen duzun kasu hori San Frantzisko auzoan gertatu da. Toki berezian. Ertzainek lehendik ezagutzen duten pertsonekin. Egoera zailak dira eta jakin egin behar dira kudeatzen. Edozelan ere, ikertu eta argitu egin behar da. Eta neurriak hartu, behar baldin bada. Ertzainok ez dugu zertan beti arrazoia izan. **Konfinamendu egoeran egotearen ondorioz, tratu txarrak areagotu daitezke. Ze datu daukazue?**

Egoera honek okertu egin dezake hainbat emakumeren egoera. Dena den, dauzkagun datuekin, esan genezake salaketa kopurua gutxitu egin dela. Kasu bakarrik daukagu, Arrasaten. Dena den, jarraitzen dugu erne. Indarkeria matxistaren kasuei jarraipen berezia egiten diegu eta ez badago urruntze agindurik eta elkarrekin bizi bada bikotea, horiei jarraipena egiten diegu eta hurbiltzen gara haien etxetara edo ohiko maiztasunarekin baino sarriago deitzen diegu etxera. Zalantzen bat sortzen bazaigu beti eroaten dugu patruila bat etxera, ziurtatzeko dena ondo dagoela.

ITURRI ONETIK

Zinegotziak eta enpresaburuak ere kutsatuta

COVID-19 gaitzak ez du berezikeriarik egiten. Herritar orori eragiten dio: izan ezagun, ezezagun, dirudun ala txiro. Badira herritar soilak eta ospetsuak, agintari ezagunak... Debagoienean ere hainbat ezagun daude kutsatuta. Badira zinegotziak birusarekin tratamendua jasotzen. Herri ezberdinetakoak eta alderdi ezberdinetakoak. Etxean, berrogeialdian... Debagoieneko enpresa-jabe ezagunak ere bai, ospitalizatuta egun batzuetan.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2007-03-31

Maltzagako Aldarriarekin bat, Maltzagan

Euskaria Fundazioak bultzatutako Maltzagako Aldarriarekin bat egin zuten hainbat debagoienarrek Maltzagan. Hala, Telesforo Monzoni omenaldia eskaini zioten. Bertara batu ziren ezker abertzale ofizialeko, Aralarko eta EAko hainbat kide; besteak beste, Jose Luis Elkorro, Juan Martin Elexpuru eta Sabin Intxaurre. Abertzaleen arteko elkarlana bultzatzea zuen helburu fundazioak. Sinadura bilketa ere egin zuten.

HAU BE BADOGU!

'#Etxeangeratu' traola, pil-pilean

Traola duela bi aste hasi zen erabiltzen, baina asteon, euskarazko traola erabiliaren artean sartu da, Europa mailan:

@GipuzkoaTurismo: "Eskerrak eman nahi genizkieke egoera honetan ere jo eta ke lanean ari diren lehen sektoreko langile guztiei. Baserritarrei, abeltzainei, arrantzaleei... #Etxeangeratu".

@Gure Esku: "Krisi globalei erantzuteko ere, burujabetza behar dugu. #EtxeanGeratu bai, baina ez geldirik egoteko".



ARITZ ARRIETA KABIKETA
ENPRESARIA

Honen guztiaren ostean, mundua zer?

Ziurtasunik ezaren aroan bizi gara. Beltxarga beltzak dira une batetik bestera dena alda dezaketena. Koronabirusa da horietako bat; gu aldatzeko iritsi zen. Eta ez bakarrik une batetik bestera etxeko atxiloaldi masibora pasatzen garen eguneroko bizitzan, baizik eta ohituretan, gizarte gisa antolaketan, ekonomian, kulturaren... Dena. Mundua ez da berdina izango. Gertatzen ari zaigunak gizakia eta bere ingurua aldatuko ditu. Eta inork ez daki hoberako edo okerrerako izango den.

Pandemiak eragina izango du lan egiten dugun eta dirua irabazten dugun moduetatik hasi eta industria eta saltokien funtzionamenduraino; aisialdiaren esanahitik hasi eta nahiago izango dugun etxebizitza motaraino; soldata unibertsal baten eztabaidatik hasi eta gobernu erakunde motaraino. Azkartu egingo da zeharkatzen ari garen iraultza zientifiko eta teknologikoa. Zehaztu beharko da gizarte mota parte-

hartzaileago batera goazen edo autoritarioago batera goazen. Eta abar.

Yuval Noah Harari historialariak, aldaketa zientifikoei buruzko *best seller* sorta baten egileak, uste du krisitik irteteko alternatibak biziki kontrajarriak direla: "Edo zaintza totalitario masiboko edo herritarrak ahalduzko gizarte baterantz goaz; isolamendu nazionalista edo elkartasun globalerantz". Hararik uste du askatasun indibidualen galera handiagoetarantz goazela, 2001eko irailaren 11ko erasoan ostean nagusitu zirenen ondoren: "Zaintza masiboa egongo da. Bidaiatu ahal izateko osasun ziurtagiriak beharko dira. [...] *Azalaren azpiko zaintza* izango dugu,

**TXINAREN PROPAGANDA
KANPAINA ERAGINKORRA
BADA, INDARTUTA IRTEN
DAITEKE BERE LURRALDEAN
HASITAKO KRISI BATETIK**

sukarra, presioa eta gure sentimenduak neurtuz". Adibide gisa jartzen ditu aireportuetan, tren geltokietan eta konkurrentzia masiboko lekuetan jarri ziren tenperatura detektagailu masiboak: "Neurgailu horiek hainbat gaitasun dituzte. Software-aldaketa sinple batekin, sukarra edo odol-presioa baino haratago doazen beste sentimendu batzuk detektatu ahal izango nituzke. Adibidez, poza edo haserrea. Imajina daiteke tresna hori Ipar Koreako diktadorearen eskuetan, nor dagoen zoriotsu eta nor izan daitekeen disidente potentziala antzemaneraz?".

Pandemiak merkataritza liskarra ere azkartuko du, AEBen eta Txinaren arteko iraultza zientifiko-teknologikoaren lidergoa dela eta. Neurtuko da birusaren borrokaldian eraginkorragoa izan ote zen Txinako autoritarismoa edo mendebaldeko demokrazia -ez hain argi Trumpen Administrazioaren garai honetan-. Xi

Jinping buruzagi txinatarra dagoeneko baliatzen ari da pandemiarekin eta heriotzekin lehenago hasi izanak eman zion *abantaila*, tragediaren *erruduntasuna* gainetik ateratzeko. Txinako hedabideak *aurpegia garbitzen* ari dira pandemia Wuhan hiriko pertsonaren batek animalia basati baten haragia kontsumitu eta gero askatu zelako gertakariari - oraingoz zientifikoki frogatu ez dena, baina behar adina ebidentzia dituena-. Eta ispilua lehertu. Washingtonen elite politikoaren "arduragabekeria eta gaitasunik eza" aipatu dituzte Txinako gobernuaren aldetik arazoa konpontzeko "ebazpen irmoaren" aurrean. Eta propagandarako ekintza eraginkorrago gisa, arnagailuak eta beste talde batzuk bidaltzen ari da, baita dagoeneko pandemian eskarmentu handia hartu zuten medikuak ere, Iranera, Italiara eta Afrikako hainbat herrialdeetara. Paradoxikoki, propaganda kanpaina hau eraginkorra bada, Txina indartuta atera daiteke bere lurralde eta sistemaren barruan hasitako krisi batetik.



ELENA HERRARTE
D2030-EKO BULEGO TEKNIKOKO ARDURADUNA

Koronabirusa, aukera bat

Duela aste pare bat arte bizi genuen errealtatean, fikziozko distopiek aurkezten zizkiguten egun bizitzen ari garen motako egoerak. Ez ziren errealak, ez ziren guk biziko genituenak. Eta begira, gaur, lehen pelikula baino ez ziren horietako baten barruan bageunde bezala sentitzen gara: beldurra, ziurgabetasuna, heriotza, kaosa, kontrol polizialak etxe azpian, komunikabideak piztu eta etengabe birusaren inguruko (des)informazioa, lantegiak gelditu, zein saltokitara goazen justifikatu beharra, baita udaltzainen autoko bozgorailuetatik Pirritx eta Porrotxen *hit* ezagunak eta animo mezu ozenak herritarroi zuzenduta...

Jakin badakigu aurrerantzean gauzak ez direla berdinak izango, horrelako esperientzia sakon eta luze batek derrigor utziko du bere oinazea: neuri, behintzat, sentipen hori sortu zait barrenean. Atzo arte arrunt zirenak bueltatuko diren zalantza

egiten dut: gure gertuko harreman sozialak, gure kale ohitura kolektiboak, pertsonen artean sentitu izan dugun konfiantza, bizitzarekiko oro har izan dugun lasaitasuna, balizko segurtasun eta kontrol sententzio kolektiboa... aurrerantzean zein forma hartuko dute sentipen horiek?

Atzera begiratzuz gero, krisi edo kaos garaiek emaitza ezberdinak eman izan dituztela ikusiko dugu: positiboak batzuk, kontrakoak ere bai. Oraingoz goiz da aurrerantzean zer aldatuko den esateko. Are eta gutxiago zer ikasiko dugun baieztatzeko. Ikastea, kontzeptu, balio eta jokabideetan aldaketa sakonak ematea, ez baita guztiz kontrolatu dezakegun zerbait. Ikasteak badu dimentsio pertsonal bat, gure egunerokotasunean hartuko ditugun erabakiak, ziur, parametro berrietan oinarrituko ditugu: non erosi, nola erlazionatu, zein neurri hartu bidaiatu edo lanean jarduteko. Baina

bizipen kolektibo baten aurrean ere bagaude, eta esperientzia honek bere eragina izango du jendarte mailan, komunitate gisa ikasi eta aldatuko dugun horretan arlo anitzetan: politika publikoetan, lanaren antolaketan, erriitual sozialetan. Eta tentuz ibiltzen ez bagara, egoera honek justizia eta askatasun pertsonal eta kolektiboan atzerapausoak ekar ditzake, beldurra bezalakorik ez baitago horrelako prozesu bat disimuluz eta zilegitasunez bultzatzeko.

Hala ere, koronabirusari esker balio positibo potenteen inguruko kontzientzia hartzen ere ari gara: zaintzaren garrantzia, jarduera erreproduktiboaren zentralitate gure ongizatean, pertsonen eta natura osatzen duten gainerako elementuen arteko interdependentsia, elkartasunaren beharrezkotasuna, lagun eta familiako kideek duten garrantzia gure egunerokotasunean, lanean maiz egin izan ditugun

alferrikako kilometroak saihestu eta konfiantzan oinarritutako eredu bat eraikitzeke aspalditik ditugun tresnen baliagarritasuna...

Hemendik aurrera, gure esku dago erabakitzea beldurra jarriko dugun erdigunean elementu positiboak ikusezin eginda, edo jendarte gisa hobetu, justizia sozialean aurrerapausoak eman, naturarekiko harreman orekatuagoa eraiki, gure ekoizteko, kontsumitzeko eta bizitzeko moduak eraldatu eta harreman positiboagoak eraikitzearen alde egingo dugun. Herri bezala hausnartu eta zein norabide hartu aukeratu dezakegu; bestela, beste norbaitek egingo du. Hau aukera bat da, gure jendartearen oinarriari begiratu eta proposamen iraunkorrago eta justuagoa elkarrekin eraikitzeke.

**HERRI BEZALA HAUSNARTU
ETA ZEIN NORABIDE HARTU
AUKERATU DEZAKEGU;
BESTELA, BESTE
NORBAITEK EGINGO DU**

**OLATZ OLASO**

EMUN-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

Enpresentzat ezer ez da berdin izango

Egun batetik bestera aldatu zaigu egunerokoa. Urtetan ezinezkotzat hartu ditugunak egun batetik bestera errealitate bihurtu dira: gure seme-alabek hiru aste daramate eskolara joan gabe eta etxetik atera gabe, hiru aste daramagu telelanaren bidez gure bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena ematen. Aste Santua gainean daukagu eta furgoneta eta autokarabana guztiak hementxe geldituko dira. Zenbat ezinezko gelditu diren bertan behera... Onerako eta txarrerako.

Eta guretzako *normalak* ziren espazioak aldatu dira, guztiz. Lantokiak, eskolak, zinemak, dendak. Denak itxita. Eta dena daukagu espazio bakarrean, etxean. Horrek hain banatuta ditugun momentuak eta rolak nahastea ekarri digu: momentu eta leku berean gara zaintzaile, komertzial, sukaldari, irakasle... Eguneroko errutina ia guztiak bertan behera gelditu dira eta berriak sortzen ari gara. Noski, horrek lanerako gure *aukerak* ere aldatu egin ditu. Eta

luzaroan egoera ez dela urtarrilekoa izango badakigu.

Egoera zail, kritiko eta luze honetan ardurak eta erantzukizunak banatzeko ordua da. Hau da, pandemia honek ekarri dituen krisi ezberdinak –osasuna, zaintza, ekonomia...– denok hartu behar ditugu gure erantzukizunen artean. Eta noski, denok daukagu ardura ekonomiarik eusteko eta triskantza handirik ez izateko.

Aste hauetan enpresak ere egoera berrira egokitzeke lanean gaude, buru-belarri. Enpresetan ere itxialdi honen ostean ezer ez da berdin izango. Egokitu beharko da lan egiteko modua, prebentzioa, nazioarteko

IKASI DUGU BEZEROAK ZAINDU BEHAR DITUGULA, ETA BAITA LANGILE, HORNITZAILE ETA HERRITAR GUZTIEN OSASUNA

garraioa... Inguru hurbilean egokitze hori nola egiten den ikusten ari gara. Batzuek hobeto dihardute, eta horretarako bi arrazoi ikusi ditut.

Enpresa batzuk, hasieratik, ekonomian daukaten erantzukizunaz kontziente izan dira eta, era berean, osasun eta zaintzaren erantzukizuna ez dute alde batera utzi. Errotuta dauden enpresak dira, inguru hurbilean ekarpen positibo bat eragin nahi dutenak. Bezeroei ahalik eta erantzun egokiena emateko bideak jartzen dituzte, baina interes talde guztiak kontuan hartuta: langileak, hornitzaileak, aliatuak, gertuko eragileak... Argi dago, bezero gabe ez dago enpresarik, eta zaindu beharreko oinarritzko taldea da. Baina langile, hornitzaile eta aliatu osasuntsu eta indartsu gabe ez dago bezeroei erantzuterik.

Bestalde, malgutasuna izan da beste aldagai garrantzitsua. Enpresa batzuek azken urteetan malguak izateko, azkar aldatzeko gaitasuna garatzeko

ahalegin handiak egin dituzte. Eta egoera honetan oso nabaria izan da. Gai izan dira erabakiak azkar hartu, adostu, komunikatu eta martxan jartzeko. Baita egunetik egunera erabaki horietan aldaketak egiteko ere. Izan ere, pandemia honek enpresei ere egunero ezinezkoen kudeaketa egitea eskatu die. Eta horretarako, gerria aurrez olioztatuta izatea beharrezkoa da.

Egoera zail honetatik Debagoieneko sektore ekonomiko osoa indartsuago ateratzea nahi badugu, ikasi dugu bezeroak zaindu behar ditugula eta horiekin batera baita langile, hornitzaile eta, azken batean, herritar guztien osasuna. Ezinezkoa da lehenengoa ongi egitea, bigarrena egin gabe. Eta ikasi dugu hori egiteko industria ez dela ekonomia mugitzen duen sektore bakarra. Besarkada handi bat beraien lanlekua aspaldi itxi duten dendari, hortz klinika eta bestelako negozio guztietako langileei! Eta hau guztia lortzeko begirada irekia eta malguak izatea behar-beharrezkoa dugula ere ikasi dugu. Zaindu!

**IÑAKI CASAS**

KOMO KOMUNIKAZIO KORPORATIBOKO KOMUNIKAZIO ETA PROTOKOLOKO AHOLKULARIA

Aldatu? Dagoeneko aldatu da

Zer gertatuko da bihar? Gero eta gehiago dira Nostradamusen jarraitzaileak. Gogaituta nago behin eta berriro gauza bera entzuteaz: zein txarto pasatuko dugun bizitza aldatu digun COVID-19aren, koronabirusaren edo dena delakoaren olatua gainditu ostean.

Aiba! Bizitza aldatu digula esan dut? Bada, barkatu, baina errepikatu eta errepikatu ari diren kontu batera bueltatu naiz. Eta, benetan, zalantza daukat: gauzak aldatuko dira benetan merezi duten kontuetan, merezi duen horretan, lehena eta geroa markatzen duen horretan?

"Zelan ez dut, bada, txakurra izango, gero eta hobeto ari naiz-eta jendea ezagutzen!". Horrela erantzun zien Jordi Evole kazetariaren galderei Uruguaiako presidente ohi Pepe Mugicak; beti zentzudun. "Sekula baino baliabide, ezagutza eta diru gehiago daukagu. Badakigu zer egin behar den, baina ez dugu egiten", kexu zen. Haren isilune bereziek agerian

uzten zuten zein den erruduna: gure zilbor globalizatua.

Izan ere, zilborrean amaitzen dira gizartearen zati baten balioak. Aspergarria da taberna-zuloko aldarrikapenak entzutea: politikari guztiak berdinak dira, egin diezaietela ERTE bat haiei; oraintxe bertan jar dezatela bankuak erreskatatzeko jarri zuten dirua... Haiek egin dezatela, noski... Eta zuk? Zu zeu ez zara gertatzen ari den eta hartzen ari diren erabakien erantzule? Gure eginbeharretan pentsa dezagun, horietatik irtetzen baitira, demokrazian, gero aplikatzen diren politikak.

Gure ingurunean gertatzen denak eragina du; bai, horixe. Guztiongan. Baina zuk zeuk zer egin dezakezu zuegatik, zure familia eta lagunengatik, zure atartearengatik, zure enpresarengatik, zure gizartearengatik? Ez dezagun pentsatu orain arte eman dugula jaso duguna baino askoz gehiago eta gure enpresa,

gure administrazioa, etengabe zorretan dagoela gurekin.

Egin galdera hau zeure buruari: noiz egin diogu aurre mota honetako krisi bati? Inor bazegoen prestatuta honetarako? Nik neuk zer egin dezaket ondasun komunaren alde egiteko eta solidario izateko? Debagoienak bere erara erantzun zizkion galdera horiei orain dela hamarkada batzuk. A ze aukera daukan euskal kooperatibismoak indarra erakusteko eta bere esentzia berreskuratzeke.

MIT Technology Review-ko editore Gideon Lichfield-ek esan zuen mundua hainbat aldiz aldatu dela, eta berriro ari dela aldatzen. Denok egokitu beharko dugu bizi izateko, lan egiteko eta hartu-emanak izateko modu berri batera...

Gizateriaren historiako une disruptibo baten atarian gaude. Aurrerantzean, munduko ordena eta gobernua ezin da berdina izan. Gizarte orekatuagoa eta iraunkorragoa sorraraziko dute euren politiketan

entzute aktiboa ezartzen duten administrazioek –zerbitzu publikoak garantizatzeko eta dotatzeko beharrezkoak direnak eta izango direnak–.

Berrikuntza sozialak pertsonen beharrei erantzutea ahalbidetzen du: etengabeko entzutearekin eta ekimena kolektiboaren barruan sustatuta, soluzioa bertatik irten dadin. Hori horrela izanda, bere legitimotasuna eta eraginkortasuna bermatuta egongo dira.

Ez egin berba etorriko diren aldaketez; dagoeneko hemen daude. Agertoki berri baten aurrean gaude. Bizitzaren aktoreok, pertsonok, onartu behar ditugu aldaketa horiek, eta guk geuk gidatu behar dugu gure oraina eta etorkizuna. Giza Garapen Jasangarria dago jokoan.

PERTSONOK ONARTU BEHAR DITUGU ALDAKETAK, ETA GUK GEUK GIDATU BEHAR DUGU GURE ORAINA ETA ETORKIZUNA

30 urte espainiar koronabirusak preso

PREMIN SAMPEDRO LARRAÑAGA

ARRASATEKO SARE

ARRASATE

20 urtetik gora dira Unai ezagutu nuela espetxean. Valdemoron edo Kordoban izango zen. Euskara ikasten ari zen eta bisitaren erdia egin genuen euskaraz, kosta egiten zitzaiolako euskaraz osorik egitea. Bakarturik eta gainontzeko euskal preso politikoekin harremanak urriak izanda ere, temati ikasi zuen geure hizkuntza.

Gerora, neuk egin ditut kasik 17 urte preso eta Unaik han jarraitzen du, giltzapean, Puerto III

espetxean. 30 urte bete berri ditu, apirilaren 2an.

Nelson Mandela aske utzi zuten urte berean atxilotu eta basatiki torturatu zuten, baina nahikoa ez eta muturreko egoeran egin ditu azken hiru hamarkadak preso, eta, oraindik ere, gradurik zorrotzenez daukate zigortuta.

Salbuespena arau bihurturik.

Bai, badakite lege arrunta erabili izan balute kalean aspaldi beharko lukeela, baina une oro "justizia" ahotan darabiltenek ezin gorroto eta mendeku gosea ase. Ezin Unai, Jon, Txistor eta Jakes aske ikusi.

30 urteotan askatasun goseari etsi gabe eutsi diozu,

Unai, hiru alaba -ume motxiladun- izan dituzue baldintza gogorrenetan, luzaroan ikusi gabeko ama joan zitzaizuen, aitona ere egin zaituzte eta ez diozu aske izan eta amets egiteari uko egin.

Geuk ere ez dugu sekula etsiko zuek gurera ekarri arte. Koronabirusak konfinamendu egoeran jarri gaituen honetan, espetxeak are gehiago inkomunikatu dituzten garaian, egun gutxitan psikologoak elkarrizketatu dituzte itxialdi egoerak zein ondorio dituen ezagutu nahian. Psikologo taldeak osatu dituzte beharra duen jendea artatzeko. Eta, orduan, zuen

30 urteko muturreko bakartzea, bortxazko konfinamendua datorkit burura.

Birus mozorroa duen etorkizun distopikoa marratzen diguten honetan, bizitzea merezi duten bizitzak amestu eta eraiki gura ditugu. Kolektiboki pentsatuak. Non eskubide guztiak guztiontzat izango diren.

Eta, Euskal Herrian, zuen kaleratzea ezinbestekoa zaigu elkarrekin askatasuna, konponbidea eta bakea eraikitzeko.

Aurki Euskal Herrian eta aske izango zaitugulakoan.

Besarkada estu-estua, Unai.

Arrasateko ospitaleari

IDURRE LOPEZ

BERGARAKO FAMILIA BATEN IZENEAN BERGARA

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, une zail hauetan lagundu eta gure ondoan egon zareten guztioi eta, bereziki, Arrasateko ospitaleko hirugarren solairuko mediku, erizain eta langile guztiei, orokorrean. Familiaren partetik gure esker ona adierazi nahi dizuegu, zuen laguntza profesional zein pertsonala oinarritzkoa izan baita gure senar, aita eta aitaitari behar bezalako agurrak eman ahal izateko. Eskerrik asko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





'GOIENA' ETA 'PUNTUA' ALDIZKARIAK, BAITA KORONABIRUS GARAIAN ERE

Goiena Klubeko bazkideok jasoko dituzue bi aldizkariak etxean.



Goiena Klubeko bazkide ez zaretenok, honako leku hauetan izango duzue Goiena aldizkaria eskuratzeko aukera:

ANTZUOLA

AIXA FRUTA DENDA (Buztinzuri kalea)
AMAIA JANARI DENDA (Aiherra kalea)
EROSKI (Ondarra plaza)
FARMAZIA (Kalebarren kalea)
ITZAR ESTANKOA (Kalebarren kalea)
IZARRA ARRAINDEGIA (Kalebarren kalea)
KLIKATU INFORMATIKA DENDA (Kalebarren kalea)
KOKKOR (Buztinzuri kalea)
M. KRUZ IPARRAGIRRE (Kalebarren kalea)
MARTIN OKINDEGIA (Kalebarren kalea)
MUJIKA HARATEGIA (Kalebarren kalea)

ARAMAIO

BIXENTE LOPEZ HARATEGIA (Bicente Goikoetxea plaza)
KINTELENA (Nardeaga kalea)
IBARRA OKINDEGIA (Nardeaga kalea)
FARMAZIA (Nardeaga kalea)

ARETXABAETA

ALIPROX (Aralar)
BOLINTXO (Durana kalea)
DANONA OKINDEGIA (Durana kalea)
EROSKI (Basabe industrialdea)
IBARRA ESTANKOA (Bizkalo kalea)
IOSU HARATEGIA (Mitarte kalea)
JON HARATEGIA (Durana kalea)
KIOSKOA (Durana kalea)
LORAMENDI OKINDEGIA (Loramendi kalea)
BERDA OKINDEGIA (Basabe industrialdea)
OBEKI (Errekaarren kalea)
OGIBERRI (Mitarte kalea)

ARRASATE

AGIRRE-ETXE (Zarugalde kalea)
ALEGRIA ESTANKOA (Zerkaosteta kalea)
ARANA EZKURRA ESTANKOA (Kontzezino kalea)
AZPILIKUETA (Doctor Bañez kalea)
AZPILIKUETA M. (Erguin kalea)
BALANZATEGI KIOSKOA 'TIBURON'(Biteri plaza)
BEROGI (Maisu Aronbarri)
BERTIZ (Kontzezino kalea)
BIRIBIL (Zarugalde kalea)
BOLINTXO (Arrasate pasealekua)
BOLINTXO (Otalora kalea)
CENTRO MEDICO UDALAITZ (Euskal Herria plaza)
DIA (Olarte kalea)
DONDEJON KIOSKOA (Erdiko kalea)
EREIN DA JAN (Araba etorbidea)
EROSKI CENTER (Zerrajera kalea)
EROSKIKO PRENTSA KIOSKOA (Eroski Merkatal Gunea)
FELI JANARI DENDA (Oikendo kalea)
FRUTAS PEREZ (Maisu Guridi kalea)
FRUTAS PILAR E HIJOS (Seber altube plaza)
GARAI GARAI ESTANKOA (Araba etorbidea)
IRATZEDER OKINDEGIA (Nafarroa etorbidea)
IZAGIRRE HARATEGIA (Kurtzetxiki plaza)
J. RAMON OTAMENDI (Olarte kalea)
JOSE MARI SALEGI (Olarte kalea)
KORTABERRI (Antso Abarika kalea)
KUXKUR (Lapurdi kalea)
LANDALUZE HARATEGIA (Iturriotz kalea)
LIDL (Gipuzkoa etorbidea)
MALLALDE (Zarugalde kalea)
MENDIZABAL OKINDEGIA (Seber altube plaza)
MUSAKOLA ESTANKOA (Antso Abarika kalea)
OGI BERRI (Deba etorbidea kalea)
OGI BERRI (Erdiko kalea)
OGI BERRI (Leintzibar kalea)
OSPITALA (Nafarroa etorbidea)
RITA (Errebuelta kalea)
SABURDI HARATEGIA (Otalora kalea)
SAGASTA JULDAIN ESTANKOA (Olarte kalea)
SUPER BM (Araba etorbidea)
SUPER BM (Gipuzkoa etorbidea)
SUSTRAI (Olarte kalea)
USUE KIOSKOA (Uribe auzoa)

BERGARA

ANTIA HARATEGIA (Matxiategi kalea)
ARTESAN OKINDEGIA (Barrenkalea)
BIXAIN (Oxirondo azoka)
CRISTINA ESTANKOA (San Antonio kalea)
CRUZ HERMANOS (Ibargarai hiribidea)
EROSKI CENTER (Kruz Gallestegi kalea)
EROSKI CENTER (Leizeaga kalea)
ESPOLDIA (Espolzia)
ETXEBERRIA ESTANKOA (A. Fleming kalea)
GISELA AUTOZERBITZUA (Aranerrika kalea)
GOXO-TOKI (Matxiategi kalea)
IGARZA MERTZERIA (Irizar pasealekua)
SEBASTIAN IMAZ HARATEGIA (Aranerrika kalea)
JOSEFINA ESTANKOA (Barrenkalea)
PANADEROKUA OKINDEGIA (Tokieder plaza eta Burdinate)
LARRAÑAGA GOZOTEGIA (San Pedro kalea)
LETURIA HARATEGIA (San Pedro kalea)
MIZPILDI OKINDEGIA (Mizpildi kalea)
MUJIKA GOZOTEGIA (Artekalea)
OGI BERRI ELKOARTI OKINDEGIA (Ibargarai hiribidea)
OGIZUN OKINDEGIA (Ibargarai hiribidea)
BIDEKURUTZETAKO FRUTA DENDA (Bidekurutzeta kalea)
MATXATEGI KO FRUTA DENDA (Matxiategi kalea)
RAIZABAL GOZOTEGIA (Artekalea)
SAN PEDROKO ESTANKOA (San Pedro kalea)
SUPER AMARA (Amillaga kalea)
TRIFONTZI-OGIBERRI OKINDEGIA (Matxiategi kalea)
UDAREA FRUTA DENDA (Oxirondo plaza)
URCELAY HARATEGIA (Ibargarai hiribidea)
URRIATEGI ESTANKOA (Lizario kalea)
FRAISKOZURIKO KIOSKOA (Fraiskozuri kalea)
ZANGITU PINTURAK (Irizar pasealekua)
ZARE FRUTA DENDA (Irizar pasealekua eta Matxiategi)

ELGETA

ELKORO BOTIKA (Salbador kalea)
GOIKOETXE HARATEGIA (Salbador kalea)
JULIAN KIOSKOA (11:30ak arte plazan; ostean San Roken)
UGARI DENDA (Andra Mari plaza)

ESKORITZA

ALOÑA FRUTA DENDA (Gaztanadui kalea)
ALTUNA ANAJAK HARATEGIA (Arama kalea)
AZKAGA ESTANKOA (Gaztanadui kalea)
BOLINTXO (Jose Arana kalea)
COVIRAN (Aranburuzabala kalea)
IRAZABAL JANARI DENDA (Aranburuzabala kalea)
MARTIN FRUTA DENDA (San Juan kalea)
OGIBERRI (Gaztanadui kalea)
PAGALDAI (Gaztanadui kalea)
SANTA ANA (Santa Ana auzoa)

LEINTZ GATZAGA

LABIDEA (San Miguel plaza)

OÑATI

AIASTUI OKINDEGIA (Olebarrieta auzoa)
ALTUNA ESTANKOA (Kale barria kalea)
ANTXON HARATEGIA (San Lorentzo auzoa)
BIZIFÓZ (Portu kalea)
BM SUPERMERTKATUA (Olekua auzoa)
DIA (Bidebarrieta kalea)
EROSKI (Aranzazuko ama kalea)
EROSKI (Errekalde auzoa)
ERREKALDE AUTOZERBITZUA (Errekalde auzoa)
ESKOLATXO OKINDEGIA (Atzeka kalea)
GARAI HARATEGIA (Mendiko kalea)
HARITZA LIBURU DENDA (Kale Zaharra)
IBARRONDO LIBURU DENDA (Foruen Enperantza)
IRAZOLA (Larreña auzoa)
IRIZAR ESTANKOA (Foruen enperantza)
IRIZAR OKINDEGIA (Atzeka kalea)
SAN LORENTZO FRUTA DENDA (San Lorentzo auzoa)
SAN MIGUEL KOOPERATIBA (Kale barria)
SUSTRAI (Kale barria)
URZELAI ESTANKOA (Lazorraga auzoa)

Informazio gehiago:

☎ 943 25 05 05

☎ 688 60 00 07

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



ALKATEAREN PARTEA

MARIA UBARRETXENA

930.000 euro, kalteak arintzeko

Arrasateko Udalak 930.000 euro inguru bideratuko ditu koronabirusak eragindako kalteak arindu eta, behin pandemiaren une gorena igaro ostean, ekonomia berraktibatzen. Neurriok Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako diru-laguntza lerroak aztertu ondoren proposatu dira, hauen osagarri izatea baita helburua.

Egoera hau mundu mailako ekonomiaren geldialdia da, eta Udaletik herritarren eta enpresa-ehunaren ondoan jarri behar dugu, ahal den guztian lagunduz. Enpresek itxi egin behar izan dute edo fakturazioa jaitsi egin da, eta Udaletik lagundu egingo diegu. Berraktibazio eszenarioa prest izan nahi dugu, guztiontzako salbuespenezko egoera hau amaitzen denerako. Aukera ezberdinak aztertzen ari gara, gure herriko ehun ekonomikoa suspertzen aktiboki laguntzeko. Asmoa da beste administrazioen laguntza-lerro osagarria izatea Udalarrena,

komertzioari, ostalaritzari, autonomoei eta enpresa txikiei eragindako kalte larriak arintzeko; izan ere, langile, hornitzaile eta alokairuko gastuekin jarraritu behar izan dute, diru-sarrerarik lortu gabe.

Zehazki, lau laguntza ekonomiko bideratuko ditugu. Horietan lehena zerga eta tasekin lotuta dago. 2020ko lehen sei hilabeteko zabor tasa, ur tasa eta bide publikoaren okupazio tasa hobarian emango da. Hamabost lagun baino gutxiago dituzten negozioei eragingo die, eta 656 negozio lagunduko ditugu; neurri honek 330.000 euroko balioa izango du.

Bigarren neurriak herriko komertzioa berraktibatzea du helburu, eta hiru akzio ditu barne. Lehena erosketa bonuak dira. 30 euroko 15.000 bonu aterako ditugu: hamar erosleak jarriko ditu eta Udalak gainontzeko 20 euroak. Bonuak Arrasateko edozein negoziotan erosteko balioko du – denda, autonomoak...–; ez, ordea, saltoki handietan. Bonuaren bitartez

negozioei zein familia unitateari lagundu nahi diegu. Herriko komertzioa eta aktibitate ekonomiko ezberdinak sustatzeaz gain, arrasatearrek beraien erosketa hautua egiteko orduan hobaria jasoko dute. 300.000 euro bideratuko ditugu neurri honetara. Horrez gain, 25.000 euro jarriko ditugu herrian erostearen beharrez kontzientziatzeko sentsibilizazio kanpaina batera. Azkenik, kaleak girotzeko eta bizitzaz betetzeko ekintzen antolakuntza eta sustapena indartuko ditugu. Lan ildo honek 25.000 euro jasoko ditu.

Hirugarren neurriak kiroldegiko abonatuarekin du zerikusia. Kirol instalazioak itxita dauden denbora

30 EUROKO 15.000 BONU ATERAKO DITUGU HERRIAN KONTSUMITZEKO; 10 EURO EROSLEAK JARRIKO DITU ETA 20, ALDIZ, UDALAK

kontuan izanik, erabiltzaileei ordainduta daukaten kostuaren zati proportzionala itzuliko zaie. Era berean, egin ez diren ikastaroen kostua ere itzuliko diogu ordainketa eginda duen pertsona orori. Neurri honek 2.673 bazkideri eragingo die, baita kurtsoak hartzen dituzten 1.045 pertsoneri ere. 80.000 euro erabiliko ditugu abonatu eta ikastaroak bueltatzeko.

Laugarren neurria Gizarte Larrialdietarako Laguntzekin dago lotuta. Laguntza neurri berri hau espezialean gauzatzen da eta horien banaketa Debagoieneko Gurutze Gorria erakundearen lankidetzaz egiten ari da Udala. Laguntzaren helburua da janaria bezalako oinarriko behar urgentek bermatzea alarma egoerak irauten duen bitartean. Aldez aurretik 300.000 euro genituen laguntza hauetarako, baina 129.000 euro handituko dugu. Neurrien berri emango diegu autonomoei, enpresei, langile eta herritarrei, eta laguntza lerroen epe mugak denbora laburrean emango ditugu aditzera.

Komertzioei keinu eginez, argazki lehiaketa berezia

Artgazki elkarteak 'Etxean geratu' izeneko argazki lehiaketa antolatu du Ibai-arterekin batera. Bi helburu ditu ekimenak: entretenitzea eta komertzioak hor daudela gogoratzea. Apirilaren 12ra arte bidali daitezke etxean edo etxetik ateratako argazkia

X.G. ARRASATE

Etxe barruan egindako edo etxe barrutik kalerantz ateratako argazkiak izan behar dute, eta apirilaren 12ra arte egongo da irekita. Argazki onenen eta parte hartzaileen artean Ibai-artereko komertzioetan erosteko bonuak banatuko dituzte. "Etxean ere argazki ederrak atera daitezke. Horrez gain, herriko komertzioak lagundu nahi ditugu, konfinamendua amaitzen biziberrituta egon daitezke".

Sariak, Ibai-arteren eskutik

Zazpi sari banatuko dituzte argazki lehiaketa berezi honetan, guzti-guztiak Ibai-artereko komer-



Katua, konfinatuta. ANIBAL CARMONA

tzioen ahaleginari esker. Lehen sarituak 150 euroko bonu bat jasoko du, Ibai-artereko edozein komertzioetan erabili ahal izateko; bigarren sarituak, 100 euroko bonua; eta hirugarrenak, 50 eurokoa. Horrez gain, parte hartzen duten guztien artean 50 euroko lau bonu banatuko dituzte, zozketa bidez. Epaimahaia Artgazki elkarteak eta Ibai-artereko kideek osatuko dute eta ezin izango dituzte euren argazkiak inolaz ere botatu.

Irabazleen eta sarituen izenak lehiaketa amaitu osteko egunetan jakinaraziko dituzte, Artgazki elkartearen Facebook orrian.

'Etxean geratu' lehiaketako oinarriak

- Gehienez, hiru argazki parte hartzaileko.
- Kolorean edo zuri-beltzean.
- Kamerarekin edo mugikorarekin ateratakoak.
- Etxe barruan ateratakoak edo etxe barrutik kanporantz ateratakoak izan behar dute argazkiek.
- Aldez aurretik argitaratu gabeko argazkiak soilik.
- Gaia: librea.
- Parte hartzeko, Artgazki taldearen Facebook orrira bidali behar dira, eta ostean *Etxean geratu* albumera igoko dira.
- Argazkiak bidaltzeko azken eguna: apirilak 12, 22:00ak arte.
- Informazio gehiagorako: arrasateartgazki@gmail.com helbidera idatzi.



Herriko harategi bat, zabalik. GOIENA

Zabalik dauden komertzioak gida baten batu dituzte

Zaintza sare herritarreko kideek zabalik dauden herriko komertzioen zerrenda bat zabaldu dute. Hauen telefono eta ordutegiak jakinarazten dituzte, baina gutxi batzuenak ez dituzte lortu: "Denon laguntzarekin errazagoa izango da herriko komertzio txikiei bultzada ematea". Zerrenda osatzeko informazioa izanez gero, deitu edo idatzi erosketa-karrasate@gmail.com helbidera.

Distantziara irakasteak baditu alde positiboak

Bide telematikoak erabiliz lanean jarraitzen dute herriko hainbat hezkuntza eragilek. Arrasate Musikalen, Trikiti Eskolan eta Udal Euskaltegian halaxe dabilta egun hauetan; zailtasun asko dituzte, baina baita ikasleengan alde positiboak ere

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kolpean eta aurreikusteko ia denborarik gabe hasi dira distantziara lanean aipatutako erakundeak. Arrasateko Trikiti Eskolan, adibidez, 150 ikasle inguru dira, eta bi irakasleren eta hiru laguntzailearen agindutara ikasten dute. "Gure kasuan, klaseetako asko taldean egiten ditugu, baina telematikoki ia ezinezkoa da hala jardutea. Ahalguztatu gara, baina irudia eta soinua ez doaz aldi berean, zapaldu egiten dira elkarren artean... ez da eraginkorra", azaldu du Maixa Lizarribar irakasleak.

Distantziara lan egiteko baliabide teknikoak behar dira, eta dio ikasle guztiek ez dituztela baliabide berak. "Denek ez dute Internet konexioa, 10 urtetik beherako ikasle gazteek ez dute mugikorrik, orokorrean... Ahal dugun moduan konpontzen ari gara, bideoak eta audioak elkarri bidaliz eta ariketa indibidualak jarritz". Udal Euskal-

tegian ere ari dira bide telematikoekin. "Etxetik laneko ordenagailura konektatzeko bideak jarri dizkigu Udalak, eta eskertzen da. Ikas material asko modu fisikoan dugu, eta hori digitalizatzen ari gara", azaldu du Aritz Erdaide irakasleak. Arrasate Musikaleko irakasle eta ikasleak distantziara ari dira lanean. "Grabazioak bidaliz eta zuzeneko konexioak egiten gabiltza", azaldu du Edorta Aiaastui tronpeta irakasleak.

Distantziaren alde ona

Hala ere, horrela lan egiteak badu alde positiboa. "Ikasle asko kontzentratuago ari dira klase telematikoetan. Denbora libre gehiago dutenez, ikasle batzuen motibazioa eta hobetzeko gogo handitu egin dira, eta batzuek balkoietara ateratzen ari direla ere esan didate", azaldu du Aiaastuik. "Lehen motibatuta zegoen ikaslea orain are motibatutago dago", dio Lizarribarrek.



Tronpeta ikasle bat, etxean, irakaslearekin ordenagailu bidez komunikatzen. E. AIASTUI

Orain inoiz baino gehiago EROSKI zurekin



Prebentzio-neurrien berri ematen dizugu, erosketa modu seguruagoan egin dezazun

Saiatu erosketa egitera astean behin ateratzen. Ez da beharrezkoa supermerkatu egunero joatea



Egin beti erosketa zerrenda batekin. Denbora aurreztuko duzu.

Familia bakoitzeko, lagun bakarra etorri



Arrisku-taldekoa bazara, ez etorri

Eskularruak erabili eta saltokiko zakarrontzira bota



Eztul egitean, ukondoarekin estali

Hobe txartelarekin edo mugikorrarekin ordaintzea




Mila esker zure lankidetzagatik eta ulerkorra izateagatik



EROSKI

zurekin



Sagardotegia ere, distantziara

Umore onaren erreinua den Musakola auzokoek urtero egiten dute sagardotegira irteera arrakastatsua. Aurtengoa bertan behera utzi zuten, baina eman diote buelta. Zapatuan leiho eta balkoietara irten, eta ez ziren sagardoari tragotxoa eman barik geratu.

"Larrialdi sozialerako udal plana" eskatu dute

Sei puntu ditu; besteak beste, zergak eta tasak etetea –atzeratu beharrean–, laguntza lerro mailakatua oinarritzko beharrak asetzeko –argindarra, alokairua eta janaria– eta herriko merkatarietzako eta ostalarientzako dirulaguntza lerroak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Prensa oharra igorri dute EH Bilduk eta Arrasateko Ahal Duguk, alkateak prentsan egindako adierazpenen harira. Bertako lehen hitzak herritarrei animoak eta esker ona emateko erabili dituzte: "Oro har, ondo ari gaitzaizkio erantzuten konfinamendu egoerari –milaka pertsonaren artean hobetu beharreko portae- rak ere ikustea saihestezina den arren– eta horregatik ere jaso ezazue gure esker ona. Badakigu egoera ez dela erraza eramaten eta utziko dizkigun ondorioak ez dira samurragoak izango. Orain, osasuna da garrantzitsue- na, eta gero, pertsonak erdigunean jarrita, denontzako bizimodu duina bermatzea". Ostean, Go- bernuak ez duela egoerak eskatzen duen mailako lidergo aktiborik adierazten dute. "Larrialdi-egoe- rak legez ezarritako neurriez harago, hutsaren hurrena izan dira Udal Gobernuak bere kabuz hartutakoak, bai osasun-preben- tzio mailan, bai konfinamenduak eragindako ondorio sozio-ekono- mikoak arintzeko asmotan".

Krisi egoera honi aurre egite- ko larrialdi mahaia osatzeko eskatu zioten Gobernuari, Udalean ordezkaturako alderdiekin, udal teknikariek, sindikatuekin eta boluntario sare herritarreko ordezkari-ekin. Horrez orde- z, boze- ramailen batzorde berezia egitea adostu zuten Gobernuarekin, eta Skype bidezko bilera telematikoak egiten hasi ziren. Baina zera diote bilera horiei buruz: "Orduz geroztik, bozeramaile batzorde bereziak egiten ari gara, idazka- ri gabe, jarraikortasunik gabe eta herriko agente sozioekono- miko zein boluntarioen parte hartzerik gabe. Ezin esan, beraz, udal gisa egoeraren jarraipen eta kudeaketa zorrotza egiten ari garenik. Honenbestez, krisia lu- zatzen eta larritzen doala ikusi- rik, Udal Gobernuari, eta, kon- kretuki, Ubarretxena alkate



Igor Urizar, Aitor Zubiaga eta Maider Morras, azaroko osoko bilkuran. XABI GOROSTIDI

HIRIGINTZA ARLOKO INBERTSIOAK GELDI UZTEA NAHI DUTE, "BALIABIDEAK OPTIMIZATZEKO"

andreaki, larrialdi mahaia era- tzeko eskaera berresten diogu, eragile sindikal, sozial eta poli- tikoak bateratuko dituen, guztion artean egoera aztertu eta neurriak pentsatu eta martxan jartzeko".

Sei neurriko plana

Krisia gainditzeko, sei puntuko larrialdi sozialerako plana pro- posatzen dute. Hauek dira neu- rriak: familia langile, merkatari txiki eta etekin gabeko eta fakturazio gutxiko enpresa txikiei tasa eta zergen etetea –ez atze- rapena–; errenta eta ardurapean dauden pertsonen araberako laguntza lerro mailakatua oina- rritzko hornikuntzarako gutxie- neko errenta bermatzeko –argin- darra, alokairua, janaria, hipote- ka, etxerako lehengaiak, edo ikasketa telematikoak egiteko Internet konexioa–; jarduera eten izan behar duten merkatari txi-

ki, ostalari eta etekin gabeko eta fakturazio txikiko enpresei dirulaguntzak ematea; urteko ki- roldegi abonua dutenei geldirik egon den epea proportzionalki deskontatzea; hirigintza eta obra arloan martxan edo aurreikusita dauden inbertsio guztiak ger- ratzea, krisiari aurre egiteko baliabideak optimizatzeke; eta Iturbide Egoitzan COVID-19aa- gatik gaitxotutako isolatzeko espa- zioa irabazteko, egoiliar batzuk Hotel Mondragonen kokatzea.

Udal langile batzuek eta azpi- kontratatutako enpresek lanean jarraitu dutela ere salatu dute –udaletxea margotzen, lorategiak txukuntzen edo adierazpen libre- ko panelak berritzen– eta gehitu dute udal eraikin guztiak ez di- rela desinfektatu. "Egoeraren larriak kudeaketa maximoa es- katzen du, astean zazpi egun eta egunean 24 ordukoa, koronabi- rusak ez baitu jai hartzen aste- buruetan eta zubi egunetan".

Gobernuaren erantzuna

"Lehen momentutik Udalaren lehentasuna pandemiari aurre egitea izan da denok elkarrekin. Horrela ekin diogu lanari eta horrela ekiten jarraituko dugu".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Irten etxetik!

Ez, ez naiz zoratu. Azken asteotan etxean geratu gara gatibu, bideo barregerri, memeei, pelikula batzuei edo laneko nahiz ikasketetako zereginei begira, pantaila muturrean itsatsita. Eta milaka bider errepikatzen digute: etxean geratu!

Eta etxean geratu gara, eta guztia geldi dagoela dirudi, kale hutsetan. Geldiune bat egin eta gure pentsamendua ordenatzeko garaia izan liteke hau... baina gelditu ez dena da ohiko sasi- informazio saturazioa, zeharo alferrikakoa, egoera historiko honetako inplikazio eta ondorioen irakurketa sakonak egiteko.

Gure pentsamendua ere gatibu baitago gurekin, mezu hegemonikoek gure adimenerako prestatu duten etxetxo itogarrian. Aprobetxa dezagun, bada, etxetxetik irteteko; mezu hegemonikoetatik kanpo dauden analisiak irakurtzeko, entzuteko, ikusteko. Kapitalismo honen gainbehera garaian pentsamendua askatu eta formatu behar dugu eta, norantz joan jakiteko: politikan formatu, ekonomian formatu, herrigintzan formatu, borrokan formatu. Formazio guztiak beharko ditugu eta, datorrenaren aurrean.

Eskerrik asko herriko 'Egunean behin' taldeko partaideei!

Goiena komunitatea

Ttak! / ARRASATE

Guretzako jolas eta proiektu izan den honetan parte hartu duzuen denoi eskertzeko, aste honetako saria Ttakeko jertsea izango da. Aurten 10. urteurre- na ospatzen ari gara eta, Joana Mantzisorrek egindako ilus- trazioarekin, Ttakek izan duen ibilbidea gogoan izateko jertseak

egin ditugu. Bestalde, zozketa- ko irabazlea *LiiLii* izan da zo- rionak zuri ere! Aurreko aste- tan bezala, saria Ttak!-eko poltsa eta Arrasate-Oñati-Arrasate lasterketako kamiseta izango dira. COVID-19 birusa dela eta, AEDren bulegoa itxita dago. Ondorioz, irabazleek 695 78 68 52 mugikor zenbakira, Facebo- kera (*Ttak AED*) edo Insta- gramera (*@ttak.aed*) edo bat bi- dali beharko dute, posible denean beraien saria eskuratzeko hi- tzordua egiteko.

Bihar, zapatua, Maritxu Kajoi konfinatua ospatzeko deialdia

Dotore jantzita, leiho eta balkoietara irteteko ekimena zabaldu dute. "Egun ilun hauek argitzea" da asmoa

X.G. ARRASATE

Aretxabaletarrekin "pike sanoa" oinarri hartuta, Maritxu Kajoi eguneko jantzi dotoreak jantzi eta xanpain eta guzti balkoietara ateratzeko deia zabalitzen dabilta. "Eskapulario eta guzti, denon artean Maritxu Kajoi ospatzea nahi dugu, gure balkoie- tatik bada ere". Maritxu Kajoi maskaratxoarekin ageri den eskapulario berezia ere diseina- tu dute, jendeak etxean inpri- matu eta zapatuan jartzeko. Zuzeneko musika emanaldia egingo dute Youtuberen bitartez,

eta egitaraua prestatu dute, de- nek aldi berean Maritxu ospa- tzeko. *Youtu.be/9pnRzEmpYK0* helbidean jarri ahalko da zuzeneko musika, eta herritarrek euren bideoak bidaltzeko helbi- de hau ezarri dute: *goikورونا- virus19@gmail.com*. "Arrasatear- rrok zerbait badaukagu, hori poteoa eta parranda zaleak ga- rela da, eta gure patroiz Maritxu Kajoi be badaukagu txikiteroak zaintzeko! Horregatik, denok animatzen zaituztegu apirilaren 4an zuen balkoietara dotore- dotore irtetera".

Talka musikal batetik sortutako biktimen kluba

Jon Zubiaga musikari eta antzezle arrasatearra baxu-jole dabil Victimias Club talde berrian. "Hegazkin istripu baten moduko talka musikala" dela dio, iluna eta goxoa aldi berean; lehen kontzertuak bertan behera geratu arren, zuzeneko gogoz daude

Xabi Gorostidi ARRASATE

Laino ilunez betetako garaiak datoz kultura arloko sortzaileentzat, baina geldituta geratzea ez da aukera bat, eta besapean proiektu berri batekin dator Jon Zubiaga *Osoron* musikari eta antzezle arrasatearra. Victimias Club du izena abentura musikal berriak, eta eskarmentu handiko musikariak batu dira bertan: Sumision City Blues taldeko errautsetatik Iñaki Urbizu *Pela* abeslaria, David Marin bateria-jolea eta Joseba B. Lenoir gitarrista, Siroko reggae taldeko Julen Postigo pianista eta Zubiaga bera baxua jotzen. "Hegazkin istripu baten moduko talka musikal bat gara. Julen, adibidez, reggae mundutik dator, eta besteok askotariko estiloetan mugitu izan gara. Ez naiz etiketa-zalea, baina pop toxiko bezalako zerbait egiten dugu. The Damned eta Nick Cave handiek egiten duten antzera, distira duen iluntasuna bilatzen dugu. Une batean oso zaratzatsua izan



Jon Zubiaga baxua jotzen, bizkarrez, taldearen entsegu lokalean. VICTIMIAS CLUB

gaitzeko, eta segidan pop doinuekin leuntzen dugu, nahiz eta, badaezpada, ezpata prest dugun norbaiti burua mozteko". Talde sortu berri batek beste edozeinek baino behar gehiago izaten du entseatzeko. Hala, konfinamen-

duak ez du askorik laguntzen, baina nola edo ahala moldatzen dira. "Teknologia berriek alde txar asko dituzte, baina onak ere bai, eta lokalean elkartu ez arren lanean jarraitzen dugu: audioak bidaltzen, kantuak borobiltzen...

ez gaude geldituta, baina ez da egoera politena talde berri bat martxan jartzeko".

Egunotan musikariak egiten ari diren *streaming* emanaldiek zalantzak sortzen dizkiote: "Artistak zuzeneko bizi gara, eta horri balioa eman behar diogu. Sare sozialetako emanaldi hauek ikusgarritasuna ematen dizute, bai, baina ez dakit kalte edo laguntza diren musikarientzat".

Kontzertuak, bertan behera

Konfinamendua ezarri zen asteburuan abesti batzuk grabatzen aritu ziren Gasteizko Gakobeltz estudioan, eta aurkezpen kantarik argitara ez eman arren, jada hiru kontzertu zituzten lotuta: bi Gasteizen eta bat Bilbon. "Zer taldetik genduzen ikusita, ezer egin gabe jendea deika hasi zitzaigun. Ikusmina sortu zen, abesti bakar bat entzun gabe ere. Kontzertu ederrak genituen aurretik, baina apirilekoak, jada, bertan behera geratu dira. Gogoz eta ilusioz gaude; ea egoera konpontzen den eta jotzen hasten garen. Alde positiboa ikustearren, ziurrenik diskoa esku artean edukiko dugu kontzertuak jotzen hasi orduko".

Baxua, aspaldiko partez

Ia beti gitarrako sei sokak astintzen aritu izan da Zubiaga, baina, aspaldiko partez, baxua joko du. "*Pela*-k galdetu zidan ea baxu-jolerik ezagutzen nuen, eta zera esan nion: 'Oso sofistikatu ez

den zerbait bada, kontatu nirekin'. *Txerra* eta *Jul* Bolinagarekin eman nituen lehen kontzertuak baxu-jole. Mahomak RIPEkin egindako azken kontzertuan, adibidez, baxua jo nuen, eta, ostean, baita The Kagas taldean ere. Orduan, ez dut askorik praktikatu, baina ez naiz hutsetik hasi". Instrumentua aldatzeak on egin diola dio: "Baxuarekin beste plano batean zaude, eritimoaren makina-gelan bezala. Ondo konpontzen naiz Davidekin, eta gozatzen ari naiz".

Beste proiektuak

Aldi berean leku baten baino gehiagotan egoteko gaitasuna du Zubiagak. Bere beste proiektuak zein puntutan dituen galdetuta, hona bere erantzuna: "Anita Parkerren, konposatzen fasean murgilduta gaude orain; beraz, geldialdi honek ez digu hainbeste eragin. Lan luze berria aterako dugu urte amaierarako, eta maiztzean aurrerapen abestia aterako dugu, bideo klip eta guzti". Antzerkiari dagokionez, Deabru Beltzarekin kale emanaldi bat prestatzen ari zen udarako, baina, une honetan "dena airean" dagoela dio.

"STREAMING' EMANALDIK EZ DAKIT KALTE EDO LAGUNTZA DIREN MUSIKARIENTZAT"

"Etxetik ariketak behar bezala egitea oso garrantzitsua da"

MIKEL GONZALEZ MONDRAKO JOKALARIA

Taldekideek etxetik ariketak egiteko bideoak egiten dabil


X.G. ARRASATE

Mondragym izena jarri diote ekimenari eta klubaren webgunean dabilta aipatutako bideoak zintzilikatzen.

Nolatan sortu zen bideoak egitearen kontu hau?

Ander Romero kirol zuzendariaren ideia izen zen. Ni taldeko jokalaria naiz, baina *Rome*-k badaki, horrez gain, gimnasio batean egiten dudala lan. Geldialdi une honetan apropos jo zuen taldekideentzako bideo bat egitearena, eta nigan pentsatu zuen horretarako. Ostean, zu-

zendaritzako Elenari komentatu genion ideia, eta primeran iruditu zitzaion. Hark kudeatzen ditu klubaren komunikazio kontuak, eta bideoak klubaren webgunean jartzea adostu genuen. **Lehen bideoa luzea da eta askotariko ariketak planteatzen dituzu...** Hasieran, asmoa zen bideo bakarra egitea, eta horregatik egin nuen 10 minutu inguruko bideo bat, askotariko ariketekin. Egia esan, hainbat kideren laguntza izan nuen. Markel Perezek eta Iker Uribarrenek aholkuak eman dizkidate ariketak aukeratzeko



Mikel Gonzalez. M.G.

orduan, eta gero, Markel Bazan-bide bideoaren muntaia egiten lagundu dit. Askotariko ariketak planteatzen nituen bertan, indarra lantzeko, kardio-ariketak... **Eta zer-nolako harrera izan du bideoak?**

Nahiko ona, esango nuke. Orain, bideo gehiago igoko ditugu, lau edo bost egunean behin. Bideo laburragoak izango dira, eta helburu espezifikoagoatara bideratuta. Adibidez, indarra lantzeko ariketak bakarrik, eta horretarako bost edo sei aktibitate.

Bideo formatuarena interesgarria da, ariketak ondo egiteko erreferentziak izateko...

Hala da. Norbere kabuz etxean aritzean, arriskua dago modu desegokian egiteko: postura txarrrak, maiztasun desegokiak... etxetik ariketak behar bezala egitea oso garrantzitsua da. **Lehen bideoan Mondraren kamiseta duzu soinean. Imajinatzen dut ez zela kasualitatea izan...**

Klubak eskatu dit; beraz, irudia zaindu egin behar da. Mondra presente egon dadila.

'FIFA' bideo-jokoaren txapelketan, lehen partiduan kalera

Geldialdi egoera arintze aldera, Twitterreko *@terceraEH* erabiltzaileak inguruko klubaren arteko txapelketa birtuala antolatu zuen aurreko astebururako. Mondrak bertan parte hartu zuen, eta taldeko jokalaria aukeratzeko barne txapelketa bat egin zuten. Leintz-Arizmendi taldeko Lide Zubiaga izan zen garaile, bost partidua irabazita, baina ezin izan zuenez *@terceraEH*-ko txapelketa jokatu, haren ordeztu Ariz Arizmendiarririk -beste finalistak- ordezkatu zuen Mondra. 32 klubek hasi zuten txapelketa, eta Mondrak lehen kanporaketan esan zuen agur, Hernaniren aurka galduta. Elgoibar taldeko Jon Casado izan zen garaile.



ALKATEAREN PARTEA

LIERNI ALTUNA

Badoa hirugarren astea...

Ezohiko egoera honetan ia hiru aste bete ditugu. Aste honetako gai zentrala ekonomia bihurtu dute komunikabideek. Ezinbesteko lanak atera behar dira aurrera; gainontzeko denak, geldi, etxean.

Honek gatazka sortu du, baina zergatik entzuten ditugu batez ere goiko politikarien eta enpresarien esanak? Osasunaz dakitenak entzun beharko genituzke bakarrik edo gehien, baina borroka beste kokaleku batean jarri da: etorriko den krisia handiagoa izango dela horrela, beharrezkoa dela edo ez dela, beti egongo direla bajak eta onartu behar ditugula... Hori bai, inongo momentutan ez dira gogoratzen hiru aste itxita daramatzaten taberna, jatetxe edo gainontzeko denda edota autonomo txiki askorekin. Eta lau enpresa edo kooperatiba handiak garrantzitsuak dira, noski, baina gainontzeko guztiak ere bai, beste arlo asko, herri bizitza tartean, mantentzen laguntzen dutelako...

Nik ideia handirik ez daukat, baina ez dit balio argudio bezala ekonomia edo krisia erabiltzea azken neurrien aurrean. Irekita mantentzea nahi duten enpresetan adierazi dezatela, enpresek, langileen osasuna nola bermatu behar duten, eta Gobernuak, lehenengo eta behin, beharrezko materiala, bai edo bai, eman diezaiela osasun langileei, erresidentziei... eta, bizitzak erdigunean jarrita, beharra duten guztiei.

Eskerrak, egoera hauetan ere, jendearen onena ere agertzen dela. Herrian, zapi gorrien kanpaina jarri dute martxan Aramaixoko Zaintza Sareak eta Talde Feministak. Zapi gorriak jarri ditzagun leiho eta balkoietan, jarrera epaitzaileak alde batera utziz eta elkartasuna eskaintzen duten etxeak ezagutaraziz.

Eta nik, pertsonalki, ez dut aparteko arazorik izan konfinamendua betearazteko lana dutenekin, baina benetan adierazi dezaket gure herrian nahiko zentzuz eta txintxo gabiltzala horretan; beraz, mesedez eskatzen diet lan hori dutenei errespetuz eta zentzunaren barruan egiteko lan hori, egoera ez baita erreza inorentzako.

Animo denoi! Denon artean lortuko dugu!

Luzatu egingo da udal zergak eta tasak ordaintzeko epea

"Egoera larrian" geratuko direnei laguntzeko konpromisoa adierazi du Aramaio Udalak

J.I. ARAMAIO

Udal zergak eta tasak ordaintzeko epea luzatu egingo da COVID-19ak eragindako egoera berezia dela eta –horixe egitea gomendatu zien Eudelek udalei, beste neurri batzuen artean–.

"Epeak bertan behera utzi dituzte egoera honegatik, eta Aramaio Udalak hori errespetatuko du, egoera larria eta ezohikoa delako, argi eta garbi. Egoera hau pasatu arte ez ditu kobratzeke dauden zergak eta tasak kobratuko", dio Lierni Altuna alkateak.

Horrez gain, egoera "normaltzen" hasten denerako ere, neurri bereziak iradoki ditu alkateak: "Ikusi beharko da zer eta nola kudeatu, baina gure helburua beti izango da egoera larrian daudenei edo geratu direnei laguntzea. Baina, beti bezala, Eusko Jaurlaritzak eta gobernu espainiarren ezartzen dituzten lege eta interpretazioen menpe egongo gara". Eta ondorengoa gaineratu du Altunak: "Zentzu honetan, espero dugu arlo soziala oinarri izatea, baina ikusi egin beharko da".

'Epaitzaile' ez diren balkoiak, zapi gorritz

Kalera irten denaren arrazoiak ezagutu gabe, haiekiko, han eta hemen, ematen ari diren jarrera desegokien aurrean 'Zapi gorriak leihoetan' ekimena jarri dute martxan Zaintza Sareak eta Talde Feministak, "eraso" gabeko "espazio seguruak" sortzeko

J.I. ARAMAIO

Ekimena aurkezteko bultzatzaileek atera duten oharrak azaltzen du askotarikoak direla, garai berezi hauetan, etxeetan bizi izaten ari diren egoerak. "Horregatik, jarrera epaitzaileak alde batera utzi eta elkartasunari helduz, bakoitzaren beharrik ulertu eta elkar laguntzeko espazio bihurtu behar ditugu kaleak, auzoak eta bebarruak. Beharra duten horientzat espazio seguruak sortuz –bizilagunen arteko eraso eta epairik gabekoak–, dio Aramaixoko Zaintza Sareak eta Talde Feministak argitaratutako oharrak.

Espazio seguru horiek –edo horiek sortzeko konpromisoa– balkoi eta leihoetan zintzilikatutako zapi gorrien bidez identifikatzea proposatzen dute ekimenaren bultzatzaileek, eta hori egitera animatzen dituzte, ondorioz, aramaioarrak. "Hori ere komunitatearen osasuna zaintzea baita; eta hori ere denon ardura baita", diote.

Honez gain, eta Aramaion "horrela" bizi ez dutela aitortuta ere –ekimeneko kide Irati Mujikak–, beste leku batzuetan "gisa orotako polizia" herritarrek "mehatxatzen, iraintzen eta zigortzen" ari dela diote idatzian: "Jendea beldurrez dagoen garaian



Zapi gorriak, etxe bateko leihoetan eta balkoian. ZAPI GORRIAK LEIHOETAN

eta egoera ekonomiko txar batean murgiltzen ari garenean, isunekin mehatxatzea ez da jendea zaintzea", dio, horren harira, Mujikak.

Zapiak, "ugaritzen"

Ekimeneko kidearen arabera, Aramaion ere gertatu dira egunotan epaitzaileak, balkoi eta leihoetatik: "Kalean dagoen hori epaitua sentitu da behin baino gehiagotan, leiho edo balkoietan zeuden beste batzuegandik. Eta zapi gorri hauekin hori nahi dugu: 'Nik ez zaitut epaituko

kalean zaudelako edo kalean ez dakit zer egiten ari zarelako'. Bakoitzaren beharrik ulertzen saiatzea nahi dugu, esan beharrean 'Etxean egon behar da!'; ze, 'kalean zertan ari naizen badakizu?'".

Aramaion balkoi eta leihoetan zapi gorriak dituzten etxeak "pixkanaka ugaritzen" doazela dio Mujikak: "Oraintxe, etxetik, bat edo beste ikusten ditut". Eta, horrez gain, beste leku batzuetan ere sortarazi du interesa: "Aretxabaletako gazte batzuk ere zerbait martxan jartzekoak dira".

Desfibriladorea, osasun etxean

Duela pare bat astetik dago jarrita desfibriladorea mediku kontsultategiaren kanpoaldean. Ondoan ditu argibideak ere –behin erabiltzen hasita, makina bera ere joaten da jarraitu beharreko urratsak azaltzen–; aurrez, erabilerari buruzko formazio saioa egina dute herrian –abenduan, udaletxean–, eta eskolan ere egingo dute beste bat aurrerago.



ARAMAIOKO UDALA

#GuEtxean

Mozorrotu eta atera familia-argazkia edo egin bideoa eta irabazi asteburua Sendavivan lau lagunendako!

Irudiko figurak erabili edo patroitzat hartu, edo zeuen gustukoak egin.
Jantzi etxean dauzkazuen mozorroekin batera, eta bidali familia-argazkia edo bideoa.
Argazkiak eta bideoak Goiena.eus webguneko #GuEtxean atalean egongo dira ikusgai.



Figura hauek erabiliz gero, gogortasuna emateko, euskarri gogor batean itsatsita erabil ditzakezue.



Zozketako saria:

- Bi heldurendako eta bi umerendako aste bukaera bat inguruko hotel batean.
- Eta egun baterako laurendako [Sendavivarako](#) sarrerak.

Parte-hartzaille guztien artean egingo da zozketa.

Zozketan parte hartzeko epea: apirilak 19.

Argazkiak bidaltzeko bideak:

✉ Posta elektronikoz: argazkiak@goiena.eus

📞📧 Whatsapp/Telegram: #GuEtxean [izen abizenak eta telefonoa]
688 69 00 07 zenbakira.

BABESLEA: ARRASATE BIDAIAK



goiena

Zu hemen zaude.



ALKATEAREN PARTEA

UNAI ELKORO

Astebete gehiago, astebete gutxiago

Beste aste bat pasatu da; dagoeneko hirugarrena betetzera goaz eta nabari da egoera berrira ohitzen goazela guztiok. Kaleak hutsik eta balkoiak beteta ikustera ohitu gara. Ordu jakin batzuetan txaloak, bestetan kantak, eta, nola ez, larunbat arratsaldean festa ere bai. Ohikoak ez diren ekintzekin bete ditugu eguneko ordu luzeak; moldatu gara egoera berri honetara.

Gustatuko litzaidake egoera honek noiz arte iraungo duen aurreratzea, baina, tamalez, oraindik goiz da hori aurreikusteko. Edonola ere, ukazina da astebete gutxiago geratzen zaigula.

Gaurkoan, baikortasun mezua helarazi nahi nizuke. Azken datuaren arabera, asteazkeneko datuaz ari naiz hau idazten dudan momentuan, herrian 21 positibo konfirmatuak dauzkagu. Zenbat eta positibo gehiago, orduan eta errazagoa da ingurukoren bat kutsatua izatea eta gertu sumatzean beldurra handitzea. Hau hala izanik ere, osasun zerbitzuak helarazten digun mezua positiboa da, gaixoen egoera hobera doa, altak ingreso berriak baino gehiago dira eta osasun baliabideak ez daude gainezka. Itxialdi egoeraren helburu nagusia betetzen ari da; beraz, ez etsi, segi orain arteko jokabide arduratsuekin eta laster ikusiko dugu tuneleko irteeran argia.

Udalari dagokionez, joan zen astean aurreratu bezala, itxialdi amaierarako neurriak lantzen aritu gara. Hurrengo astean onartzeko asmotan gara proposatu berri ditugu komertzio, ostalaritza eta profesional txikiendako laguntza neurriak, alde batetik, egunotako galerak arintzeko, eta, bestetik, jarduera sustapena bideratzeko. Hurrengo astean onartzea aurreikusten dugu, lehenbailehen indarrean izateko helburuarekin. Dagokionean denoi jakinaraziko dizuegu, denon parte-hartzea beharrezkoa izango baita egoera honetan kaltetuenak izan direnak laguntzeko. Itxialdia amaitzean girotuko dugu herria; beraz, orain, indarrak gorde, amaiera ondo ospatuko dugu eta.

Amaitzeko, oraingo honetan ere, besarkada handi bat gaixotasuna gainditzeko bidean zaudeten guztioi, bai eta senitartekoei eta hurbilekoei ere; animo, zaindu ezazue zuen burua eta ingurukoena.

Esan bezala, dagoeneko astebete pasatu da eta astebete gutxiago falta da.

Herritarrek odola ematen

Odola ematera joateko ezohiko deiak egin dituzte azken asteotan eta atzo, eguena, Arabako Odol Emaleen elkarteak bideratutako autobusa izan zen. Horiek adierazi dute emaleen kopuruak behera egin duela koronabirusaren krisia hasi zenetik, eta ondorioz, odol beharra hazi egin dela. Horren jakitun, herritarrek harrera beroa egin zioten autobusari.



M.A.

Hainbat jarduerarentzat laguntzak iragarri dituzte

Merkataritzari, ostalaritzari eta jarduera profesionali bideratu dizkie Udalak; horrez gain, hilero mila bonu aterako ditu herriko saltokietan erabiltzeko. Era berean, iragarri dute kiroldegiko tasak ez dituztela kobratuko zerbitzua etenda dagoen bitartean

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Koronabirusak sortutako krisiaren ondorioak larriak izan daitezke hainbat jarduerarentzat, eta, hain zuzen, Aretxarte merkatarien elkarte oso kezkatuta agertu da azken asteotan. Horren jakitun dira udal ordezkariak eta hainbat neurri ekonomiko jarriko dituzte martxan, egoera arintzeko asmoarekin.

Hala, herriko saltoki txikiei, ostalaritzari eta profesional liberalei zuzenduta, bi laguntza lerro sortu ditu Udalak, eta horretarako 130.000 euroko dirupartida bideratuko dira.

Unai Elkoro alkateak azaldu du zertarako izango den neurri sorta hori: "Diru sarrera faltak eragindako kaltea arintzeko tasak murriztea jasotzen du, eta baita hainbat laguntza ere konfinamendu egoera amaitu ondoren herrian jarduera sustatzeko helburuarekin".

Prezio ezberdinetako bonuak

Hartuko dituzten neurriak honako hauek dira: batetik, terrazen urteko tasa ez diete kobratuko ostalariei, eta itzulketa eskatu ahal izango dute dagoeneko ordainduta dagoen kasuetan. Udaletik adierazi dute horiek jartzeko mahai eta gune kopurua arautuko dutela.

Eta bestetik, negozioa itxi beharrean izan diren merkataritza, ostalaritza eta bestelako jarduera profesionali uraren eta zaborraren tasak etengo dizkiete 2020ko lehen sei hilabeteetan. Jarduerarekin jarrailu ahal izan duten negozioek, ostera, uraren eta zaborraren tasen %50 ordainduko dute.

Horiez gain, jarduera ekonomikoa sustatzeko asmoarekin, Udalak bonu sistema bat jarriko du martxan, horretarako hilean 10.000 euroko inbertsioa eginda. Alarma egoera bukatzen denean hasi eta urtea amaitu arte –abuztua izan ezik–, mila bonu jarri-



Hainbat saltoki itxita Mitarte kalean. MIRARI ALTUBE

MILA BONU JARRIKO DITU UDALAK HILERO HERRITARREN ESKURA, HERRIAN GASTATZEKO

ko dituzte hilero herritarren eskura, eta horiek herriko dena, taberna eta zerbitzuetan gastatu ahal izango dira; bi hilaletako iraungitze data izango dute. Erabiliko duten formula izango da Gabonetan ateratzen diren bonuen bera: Udalak diru kopuru bat jartzen du, erosleak bonua kopuru jakin baten truke erosi ondoren doan jasotzen duena. Udalaren asmoa da prezio ezberdinetako bonuak sortzea, sektore guztiei laguntzeko.

Ekimen horren bidez, Aretxabaletan 180.000 euro inguruko gastua sortzea aurreikusi dute: "60.000 euro Udalak jarriko ditu eta gainerakoa bonua erosi dutenen eskutik etorriko da, herriko establezimenduetan egin-gin-gin duten gastuarekin".

Horrez gain, kale animazioari bideratutako diru partida 20.000 euro handituko dutela iragarri

dute, kaleetan "giroa sortzeko" asmoarekin.

Kiroldegiko tasak deskontatu

Udalak hartutako neurrien artean dago "malgutasun handiagoo" eskaintzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineke Zerga ordaintzeko orduan, baita uraren eta zaborraren tasetan ere. Ordaintzeko epea azaroaren 30a arte luzatuko dute, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte: Covid-19ren ondorioz jarduera profesionala eten izana, aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteak (ERTE) eragindako langileak edo langabeak izatea. Ez dute errekar-gurik kobratuko itzultzea eskatzen bada dagoeneko ordaindu beharreko eta helbideratutako ordainagiriak.

Bestalde, apiriletik aurrera, eta alarma egoerak irauten duen bitartean, Ibarra kiroldegiko erabiltzaileek –abonatuak zein ikastaroetan dabiltzanak– ez dituztela tasak ordainduko jakinarazi dute. Martxoa dagoeneko kobratuta dago, baina kiroldegia berriro ireki ondoren, martxoko kuotaren zati proporzionala deskontatuko dute.

Hirugarren balkoi-festara begira, berrikuntzak

Bi balkoi-festa antolatu dituzte AZ Gaubelako kideek: batean, 26.000 ikusle izan zituzten zuzeneko emisioan, eta bigarrenean, berriz, 18.000. Zapatu honetarako ere badute ekintzaren bat esku artean, eta emango dutela horren berri jakinarazi dute

Imanol Beloki ARETXABAETA

Atxabalta dantzan! izenpean, balkoi-festa antolatu dute AZ Gaubelak taldeko kideek bi zapatutan. Martxoaren 21ean bata eta martxoaren 28an bestea. Ekimen biak grabatu zituzten, eta baita zuzenean emititu ere. Lehenengo deialdira Aretxabaletako herritarrak zeuden deituak, eta herritarrak balkoietera atera ziren, dantzara, balkoi eta leihoak argizatuta. Hala, airez grabatu zuten ekitaldia, eta irudi ederrak erakutsi.

Bigarren balkoi-festan, aldiz, Aretxabaletakoez gain Eskoriatzako eta Arrasateko herritarrak ere animatu zituzten balkoietera ateratzera; kasu honetan, baina, ez zuten airez grabatu. Hala ere, hiru herrietan zenbait kamera jarrita, zuzenean ikusteko aukera izan zen, eta gus-tura geratu dira ekimenarekin.

Bizipoza zabaldu guran

"Ez gara etxean egotekoak, eta zerbait egin beharra geneukan, batez ere etxeko txikienak alaitzeko asmoz. Hala, *Atxabalta dantzan!* ekimena egitea pentsatu genuen, zapatuan ordu eta erdiz, behintzat, irribarre batzuk ateratzeko herritarrei. Lehenengo ekitaldiaren arrakasta ikusita, beste bat egin



Mikel Alberdi DJ lanetan, balkoi-festan. AZ GAUBELAK

genuen, eta hirugarren bat ere izango dugu, baina beste modu batean... Ikusiko dugu, eta emango dugu horren berri", adierazi du Ibai Zangitu AZ Gaubelak taldeko kideak.

Dibertsioa bai, baina lan asko

"Grabaturako irudien zuzeneko emisioaz gain, kanta nahasketa baten helbidea partekatu zuten bi ekintzetan, nahi zutenek etxe bakoitzetik bozgorailuak jarrita, herri guztian musika bera entzuteko. Emaitza paregabea izan dela gaineratu du Mikel Alber-

dik. "Lehenengo ekitaldian 26.000 ikusle izan genituen Youtubeko gure kanalean, eta bigarrenean, 18.000 ikusle. Bigarren honetan, Aretxabaletako argi guztiak kendu genituen balkoieterako argiztapena hobeto ikusteko; Eskoriatzara eta Arrasatera ere zabaldu genuen ekimena, baina ezin izan genuen dronea erabili. Anonimotasunetik keza bat jaso zuten ertzainek dronea erabiliko genuela esanez; Ertzaintzaren abisua jaso genuen, eta, kasu eginaz, ez erabiltzea erabaki genuen".

Udalaren baliabideak aktibatu gura ditu EH Bilduk

Udalaren kontratupeko langileen baldintzetan eta herritarren zerbitzuetan eragin nahi dute

I.B. ARETXABAETA

Herritarrak babestea oinarri, Udal Gobernuak hartutako zenbait erabakiri buelta emateko eskatu du EH Bilduk. Udalarri zerbitzua ematen dioten kontratu batzuk mantentzea erabaki duen arren Udal Gobernuak, beste erabaki batzuekin ez dira konforme agertu EH Bilduko ordezkariak.

"Kontratu batzuk etetea erabaki du Udal Gobernuak. Kontratu horiek eteteak bi ondorio ekarriko lituzke: enpresek ERTE-ak egitea –eta langileak kalera-tuak izatea– edo Udalak soldatak ordaintzea baina enpresak dirua galduz, eta ondorioz, –zenbait kasutan– ERTE bat egitera behar-tzea. Bi kasuetan, zerbitzua eten beharko litzateke, eta kasu batzuetan, langileak kaleratu beharko lirateke. Kontratu etetearen aukerak, pertsonen eta enpresek

jasango lituzketen kalteak handiak izango liratekeela uste dugu".

Horrekin batera, Gobernuak ezarritako dekretuarekin beste aukera bat zabaldu dela adierazi gura izan dute: "Kontratu hauek indarrean mantentzea eta langileak beste momentu batean orduak errekuuperatzeko aukera ematea eskatzen dugu. Ludoteka, gaztelekua, hizkuntza errefortzuak, Auzoko, kiroldegiko hainbat zerbitzu, garbitasuneko zerbitzu batzuk... indarrean mantentzea eskatzen diogu alkateari."

Aipamen berezia

Kultur arloko kontratuen egoerari dagokionez, bertan behera utzi diren kontratuek 23.000 euro suposatzen dute eta kontratu horien ekintzak bertan behera uztea baino gehiago, atzeratzea aukera onena dela uste dute.

Etxean egiteko ariketak Ibarra kiroldegia eskutik

Etxean egonda, geldi geratu barik gorputzak aktibo mantentzeko asmoz, zenbait ariketaren gomendioak eskaini ditu Ibarra kiroldegia Instagram sare sozialean eta Youtube plataforman duen kanalean. Ikus-entzunezko horietan, beroketak, luzapeneko posturak eta zenbait kirol ariketaren demostrazioak egiten dituzte protagonistek, klase eran.

Horiek ikusteko, Instagram sare sozialean eta Youtubeko kanalean *–Ibarra kiroldegia Aretxabaleta–* jarri behar da.

Horrekin batera, UDA Aretxabaleta futbol taldeetako hainbat jokalarik eta entrenatzailek zenbait ariketa saio prestatu dituzte jokalarientzat, eta horiek egiteko gonbidapena egin diete jokalariei. Astean behin zenbait ariketa bidaltzen dizkiete jokalariei, batetik, egonaldia arintzeko eta, bestetik, osasuna bermatzeko.

Durana
Hartz Klinika

Aurrez telefonoz deituta, larrialdiak artatzen ditugu
09:00etatik
13:00etara.

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Implantologia	Hartz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55



ALKATEAREN PARTEA

JOSERRA ZUBIZARRETA

Egoera aldakorrari erantzuna emanaz

Konfinamenduaren hirugarren aste honetan ere Eskoriatzako udal instalazioak itxita ditugu, baina ahal dugun neurrian normaltasunez funtzionatzen ari gara, era telematikoan. Ia udal langile guztiok ari gara lanean, baina bakoitza bere etxetik. Horri aurre egiteko eta ahalik eta zerbitzu hobereana eskaintzeko asmoz, harremanetarako komunikazio kanal bereziak prestatu genituen, eta Gizarte Zerbitzuetan egin beharreko eta premiazko kontuei eman diegu lehentasuna. Bestalde, kiroldegia, liburutegia, kultura etxea eta horrelako zerbitzuak ez dira ematen, nahiz eta batzuk eskaintza telematikoak ematen ari diren. Jarri ditugun baliabideak ondo ari dira erantzuten herritarrek, eta laster Youtube kanal propio bat martxan jarriko dugu, arlo desberdinetako edukiekin. Horrekin batera, betiko telefonoak martxan ditugu, eta ordutegiak eta zerbitzu bakoitzaren telefono zenbakiak udal webgunean daude ikusgai. Horretaz gain, sistema telematikoak ere ezarri da webgunean.

Lehenengo egunak egoera berriari eta ateratako lege berriei erantzuteko izan ziren. Ordutik, hamaika dekretu ere atera ditugu, egoera aldakor honi erantzuna eman ahal izateko. Ondoren, etengabe, egunez egun egoeraren azterketa egiten ari gara; bai legediaren aldetik, edo herrian sortu daitezkeen premiei begira.

Aste honetan, gainera, batzar informatibo eta bilkura telematikoak martxan jarriko dugu, baina esan beharra dago normalean baino lan zama handiagoarekin gabiltzala, kontuan hartuta Udala hankaz gora jarri dugula. Eskerrak lantalde sendoa dudala; bestela, zoratu egingo nintzateke. Egia esan, eskerrak eman beharrean nago inguruan ditudan hainbat pertsonari, eurei esker etengabeko egoera aldakor honetan lana aurrera ateratzen ari garelako.

Koronabirus kasuei dagokienez, bestalde, Eskoriatzan zazpi pertsona dira positibo eman dutenak, Osakidetzaren azkenengo txostenaren arabera. Proporzioan ez da kopuru altua, baina ez gaitezen lasaitu. Bide horretan jarraitu behar dugu, eta orain arte moduan neurriak zorrotz hartu eta jarraitu behar ditugu.

Honekin batera, udal tasa eta zergen inguruan ere badago kezka bat herritarren artean, eta gure taldean, tasa horiek atzeratzeko proposamena landu dugu. Hala, aste honetan burutuko dugun ogasun batzorde telematikoan, udalbatza osatzen duten beste alderdi politikoeekin aztertu eta onartu nahi ditugu.

Bake Epaitegian ez da zerbitzu presentzialik emango

Justizia Zuzendaritzak emandako agindua betez, eta koronabirusaren krisiak iraun bitartean, Eskoriatzan ez dela Bake Epaitegia zabalduko eta zerbitzua Aretxabaletan zentralizatuko dela jakinarazi zuen Eskoriatzako Udalak webgunearen bitartez. Hala ere, Justizia Administrazioako Zuzendariak martxoaren 30ean emandako 3/2020

Instrukzioaren arabera, Bake Epaitegian egin beharreko tramite guztiak eskatzeko telefono bitartez deitu beharko dela adierazi du.

Hori horrela, interesa duten herritarrek eta tramiteren bat egin behar dutenek Eskoriatzako udaletxeko herritarren arretako telefono zenbakira (943 71 44 07) deitu beharko dute. Bertara deitu, eta egin gura duten tramiteen berri emanda, udal langileak arduratuko dira zerbitzua bideratzeaz.

"Jaso dudana gatik, ezin dut onartu gaizki irtetea"

CARLOS GARCIA ESKORIATZARRA

Operazio bati aurre egiteko laguntza ekonomikoa eskatu du, eta 24 orduan behar zuen dirua batuta -60.000 euro-, azken txanpa faltan, borrokarako gertu dago

Imanol Beloki ESKORIATZA

Emozio handiko egunak izaten ari dira egunotan Carlos Garcia eskoriatzarrarendako. Edwingen sarkoma deritzon tumore bat aurkitu zioten peronean Carlos Garcia 27 urteko eskoriatzarrari 2019ko martxoaren 3an; eta, gainera, bi biriketara hedatu zitzaion. Ebakuntza guztiak amaituta, dagoeneko ez du tumorerik, baina kimioterapia tratamendua ez dela uste bezain eraginkorra izan adierazi diote medikuek. Hori horrela, etorkizunean tumorerik ez irteteko, ordaindu ezin zuen azken ebakuntza egin behar diote. Horretarako, 60.000 euroko laguntza ekonomikoa eskatu du sare sozialen bitartez, eta 24 orduan behar duena baina gehiago jaso du. Diru guztia bere ebakuntzarako -zelula amen aferesia eta autotransplantea- izango dela adierazi du, eta soberan geratu dena Edwingen sarkomaren ikerkuntzara bideratuko duela. Hala, laguntza eskaini dioten guztiei nahi lukeen besteko eskerra ezin eman, erronka berria du aurrean; bere esanetan, hutsik egin ezin duen borroka.

Azken ebakuntza faltan, bidea ez da erraza izan, baina, betiko moduan, indartsu eta ahal bezain positiboen eraman duzu, ezta?

Tratamendu luzea izan da, ebakuntza batzuk, kimioterapia-prozesu eta klinikako zenbait ospitaleratze... baina, azkenean, sarkoma eta biriketako tumoreak suntsitzea eta erauztea lortu nuen. Guztira, 12 ospitaleratze, 235 kimioterapia ordu, erradioterapiatzko 22 saio peronean, saihesterako bi biriketako operazioak, peronean 13 zentimetro kendu didate... ez da samurra izan. Hala ere, ahal izan dudana moduan eraman dut, beti aurpegi ona jartzen. Azken ebakuntzari dagokionez, apirilaren 7an aferesi bat egingo didate dena ondo bada; hau da, modu batean



Hegoi semea, Ana Sedano emaztea eta Carlos Garcia bideo deia egiten. CARLOS GARCIA

"EGUNKARI OSO BAT BETEKO NUKE ESKERTZA MEZUEKIN, ETA EZ NUKE BUKATUKO"

esateko, odola aterako didate... Gero, apirilaren 19an ingresatu eta bi kimioterapia gogor jasoko ditut. Osteon, aurrez ateratako odola sartuko didate, garbia eta izoztuta mantenduko dutena... eta gero, lehen azterketara arte itxaron beharko dugu.

Frustrazio handia eragingo zizun bide luze hau egin, eta azken txanpako operazioa seguruak ez baxteak?

Prozesu guztia Nafarroako Unibertsitate Kliniketan egin dut, baina beraiek duten seguruak ez zidan estaltzen azken operazioa. Hala ere, seguruarekin oso ondo aritu gara hasieratik, ez dugu kezarik, baina urduritasunez bizi izan ditugu azken une hauek. Izan ere, operazio guztia egiteko prest genuen guztia, baina, diru kantitate bat faltan, presa sartu digu administrazioak. Hala ere, lortu dugu

behar genuen dirua eta gehiago, eta horren aurrean, 1.000 izen esan ahalko nizkizuke eskerrak emanaz. Izenak idatziz egunkari oso bat beteko nuke, eta ez nuke bukatuko.

Dirua batzea, eta azkar, zen erronka. Lortuta, izugarria izan da jendearena, ezta?

80.000 eurotik gora pasa jaso dugu. Hala ere, gardentasun osoz jokatu dugu, eta sare sozialen bitartez jakinaraziko dugu, transferentzia guztiak sartzen zaizkigunean. Navas, Jaen, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate... Batez ere, eskoriatzarrei eskertu nahiko nieke emandako laguntza, herritarrek izugarri inplikatu direlako. Ez dugu sekula ez nik eta ezta nire familiak hitzik izango eman diguten laguntza eskertzeko. Horrekin batera, Amaiur Lonbideri ere eskertu nahiko nioke, nire historia hedatzeko egin duen bideoagatik, nire koinata Mariani ideia zoro hau proposatzearen... Orain, dena ondo irtetea geratzen da, eta pasatzen denean izugarrizko festa antolatuko dut guztiak eskertzeko, eta denok gonbidatuta zaudete. Benetan, bihotzez, mila esker!


Konfinamendu egoeran, positibismo bila

Eskoriatzako Berbalagunek asteroko dinamikarekin jarraitzen dute, baina, egoera zein den ikusita, online batzartzen dira. Hala, joan den ikasturtetik hona galdutako talde bat berreskuratu eta, teknologia ardatz, galdera-erantzun jokoak ari dira egiten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zenbait talde daude Eskoriatzako Berbalagunetan, eta, asteko ordutegiari nolabait jarraituz, batzen jarraitzen dute bidelagun eta bidelariak, euskaraz hitz egiteko. Konfinamendu egoera honekin, gainera, sare sozialen bueltan gehiago ikasteko ere aukera eman dietela adierazi du Iratxe Arrese Eskoriatzako Berbalagunak Taldeko koordinatzaileak.

"Hangouts, Jitsi Meet eta Whatsapp aplikazioak erabiltzen ari gara egunotan, dinamika berriarekin. Lau talde ditugu martxan, gaur-gaurkoz: pintxopoteko taldea, batetik, eta beste hiru kafe taldekoak direnak, bestetik. Ikasturtean zehar izan ditugun orduak mantentzen saiatu gara, baina, ia guztiok etxean gaudenez, oso ondo moldatzen gara denok batzeko eta ordu aldaketaren bat edo beste egiteko, gainera, ez dugu arazorik, zorionez".



Telematikoki berriketan. IRATXE ARRESE

Talde bat berreskuratu

Iazko ikasturtetik hona Berbalagunak talde bat desagertu zen, bertako partaideen lan erreleboak zirela-eta, ordutegi arazoengatik. Hala ere, konfinamendu egoera honetatik zerbait positiboa at-

ra dutela ere gaineratu gura izan du Arresek: "Taldea honek ez du jarraitu ikasturte honetan, baina momentu honetan egoera honek ahalbidetzen duenez, online batu eta berriketan aritzeko tarte hartzen dugu".

Hitzen jokoa, fruituak ematen

Egunotan teknologia berriekin aritzeko eta ikasteko tarte ere hartzen ari direla gaineratu du Eskoriatzako Berbalagunak taldeko koordinatzaileak, eta adierazi du taldeetako partaideez gain sare sozialetako jarraitzaileak ere parte hartzen ari direla egitasmo berrian: "Egunotan, online batzen garenean zenbait hitz ateratzen dira gure elkarrizketetan. Bidelariak, euskaldun zaharrek, erabiltzen dituztenak: *txoleta, larua, garbaixa, aittejaune...* halako hitzak. Hala, horiek erabiliaz jarritako esaldia osatu behar dute partaideek, eta arrakatsua ari da izaten".

Diskoak kantuarik sareratzen ari da Nhil musika taldea

Debagoieneko musikari eskarmentudunek osatutako Nhil taldeak aurkezpen kontzertua eskaini zuen martxoaren 6an, Eskoriatzako Zaldibar antzokian. Taldeko kideak ezagutzeko eta proiektu berrian uztartzen duten musikaren berri emateko ikusizunaren ostean, baina, kontzertuak ematea eta diskoak saltzea ezinezkoa zaie, baina zaleak gerturatzeko diskoak kantak ari dira igotzen, apurka, Youtuben daukaten kanalerak.

Igo duten azken kanta *Truth* da, eta entzungai dago. Horrekin batera, Beñat Arrieta taldeko musikari eskoriatzarrak adierazi du lanean jarraitzen dutela, nork bere etxetik.



JAVIER ETXEBARRIETA

Birimbao instrumentua egin du

Arku musikaren antzeko hari-instrumentu bat da birimbaoa. Egurrezko makila malgu bat, alanbre bat eta kalabaza bat behar dira egiteko; azken honek erresonantzia-kaxa bezala egiten du. Javier Etxebarrietak etxeko materialekin egin du instrumentua, baina soka eta alanbreari koko bat ezarri dio. Soinua ona ez zela ikusita, tomate lata bat jarri dio ostean.



ALKATEAREN PARTEA

EUGENIO OTSOA

Zerga ordainketak atzeratuta

Badira bi aste konfinamendu egoera hau hasi zenetik, eta Gatzagako herritarrok ahal dugun heinean gure egunerokotasuna umorez eta balentriaz ari gara eramaten. Bakoitza bere etxean dago, eta egin beharreko etxeko lanez gain, norberak mota askotako denbora-pasak ditu, eta horietan gaude murgilduta; beti dago zer egin. Jendeak etxetik kanpoko zein barruko betebeharrak ditu, eta konfinamenduko lehen egunetan bezain ongi ari dira betetzen arauak; hau txalotzekoa da.

Udaletik hainbat neurri ere hartu ditugu gure herritarren beharrek asetzeko. Gatzagako Udalaren eskumenean dauden negozioei alokairu errenta kendu diegu alarma egoera honek iraun bitartean. Zenbaitek diru iturriak moztuak dituzte, eta egokiena iruditu zaigu, egoera zein den ikusita. Herrian erroldatutako pertsona orori ere, zergak atzeratu dizkiegu, eta hauek uztailean ordaindu beharko ditugu.

Herrian dugun kutsatu maila, bestalde, 0 izanik, horrela jarraitu nahi genuke, eta horretarako, zenbait neurri hartu ditugu; azpimarratzekoena, herriko gune erabilienak fumigatu ditugula: Labidea ingurua, Eliza ingurua... Esan beharrekoa da ere, azken eguraldi aurreikuspenak zeintzuk diren ikusita, gure auzo eta baserri inguruetan elur eta izotz denboraldiari aurre egiteko gatza botatzen ere aritu gara. Hala, inguru hauetako bizilagunak ere inolako arazorik izan ez dezaten.

Martxan dagoen herria ez da inoiz hilko.

Herritarren zerbitzura


Gatzagako Udalak jakinarazi du arreta zerbitzua telefonoz 943 71 47 46 zenbakira deituta edo postaz udala@leintzgatzaga.eus helbidera idatzita jaso dezaketela herritarrek. Horrekin batera, udal langile guztiak lanean ari direla adierazi gura izan dute, eta udaletxean ez egon arren zinegotzi bat eta alkatea etxetik ari direla lanean, beharren bat egonez gero.



GABAZI OROBENGOA

Etxean egiteko ariketak

Ibai Agirreurreta gatzagarra etxean egiteko ariketekin zenbait saio ari da eskaintzen sare sozialetatik. Egindako azkenak lunbar ariketak dira, eta, horiek irakasteaz batera, lunbarretako minak arintzeko egin beharrekoak ere azaldu ditu. Horrekin batera, luzaketak eta automasajea nola egin ere adierazi du. Horiek ikusteko, Instagrameko *Aike.nutrikol* orrialdean sar daiteke.




IBAI AGIRREURRETA



ALKATEAREN PARTEA

GORKA ARTOLA



Herri eginda, indartuta irtengo gara

Apirilaren 1a, konfinamenduko hirugarren astea. Antzera hasten dira Anna Franken egunerokoko hainbat kapitulu, eta, ezberdintasun asko tarteko, egoerak baditu antzekotasun asko ere. Gutako gehienontzat, gerra sasoi bateko egoera ezohikoetatik gertuen izan garen asteak dira.

Beharbada, horregatik hedatu da hainbeste azken asteetan hizkera belikoa ere. Hizkera eta iruditegia, eta zenbaitetan baita jarrera ere. Egoera larria da, baina ez dezagun baliatu militarismoa eta jarrera oldarkorrek justifikatzeko.

Orokorrean, konfinamendua ondo betetzen ari gara bergararrak eta zoriondu eta eskertzekoa da benetan. Aste honetan ezarritako neurri berriek mugimenduak murrizteko balioko dute eta kutsatze-tasaren gutxitzean emaitzak ikustea espero dugu guztiok.

Neurri hauek udal antolaketa ere eragina izan dute, oinarritzko zerbitzuak bakarrik daude modu presentzialean lanean: arreta zerbitzua

010 telefonoaren bidez eta pertsonan kasu larrietan, berdin gizarte zerbitzuetan. Kale desinfekzioan bi txandatan lanean, egunero kaleak ahalik eta seguruenak izan daitezen esfortzu handia eginez.

Udaltzainen papera ere ez da gozoa, herrian egiten diren mugimenduen zilegitasuna kontrolatu behar dute zehaztasun maila oso baxuko dekretu batean oinarrituta. Behar-beharrezko administrazio langileek osatzen dute lanpostuetan dauden zerrenda.

Gainontzeko zerbitzuak eskaintza moldatu eta ahal direnak online ematen hasiak dira dagoeneko: gazteriatik hezitzaile birtualak, kirol saioen eskaintza online, liburuak eta pelikulak era digitalean. Eskaintza zabalduz joatea da asmoa.

Luzatuz doa ezohiko egoera eta ondorioak ere handitzen ari dira, esponenzialki esatera ere ausartuko nintzateke, ondorio horietako asko aurreikusteko goizegi bada ere. Eragin ekonomikoak gogorrek izango dira eta

aurreko astean hartutako neurriak udal zerga eta tasen inguruan familia eta eragindako aktibitateetan horiek arintzeko ahalegin edo saiakera txiki bat dira. Zergak eta tasak atzeratu eta ez pilatzeko banatu egin dira; lehen eta bigarren hiru hileko ura eta zaborra uztailean eta urrian, OHZ edo IBI irailean eta ibilgailuen gaineko zerga abenduan.

Eman ezin izan diren zerbitzuak ez dira kobratuko: kirol abonauk, terrazak, ixtera behartutako aktibitateen uraren finkoa eta zabor tasak...; kobratuta dauden parteak kopensatu litezkeen aztertuko da.

Udaleko aurrekontuetan ere eragina sakona izatea aurreikusten da eta

GERTUKO BATEN HERIOTZARI AURRE EGITEA ZEIN NEKEZA IZAN LITEKEEN JAKITUN, DOLURAKO LAGUNTZA BIDERATZEN ARI GARA

duela hilabete gutxi onartutako aurrekontuak berrikustera behartuko gaitu. Sarrerren aurreikuspen berriak egiteko gai garenean premia zaharrak eta berriak lehenetsi eta udal baliabideak birbideratu beharko ditugu. Horretarako, beste erakunde batzuek eskaintutako laguntzak aztertu eta zentzu horretan sor litezkeen hutsuneak identifikatzea garrantzitsua izango da.

Eragin pertsonal eta sozialetara itzulita, garai zailak dira, orokorrean, eta gogortasuna areagotzen da ohikoan ere gogorrek diren momentuetan. Gertuko baten heriotzari aurre egitea konfinamendu garaian zein nekeza izan litekeen jakitun, doluaren prozesuan laguntza bideratzeko ahaleginak egiten ari gara, besteak beste.

Aurretik esan bezala, atera diezaiozun onena txarrari. Erramu zapatu ofiziala ospatuko ez badugu ere, bat egin dezagun Xaxauk egindako larunbaterako deialdiarekin, irten gaitzen bakoitza bere leihora eta girotu dezagun herria.

Egin dezagun herri, guztion artean indartuta aterako gara eta.

Udalak "neurri bereziak" hartu ditu, "okerren daudenei begira"

Alarma egoeran, besteak beste, udal zergak eta tasak eten egintza dituzte, eta Seminarixoko sarrerren dirua bueltatu

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19 gaitzak eragindako krisiaren aurrean hainbat "neurri berezi" hartu ditu Udalak. Esanguratsuenen artean dago udal zergen eta tasen ordainketa etetea. Honako neurri hauek

hartu ditu Ogasun Batzordeak, besteak beste: uraren eta zaborraren tasen ordainketa gutxienez uztailearen 30era arte etetea; derrigorrean itxi behar izan duten saltokiei eta gainerako jarduera profesionaleri uraren

kontzeptu finakoaren tasa eta zaborraren tasa ez kobratzea egoerak irauten duen bitartean; Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga -IBI moduan ezaguna- ordaintzeko epea irailaren 15era arte luzatzea; eta urteko abonamenduetako eta ikastaroetako tasarik ez kobratzea apirilaren 1etik eta itxita dagoen bitartean -urteko abonatuari parte proportzionala itzuliko zaie-.

Era berean, Udalak gogora ekarri du ziurtagiri elektronikoa izanez gero tramite guztiak telematikoki egin daitezkeela. Herriarrek edozein eskaera egiteko 010 telefono zenbakia erabilgarri izango dute, 08:00etatik 18:00etara -zapatu eta domeketan, 09:00etatik 14:00etara-.

Seminarixoko sarrerren dirua itzuli
Beste erabaki bat izan da martxoan eta apirilean Seminarixoko egitekoak ziren ikuskizunetako sarrerren dirua itzultzearena: Internet bidez erosi bada, posta elektronikoz jarriko dira harremanetan eroslearekin; eta leihtilan erosi bada, konfinamendu garaia bukatzean Seminarixoko leihtilan itzuliko dute dirua.

Bertan beheratu geratutako ekitaldietako bat zen Xabi Solanoren kontzertua eta iragarri dute azaroaren 20an egingo dutela.

"Hezitzaile birtualak" gaztelekuan

Bestalde, zerbitzuei dagokien, gaztelekuak eta hiru ludotekek martxan jarraitzen dute, birtualki badira ere. Gaztelekurako "hezitzaile birtualak" daude lanean: "Gaztetxeekin duten harremana ez etetea eta hauei entretenitzeko aukerak eskaintzeko sortu dugu. Whatsapp,

Skype, bideo dei zein Instagram-en bitartez daude hezitzaileak gaztetxeekin kontaktuan, eta aktibitate mardula dute eguneror". Ludoteketan ere "zerbitzu birtuala" eskaintzen dute: "Helburua da konfinamendua errazagoa egitea eta euskarazko aisialdia sustatzea. Hala, egunero txikienei eta horien familiei ekintzak proposatzen zaizkie, betiere etxetan egiteko moduko aisialdirako ekintzak: sukaldaritzakoak, probak, esperimentuak, lehiaketak...".



Seminarixoko harmailak beteta, artxiboko argazki baten. GOIENA

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurri
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITEA

Enpresa legegaitza 1190/025



Alarma egoerak utzi duen ezohiko irudietako bat: hainbat bergarar Oxirondo azokara sartzeko ilaran, distantziak zaintzen. I. SORIANO

Egoera berrira ohituta ere, etorriko denaren aurrean "oso kezkatuta"

Alarma egoerak eragindako konfinamenduaren atzean Bergaran bizi diren askotariko istorioen bila irten, eta sei kasu jaso ditu GOIENAK; bestalde, etorkizuna zail ikusten dutenen artean dago komertzio txikia. "Galdetu herrian badagoen Interneten erosi aurretik", diote

Jokin Bereziartua BERGARA

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri osteko 20. eguna da gaurkoa. Kaleko eseraren arabera, ohitura bat finkatu dadin 21 egun behar dira, baina konfinamenduak eragindako aldaketa itzelera nahitaez egokitu behar izan dute herritarrek.

Norberaren egoeraren eta izaeraren arabera, askotarikoa da itxialdia eramateko modua. Horregatik, askotariko kasuak batzen saiatu da GOIENA kalea irtenda: Elosuko lurretan haragitarako ganadua duen Pello Legorburu antzuolarra; ia 80 urterekin Elosuko Korta baserrian "beldur pixka batekin" bizi den Elias Lete; lan barik, bakarrik eta eguzkirik jotzen ez duen pisu baten bizi den Ibon Leibar *Txinbo*; Ereindajan denda-topagunean "jo eta ke" lanean ari den Aitziber Plazaola; adi-

nekoa duen amaren zaintzan diharduen Arantzazu Gallastegi; eta Ohorezko Erregional Mailako futbol ligarekin zer gertatu den ez dakien Josu Diaz.

Online erosi aurretik, "galdetu"

Osasun-krisiak eragingo duen krisi ekonomikoa neurtzea gaur-gaurkoz ezinezkoa bada ere, kezka eta ardura handia dago protagonista horien artean. Herriko komertzio txikia da "oso kezkatuta" dagoen eragile garrantzitsuetako bat; ezinbesteko zerbitzua eskaintzen ez dutenek behartuta itxi dute, eta zail ikus-

**"OSO KEZKATUTA"
DAUDE MERKATARIAK:
"ONLINE SALMENTAK
GORA ETA GORA, ETA
GUREAK BEHERAKA"**

ten dute etorkizuna. "Komertzio txikia beti dago zaindu beharra, baina orain, inoiz baino gehiago", adierazi du Bedelkarrek. Gainera, online salmentak nabarmen hazi diren egunotan, bertako dendetan nahi den hori badagoen galdetzeko eskatu dute: "Online salmenta goraka doan heinean, gurea beheraka. Galdetu herriko dendetan lortzerik baduzuen Internetetik erosi baino lehen. Bertakoa beti da hobea".

Pio XIII.a plazako EreinDaJan topaguneak ere *zero kilometroa* filosofiaz dihardu lanean. Ontziratatu gabeko autozerbitzua da eurena, eta, horregatik, langileek prestatzen diete erosketa- saskia bezeroei; ilarak saihesteko eta zerbitzu hobea emateko asmoz, Telegram edota Whatsapp bidez eska daiteke (681 66 08 63). Bestalde, ekoizleen partetik ez dute hornidura arazorik aurreikusten.

Nola daroazu konfinamendua?




PELLO LEGORBURU
GANADUZALEA

"Orain, pribilegiatuak garela esan dezakegu. Eguneroko lanean ari gara, ez da kalean pisu baten geldia egotea modukoa. Guretzat berriak diren neurriak ere hartu ditugu baserrian: distantziak gorde, eskuak sarri garbitu... Beldurra norberak daroa aldean eta neurriak ere norberak hartzea onena; notiziak ikusita, kontu handiz ibili beharra dago".



IBON LEIBAR
LANGABEA

"Bakarrik, lan barik eta eguzkirik ez duen etxe baten bizi izaten, egunak luze egiten dira. Egoera berrira ohitzen nabil, eta espero dut datozen egunak hobeto eramatea. Alde onak ikusi behar dira, eta pertsonalki benetako deskantsua hartzeko balio izan dit. Gizarte moduan, espero dut motelago bizi izaten ikasteko balio izatea, behar dugu eta".




ARANTZAZU GALLASTEGI
ADINEKO BATEN ZAINTZAN

"Ama dugu etxean, adinekoa da, eta anaiaren eta bion artean etxetik irten ez dadin ari gara laguntzen. Lanean ari naiz, eta, protokoloa oso zorrotza izan arren, beldurra beti dago hor. Ezinbestekoak ez diren jardueretarako ez bada, denok etxera. Badago ardi galduren bat, baina uste dut neurriak ondo ari garela errespetatzen".



ELIAS LETE
ELOSUKO KORTA BASERRIA

"Beldur pixka batekin, ez gara baserriatik irteten. Emaztea eta biok 80 urteren bueltan gaude; egunak pasatuko ditugu, baldin eta gaitza etortzen ez bada. Ortuari aritzen naiz sarri, batez ere entretenitzeko. Aita zenak aita galdu zuen 7 urte zituenean, *Gripe Española*-rekin. Oso kontu tristeak kontatzen zituen garai hartatik; orain, hau datorkigu".



AITZIBER PLAZAOLA
EREINDAJAN-EKO LANGILEA

"Ekoizleak produktuei irteera bat emateko desiratzen daude eta gure bezeroek, oro har, behar dutena bakarrik erosten dute. Estres handiarekin ari gara lehen lerroan egotea tokatu zaigulako; nekata baina indartsu gaude, proiektuak aurrera egin behar du. Bikotekidea ere lanean da eta ume txiki bat dugu; zaintza eta beste dena ari gara partekatzen".



JOSU DIAZ
BKE-KO FUTBOL JOKALARIA

"Gurasoekin eta arrebarekin nago etxean, ahalik eta gutxien irteten. Eskerrak terraza dugula eta eguraldi onarekin ariketa fisikoa egin dezakedala. Ez dakigu ligarekin zer gertatuko den, Federazioaren zain gaude. Erramu zapatua beste era batera biziko dugu, eta ea herriko jaiak ospatu ahal ditugun. Hori bai, lehenasuna denon osasuna da".

Babes-biserak egiteko ekimenak martxan dira

Osasun zentroetako material eskasia ikusita, hainbat dira 3D inprimagailuekin aurpegiak babesteko bisera egiten hasi direnak. Partikularren eta enpresen laguntzarekin, Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroan ere lan horretan dabiltza

Jone Olabarria BERGARA

Maker komunitateak martxan jarritako ekimen batetik abiarazita eta osasungintza eta zaintza lanetan ari direnen beharrak ikusita, hainbat dira etxean babeserako materiala egitera animatu direnak. Hala, Lanbide Heziketako zentro ezberdinetan ere EPI bisera egiten aritu dira azken asteetan; tartean, Bergarako Miguel Altunan.

Lan horretan zebiltzala ikusita, Bergarako osasun zentroak eta Mizpirualde egoitzak ere babes-material hori eskatu zuten. Hala, guztira, 110 bisera inprimatu zituzten eta joan



Bergarako osasun zentroko langileak, bisera jantzita, eskerrak ematen. J.A.

den domekan bertan egin zuten horien banaketa.

Bertako irakasle Joxu Aranak azaldu duenez, zentroan badi-tuzte biseretako pantailak 3D formatuan inprimatzeko makinak, eta baita laborategia ere: "Aurreko astean bi irakasle aritu ginen egunero bisera egiten, erreleboka".

Lanean jarraitzeko asmoz

Asteon ere bisera egiten jarraitu dute Miguel Altunan, nahiz eta erritmoa "zertxobait murriztu" behar izan duten, konfinamendu egoeraren gogortzea dela eta. Aitortu dute beharrezko materiala izan arte horretan jarraitzeko asmoa dutela: "Badakigu Osakidetzak enpresa bati enkargatu dizkiola bisera hauek, baina, oraingoz, behintzat, ez dira iritsi; horrenbestez, guk gure laguntza eskaintzen jarraituko dugu".

Enpresen laguntza

Bisera horien inpresiorako, hainbat enpresak sostengua eman eta ekimenarekin bat egin dute: "Bergarako MZ3D enpresak -3D inpresioan aritzen da- asko la-

gundu digu, baita Ulma Packaging-ek ere, bisera egiteko beharrezkoa den hainbat material emanda". Lanbide Heziketa zentroko ikasleen kasuan, baina, ezin dute proiektuan lagundu, konfinamendu egoeran "ahalik eta jende gutxien" elkartzeari komeni da eta.

Partikularren garrantzia

Azpiratu dutenez, partikularren laguntza ere jaso dute eta bereziki "eskertuta" agertu dira horiek etxean egindako lanarekin: "Badakigu herritar ugari dabiltzala egun hauetan euren etxeetan bisera egiten. Guk gure kasuan, esaterako, Aitzol eta Lander Mujika aita-semeen laguntza jaso dugu. 3D inprimagailua erosi zuen orain gutxi Lander gazteak, eta, aitarekin batera bisera egin, eta guri helarazten dizkigute, banaketa egiteko".

Bergarako osasun zentroan eta Mizpirualde egoitzan banatu dituzte aurpegiak babesteko bisera gehienak orain arte. "Oso eskertuta" agertu dira bertan eta, argazki bidez helarazi nahi izan dute mezua.

'Ttap' berritua eskuragarri!

+



'Gorabeherak' websailarekin!

ttap

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Etxean mahoi jantzita, Erramu zapatua ospatu

Konfinamendu egoerak behartuta bertan behera geratu ziren aurtengo Erramu zapatuko ospakizunak. Egoera horretan, balkoi, leiho eta etxeetatik bihar Erramu zapatua ospatzeko dei egin du Xaxau jai herrikoien konpartsak, egitarau eta guzti

Jone Olabarria BERGARA

Eguneroko ekintza gehienak bezala eta COVID-19 birusak behartuta, bertan behera geratu da aurten apirilaren 4an ospatzekoa zen Erramu zapatua. Konfinamenduan bada ere, Xaxau jai herrikoien konpartsako kideek, ordea, festa eguna mantendu eta nork bere etxetik ospatzeko dei egin dute. Hala, mahoizko prakak, alkandorak eta zapiak janztera animatu dituzte bergararrak biharko.

Lehiaketak nagusia goizean

Goizean goizetik hasita hainbat ekintza antolatu dituzte egun guztian zehar. Horietako bat da Erramu zapatuko azokan dagoneko klasikoa den txorimalo lehiaketa. Aurten, nork bere etxean egiteko deia egin du Xaxauk: "Etxean ditugun gauzekin txorimalo bat egitera animatu nahi ditugu herritarrek, eta balkoian, lehoietan edo bakoitzak ahal duen lekuan jarri". Txorimalo egitera animatzen direnei, argazki bat atera eta Xaxaura bidaltzeko eskatu diete.

Iaz egin bezala, behi pisaketa lehiaketa ere izango dela azaldu dute: "Behi baten argazkia argitaratu eta honen pisua asmatzeko erronka txiki bat da".

Zumba saioa eta bertsolariak

Youtubeko Xaxauko kanala izango da Erramu zapatua ospatzeko ezinbesteko tresna, eta, hain zuzen ere, 11:30ean zumba saioa eskainiko dute bertan. Horren ostean, eta *Jitsii* aplikazioaren bitartez, Koplak Barik bertso eskolako hainbat kide elkartu eta bertso saioa egingo dute. Hau ere Youtubeko kanalaren bitartez emititu eta herritarren eskura egongo da.

Bazkalorduan Txapa Irratiak antolatu ohi duen herri bazkari jendetsua egingo ez den arren, bakoitzak bere etxean bazkaria egin eta argazkiak partekatzea



Mahoizko arropak jantzi eta balkoietara irteteko dei egin du konpartsak. XAXAU

BERGARARREKIN PARTEKATZEKO EDUKIAK E-POSTA ETA INSTAGRAM BIDEZ BIDALI BEHAR DIRA

animatu dituzte bergararrak; betiere, mahoizko jantziak soinean dituztela. Bazkalostean, berrogeialdian zehar grabatutako bideoak partekatzera animatu dituzte herritarrek eta

hauen emisioa egingo dute Youtube bidez.

Iluntzean, kontzertuak

Arratsaldeko zazpitan, Arragoa taldeko lau kidek eskainiko dute folk kontzertua, eta ostean, 19:30ean, Azkaiter Pelox-en txanda izango da. 20:00etan, egunero txaloen ostean, DJ Hamai-ka Feat Maurizia eta DJ Balza arituko dira zuzenean. Bideo eta argazkiak partekatzeko: xaxaukomunikazio@gmail.com helbidera bidalita edo Instagram bidez [@xaxaubergara](https://www.instagram.com/xaxaubergara) kontura.

Erramu zapatuko egitaraua

Apirilak 4, zapatua

- **Goizean zehar** Txorimalo lehiaketa eta behi pisaketa lehiaketa
- **11:30** Zumba xaxautarra; Youtubeko kanalaren bidez
- **12:30** Koplak Barik bertso saioa zuzenean
- **14:00** Behi pisaketa lehiaketaren amaiera
- **Ostean** Herri bazkaria balkoietan
- **16:00** Bideo maratona
- **19:00** Folka familian zuzenean
- **19:30** Azkaiter Pelox-en emanaldia zuzenean
- **20:00** Txaloak leihoetan
- **20:10** DJ Hamaika Feat Maurizia zuzenean
- **20:30** DJ Balza zuzenean



NIRE USTEZ

MARIJE UGALDE

Aukera badugu

Abiadura handiko tren geratu egin da. Azeleragailuaren pedala bizitza osoan topera izan ondoren, norbaitek edo zerbaitek freno jarri du. Gehienok gure etxeekin topo egin dugu. Balkoiak jendez bete dira, eta bizilagunek balkoitik balkoira hitz egiten dute nire haurtzaroan bezala. Familiarekin berriz elkartzeko gara eguneko 24 orduetan, eta ez gaude horretara ohituta. Lanean berrasmatzea tokatu zaigu, etxetik lan egiten ikasiz. Irakasleen kasuan, metodologiak bilatuz eta egunez egun ikasleekin komunikatzeko modu berriak ikasiz. Faltan igartzen ditugu haien barreak eta, zergatik ez, haien haserreak baita. Baina ez ditut ahazten lan egin ezin dutenak. Merkatariak, artistak, langabeziara joan eta joango diren langileak. Beldurra, ziurgabetasuna... Honaino eramane gaitu aurrera begira baino ez zegoen gizarte honek. Atzera begiratu gabe, ezta alboetara ere, baina itxaropena baita. Pentsa dezagun tren gelditu egin dela istripua ez izateko. Bizitzen ari garen hau aukera bat izango da, berreraiki nahi dugun gizarteaz hausnartzeko. Beldurra eta mina, bakea eta maite dugun eta galdu nahi ez dugun guztiaren kontzientzia.

Euskaraldia ere, etxetik lanean jarraitzeko prest

Goiena komunitatea

Euskaraldia / BERGARA

Bizi dugun egoera ezohiko honetan, bide berri bat jarri dugu abian entitateei Euskaraldiaren inguruko informazioa helarazteko aste honetan.

Hain zuzen ere, online bidez biltzen hasi gara herriko zenbait elkarterekin. Hala, Lokatza Ziklismo Eskolako eta Burdinola-

ko kideak izan dira lehenengoak, eta haiekin izandako saioaren emaitza oso positiboa izan da. Aste honetan abiarazi dugun deialdia kultur eta kirol elkartei, dendari, tabernari zein herriko bestelako entitateei bideratuta dago.

Zure entitatea animatu eta Euskaraldian parte hartzeko prest badago, bidali mezu bat bergaraeuskaraldia@gmail.com helbidera. Bertan zehaztuko dizuegu behar duzuen informazio guztia.

OHARRAK

Bergarako boluntario sarea, martxa onean

Guztira, 210 boluntario daude sarean eta une honetan 39 pertsonari ematen diete laguntza. Era berean, Udaletik 1.200 etxetara deitzen dute herritarren egoera ezagutzeko. Akonpainamendu eta maskotak paseatzeko laguntza ere eskaintzen da, 010 telefonora deituta. Egun baten eskatu eta hurrengotik aurrera ematen zaie laguntza.

Indarkeria matxistaren kontrako telefonoa

Udalaren eskutik, indarkeria matxistaren kontrako telefonoa eta Whatsapp zenbakia abiarazi dute; 08:00etatik 14:00etara 943 77 91 21 telefonora deitu daiteke –Bergarako Udaleko gizarte zerbitzuak– eta 24 orduz 900 84 01 11 telefono zenbakira. Mezua ere bidali daiteke, 688 88 34 28, Whatsappera. Telefono anonimoa da eta ez du arrastorik uzten.

Pentsiodunen aldarrikapenak ere, balkoietara

Astelehenetako plazako hitzordua balkoi eta leihoetara pasatzea erabaki du Bergarako pentsiodunen mugimenduak. Hala, konfinamenduak iraun bitartean etxeko leiho eta balkoietara zapiak, biserak, kartelak edo norberak nahi duena ateratzeko dei egin dute pentsiodunek.



ALKATEAREN PARTEA

BEÑARDO KORTABARRIA

Hirugarren astekoak!

Presoaldiaren hirugarren astean sartu gara dagoeneko, eta aurretik hona badugu berrikuntza bat baino gehiago. Nabarmenena, agerikoa denez, presoaldia zabaldu izana; hau da, ezinbestekotzat jotzen diren zereginak izan ezik, gainerakoak etxean.

Udaletxean ere badu eragina dekretu berriak, baina ez du ematen: harrera, erregistro orokorra, garbiketa eta desinfekzio-lanak, udal-eraikinen garbiketa, aguazila, gizarte-zerbitzuak, idazkaritza, kontu-hartzailetza, diruzaintza, eta, sail-arduradunak, besteak beste, ezinbestekotzat jo direlako. Beharbada, udaletxe handiagotetan gehiago igarriko zen, baina gurean ia ezer ez.

Hala ere, egoera berezira egokitu behar izan dugu. Batzuk etxetik ari dira lan egiten, txandak egin ditugu, babes-neurriak hartuta gabiltza, eta elkarrekin ez dituzue ikusiko udal-langileak. Garbiketa eta desinfekzioan jarri dugu arreta handiena, eta buru-belarri ari gara horretan, zintzo, goiz eta arratsaldean.

Herriari begira, berriz, azken bi idatzietan egur apur bat emateko aukera baliatu nuen; orainoan, berriz, txalotzeko aprobetxatu nahi dut: 1) Boluntario-taldea. Lan asko edo gutxi izan, laguntzeko borondatea erakuste hutsagatik. 2) Etxez etxeko zerbitzuari diren langileak. Ez dago zergatia azaldu beharrik. 3) Osasun-langileak –garbitzaile eta administrariak barne–, segun eta ze baldintzatan aritzeak meritua duelako. 4) Txistulariak, dantzariak, bat-bateko balkoi-festak antolatzen dituztenak... eta ordu aldaketarekin argi-ordu gehiago edukiko dituzte. 5) Garbi jokatzeko ari diren herritarrek.

Eta bukatzeko, txartel gorri-gorria astelehenean futbol-zelaian autokarabana ezarri zuenari. Eta ez da broma. Oharra: zorionez, ez zen Antzuolakoa. Eutsi umorez eta segi etxean geratzen!

Osoko bilkura atzeratu egin den arren, Udal Gobernu lanean da

Iragarri dute alarma egoera asko luzatuz gero modu birtualean egingo dituztela udalbatzarrak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Udal Gobernuak egoera berrira egokitu behar izan du eta etxetik lanean dihardute zinegotziek. "Batzordeak eten ditugu, osoko bilkura ez dugu egin... egoera luzatzen bada, legeak aukera ematen duenez *online* egingo ditugu, gutxienez, udalbatzarrak. Gobernu taldea astero elkartzen da bideokonferentziaz; aurrera begirako lanak egiten ari gara, baina, egia esan, erabaki handirik ezin dugu hartu egoera honetan. Proiektuak eta talde-izaera bizirik mantentzeagatik

elkartzen gara. Pena da, sasoi honetan taldeak ereindako fruituak ikusten egon beharko genuke eta! Etxetik ari gara lanean eta behar denean udaletxera hurbiltzen naiz", dio Beñardo Kortabarría alkateak.

Oraingo bi positibori eusten diola Antzuolak dio Osakidetza. "Kasuak, kopuruak... ez zaizkigu interesatzen; horien beharrak ahal den neurrian asetzea, ordea, bai. Elkartasun-taldea eratu dugu eta behar dutenei laguntzen dihardugu; baita berrogeialdian dauden guztiei ere".

"Errekonozimendua jaso dugu musikariok"

PATXI LUQUE MUSIKARIA

Musikariek zuzeneko eta ikusleen berotasunik gabe une zailak bizi dituzten arren, sareak mundura salto egiteko aukera eman diela aitortu du Patxi Luquek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Konfinamendu egoerak alde positibo ere badakar. Horren adibide da aste hauetan herrietako hainbat musikaririk eta sortzailek itxialdi honi atera dioten etekina. Patxi Luque musikari antzuolarrak, esaterako, abesti berriak konposatzen diharduela aitortu dio GOIENARI.

Konfinamendua musika egin eta konposatzeko aprobetxatu duzu?

Lan asko atzeratuta neukan, eta, egiari zor, oso ondo etorri zait egoera hau. Egunerokoan ez dugu horrelako aparteko denborarik izaten. Zuzenekoak prestatzen nabil eta sisteman egiteko nituen hainbat aldaketa egin ditut egunotan.

Herritarrek balkoira irten eta auzoa animatzeko eskatu dizute behin baino gehiagotan.

Bai, halaxe da; eurengandik aterra da, gainera, proposamena. Esperientzia ederra izan da. Aprobetxatu dut sarean sartzeko eta hedapena emateko ekimena. Aldamenean bizi den adineko bizilagunak egunero jotzeko eskatzen dit. Lau bat saio ezberdin egin ditut, askotariko musikarekin, herritar oren gusturako; eta baita ere, nola ez, haurrei eskainitakoa. Egia da lasaitasun osoa gura duten bizilagunak badaudela; horregatik,



Luque, etxeko balkoian. PATXI LUQUE

ekimena aurrera eraman aurretik Udalean galdetu nuen. Bolumen baxuagoan eta zentzuzko ordutegian jarritz gero ez dagoela arazorik esan didate. **Alarma egoerari esker esan daiteke artista eta musikariok aitorpena jaso duzuela?**

Sarean puri-purian dagoen gaia da. Musika beharrezkoa dela ikusten da horrelako egoeretan, eta asko eskertzen da herritarren mezu positiboak jasotzea. Errekonozimendua egon badago. Niretzako, plazera da musika herritarrei eskaintzea. Aitortu

behar dudan arren zuzenekoak eta jendearekin hartu-eman zuzen hori ez izatea faltan sumatzen dudala. Baina gero, asteotan gertatu zaizkidan zenbait istoriok hunkitu eta bete egiten naute. Adibidez, bizilagun baten alabak konfinamendua nola bizi duen islatzeko marrazkia egin zuen eskolako lanen baitan. Marrazkian zioen nire musikari esker askoz ere hobeto zeramala itxialdia, eta gutxiago aspertzeko zela. Balkoietan amplifikadore eta guzti marraztu ninduen; hunkigarria izan da.

Aurrez ere sare sozialetan iaioa zinen? Jartzen zenituen zure bideoak eta zuzenekoak?

Kontzertuen berri eman izan dut eta bideoen bat edo beste ere igo izan dut sare sozialetara; bereziki, Facebookera. Baina orain arte ez dut aukerarik izan zuzeneko eskaintzeko sare sozialen bitartez. Eta ikaragarria izan da. Mundu osoarekin konektatzeko bidea eman dit; harriagarria eta aukera aparta da! Orain dela gutxi egin dudan zuzenekoan, Indiako, Indonesiako zein Australiako musikariek harremana izateko aukera izan dut. Herritarrek ere emandirenen bat prestatzeko eskatzen dabilta, eta laster sorpresaren bat izango dute.

Eskolako obra geldidago

Errege Dekretua indarrean jarri ostean, ezinbestekoak ez diren obra guzti-guztiak bertan behera geratu dira Antzuolan. Hala, Herri Eskola handitzeko obrari betebete eragin dio eta geldidago apirilaren 30era arte. "Garbiketa, desinfekzio, konponketa eta emergentzia lanak egin ditzakegu soilik", argitu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.





ALKATEAREN PARTEA

IRAITZ LAZKANO

Ez da suizidioa, sendagaia da

Hirugarren astea betetzear konfinamenduan, etxean. Hirugarren astea bestelako bizimodu batekin, arraro. Aste honek izan du, ordea, aldaketarik. Behar-beharrezkoak ez diren jarduerak ekonomikoa itxi egin behar izan dira. Berandu. Herritarrok argi dugu pandemiaren aurrean neurrikerik eraginkorrena konfinamendua dela, eta ulergaitza zen konfinamendua ezinbestekoa ez den lanpostu batera egunero joanez gero.

Funtsezkoak ez diren jarduerak gelditzea ez da medikuak errezetatutako suizidioa. Ez horixe. Egoera larrian dagoenari errezetatutako sendagaia da. Sendagaia gogorra izan liteke, gorputzari kalte egin diezaiolke, baina ezinbestekoa da. Egingo dugu aurrera! Kontuan izan behar dugu, gainera, bi aste lehenagotik daudela itxita hainbat negozio; txikiak gehienak: autonomoak, komertzioak, tabernak... Isilik, ulerkor, fakturatu gabe ere kuota ordaintzera behartuta. Astean jakin dut etxez etxe ogia saltzeagatik isuna jaso duela baserriar batek. Beste batzuk, ordea, ez ixtearren elikadurarekin zerikusia dutela edozelan justifikatu nahian. Bi erritmo, oraingoan ere.

Udaletxean ere soilik nahitaezko lanetan dihardugu. Etxetik jarduteko aukera dutenak hala ari dira. Arreta ordutegia betikoa da, baina telefonoz, posta elektronikoz edo bestelako bide telematikoen bitartez; zuzeneko arretarik ez da egongo.

Udal zergak kobratzeko epeak luzatu egin ditugu. Orain likidatutako obra-zeriga eta balio gehikuntzaren zergen ordainketa muga uztailearen 30era atzeratu dugu. Ibilgailuen zerga ekainaren erdialdetik aurrera eta ondasun higiezinena abuztu-irailean. Kirol eta hezkuntza zerbitzuekin lotutako tasak bertan behera utzi ditugu alarmak dirauen bitartean, eta urteko abonamendua eginda zutenei itzuli egingo diegu zati proportzionala.

Bizitza eta herritarrek erdigunean jarrita, orain arte egin dugun bezala, zaindu gaitezten eta zaindu ditzagun ingurukoak!

Arrain salmenta sistema berria, Guillermo Burgoak

Astean bitan etortzen da Elgetara Guillermo Burgoa arrain saltzailea, eta horrela izango da aurrerantzean ere, baina aldatetarik daude salmenta zerbitzuan. Arrandegi lanak egiteko ibilgailua alde batera utzi, eta aurrez jasotako eskaerak banatzera etorriko da hemendik aurrera.

Arraina bezeroak eskatu moduan garbitua eta prestatua ekarriko du, eta nork berea eramateko prest. Astelehenean ekin zion zerbitzu mota berriari. Whatsapp talde bat sortu du: eskaintza egin, eta eskaerak jasotzen ditu. Martitzenetan eta barikuetan egingo du banaketa Elgetan. Telefono zenbakia da: 615 00 52 63.

Ferixa Nagusiko jaietako kartel lehiaketa, martxan

Maiatzaren 8ra arteko epea zabaldu du Udalak lanak jasotzeko. Aurten, formatu digitalean bakarrik aurkeztu ahal izango dira proposamenak, eta, aurreko edizioetan moduan, herritarrek aukeratu dute irabazlea. Lanak A3 formatuan aurkeztu behar dira, danonartian@elgeta.eus helbidera bidalita, eta JPG formatuan. Gaia librea da eta lan guztietan agertu beharko dira *Ferixa Nagusiko Jaixak 2020 Elgeta* inskripzioa eta data -uztailaren 2tik 5era-. Ezin dira irudi eskubideak dituzten elementuak erabili eta pertsonak agertzen badira haien baimena aurkeztu beharko da. Argibide gehiagorako: www.elgeta.eus.

Udala, egoera berrira egokitze ahaleaginean

Aurrez aurreko arreta etenda egonda ere, udal zerbitzuak ematen jarraitzea du helburu Udalak. Telefonoz edo modu telematikoa erantzuten dituzte herritarren eskaerak. Udal zergak ordaintzeko epea atzeratzeko erabakia ere hartuta dago


Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Astelehena ezker, etxetik dihardute lanean udal langile gehienek. Pertsona bakarra joaten da udaletxera. Juan Ramon Irazabal, hain zuzen ere, eta goizez bakarrik; izan ere, arratsaldean etxetik erantzuten ditu udaletxera egiten diren deiak. Irazabalek ez duela aurrez aurreko zerbitzurik ematen argitu du Iraitz Lazkano alkateak. "Egoerak behartuta ez dugu presentziako zerbitzurik ematen. Herritarrek bi telefono dituzte edozein kontsulta egiteko: udaletxeko 943 76 80 22 eta 634 43 84 58", adierazi du Lazkanok.

Brigadak ere lanean dihardu. Bi langile dira eta astebeteko txandak egin dituzte.

Zerbitzua emateko era berriak

Alerta egoera indarrean sartzearekin batera gelditu ziren bertan behera hezkuntzarekin zein kirol zerbitzuekin lotutako aurrez aurreko saioak. Liburutegia ere itxita dago. Langile horiek etxetik dihardutela adierazi du Lazkanok. "Kiroletako monitorea saiakera egiten ari da zuzeneko spinning saio batzuk emateko. Langile hori, esaterako, telelana egiten dago". Multikirola ekin-tzako neska-mutikoak ere jarduerak fisikoa egiteko erronkak jasotzen ari dira.

Liburutegiko langileak ere etxetik dihardu lanean. Zabalik ditu komunikazio kanalak eta irakurketa proposamenak luzatzen ari da Hitzez Pitz solasaldi taldeko kideei. "Kenduta hezkuntzarekin -ludoteka-gazteleku- eta kirolarekin zerikusia duten zerbitzuak, beste guztiak "normaltasunez" funtzionatzen ari direla esango nuke. Esaterako, gizarte zerbitzuak. Ez da zerbitzu presentzialik ematen, baina beharra badago berdin-berdin artatzen da, telefonoz zein beste modu telematikoa baten bitartez".



Elgetako Udala telefonoz zein online bidez ari da arreta ematen. L.Z.L.

ASTELEHENETIK ETXETIK DIHARDUTE LANEAN UDAL LANGILE GEHIENAK, ALKATEA BARNE

Udalbatzarrak, bertan behera

Elgetako udalbatzak martxoaren 3an egin zuen azken osoko bilkura. "Epe motzean ez dugu osoko bilkurarik egiteko aurreikuspenik. Beharra balego egingo genuke, baina ez dugu ikus-

ten". Bertan behera gelditu dira, hori bai, hileroko informazio batzordeak.

Laguntza sarea, prest

Egoera zaurgarrienean egon daitezkeen elgetarrekin harreman ahalik eta erregularrena mantentzen ari direla esan du alkateak. "Dakigula, momentuz, ez dago horrelako beharrik. Dena den, hainbat herritar azaldu dira prest horrelakoetan laguntzeko, eta prest dugu dokumentu bat beharra edukiz gero sarea martxan ipintzeko".

Udal zergen ordainketa, atzeratuta

Elgetako Udalak ere neurri bereziak hartuko ditu 2020ko udal tasak eta zergak kobratzeko orduan. "Astelehenean sinatu nuen erabakia, eta martitzenean argitaratu zen", esan du Iraitz Lazkano alkateak. "Zergak ordaintzeko epeak atzeratu egingo ditugu eta kirol zein hezkuntza zerbitzuetako tasak bertan behera utziko ditugu osasun larrialdi egoera mantentzen den bitartean".

Ekainaren 30a izaten da udal zergak eta tasak ordaintzeko epemuga, eta aurten atzeratu egingo da. Hezkuntza eta kirol zerbitzuekin lotutako ordainketei dagokienez: "Martxokoa, esaterako, erdia bakarrik kobratuko dugu, eta ikasturteko abonamendua eginda zutenei bueltatu egingo diegu alarma egoeraren tarteari dagokion kopurua, proportzionalki kalkulatuta".



ALKATEAREN PARTEA

IZARO ELORZA ARREGI

Herri bizia, dabilen herria

Pasa dira jada hiru aste COVID-19 gaitzaren kutsatze arriskua murrizteko lehen neurriak hartu zirenetik. Asteburu hartan bertan alarma egoera ezarri zen: besteak beste, herriko komertzioen eta ostalaritza sektorekoen itxiera ekarri zuen horrek –ordurako, dena den, batzuek hartua zuten ixteko erabakia–. Ordutik, hainbat eta hainbat eskaera izan dira ezinbestekoak ez diren industria jarduerak bertan behera uzteko. Eta, azkenean, aste honen hasieran etorri zen hori arautzen zuen dekretua, egun baten buruan hainbat jarduera salbuesirik geratu diren arren. Hori bai, betikoa: txikiak ez dute salbuespenik usaindu. Justua da? Txikiak eta aurrera egiteko zailtasun gehiago dituztenek ordaindu behar dute beti? Hori gutxi balitz, batzuek zilegi ikusten dute herrietako azokak ixtea eta, kalte-ordainetan, nekazariei dirulaguntzak ematea. Ez da hobe azokak zabaldu daitezkeen kontsumitzaile zein ekoizleen segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea?

GURE HERRIAK, OÑATIK, HERRI IZATEN JARRAI DEZALA GURA DUGU, DABILEN HERRIA GARELAKO

aburuz, denek behar lukete izan leku bat gurean.

Egia esan behar badizu, ez naiz etxetik gehiegi irten. Udaletxera ere gutxi joaten naiz, lehenetsunezko lan batzuk egin eta berriz etxera buelta –telematikoki dihardugu, gainerakoan–. Elikagaiak erostera ere gutxitan joan naiz. Baina kasu horietan guztietan, gauza bera etortzen zait beti gogora: nolakoa izango litzateke gure Oñati merkaturik, komertziorik eta ostalaritzarik gabe? Halako zerbait, agian? Erosketa guztiak etxetik egingo genituzke; jende gutxiarekin izango genituzke aurrez aurreko berbaldiak; kaleak erdi hutsik leudeke, erdi hilik... Finean, betiereko konfinamendu moduko baterantz joango ginatke. Hori da burura datorrena. Eta egundoko tristura sartzen zait. Ba, neuk, behintzat, ez dut horrelakorik nahi. Herri bizia nahi dut, jendea bizi den herria, eta, horretarako, uste dut ezinbestekoak direla aurretik aipaturiko saltokiak eta jarduerak. Aurreko astean, Oñatiko Udaletik bat egin genuen Txandak eta beste dendari batzuek eginiko eskaerarekin, helburuen artean baitugu bertako kontsumoa bultzatzea, tokikoa. Hain zuzen ere, lehenetsunezko ez diren produktuen *online* salmenta eta banaketa bertan behera uztea eskatu zuten dendariak. Zentzuzkoa da. Herritarrak arriskuan jartzeaz gain, jarduera horiek mantentzea oso kaltegarria delako itxita dauden denda txikiendako.

Ez dakigu egoerak zenbat iraungo duen, ze ondorio izango dituen. Baina gura dugu bertako bizigarritasuna berreskuratu, eta horretarako, ezinbestekoak dira gure kaleetan dauden komertzio eta enpresa txikiak lehenbailehen aktibatzea. Udal Gobernu Taldekook badaramazkigu aste pare bat egoera aztertzen eta neurriak martxan jartzen. Bat da enpresa eta merkataritza txikiak aholkularitza zerbitzua sortzea, eguneroko informazio zurrundiloarekin eta dekretu zaparradarekin beharrezko ikusten baikenuen herritarrei eskura lituzketen laguntzen berri ematea. Neurri Ekonomikoen Mahaia ere osatu dugu. Hara eramango ditugu hainbat proposamen, hurrengo asteetan martxan jarri ahal izateko aurreikuspenez. Oñatik herri izaten jarrai dezala nahi dugula, dabilen herria garelako.

Geure nekazariei beraien produktua saltzea ahalbidetzea? Nik uste dut hori dela lehen sektoreko ekoizleek nahi dutena, horixe baita euren esfortzuen konpentsazioa eta errekonozimendua –hala adierazi digute eurek–. Nire



Oñatiko bi udaltzain herriko plazan. GOIENA

Jokaera arauak errespetatzea gomendatu du Udaltzaingoa

Orokorrean, herritarrak arduraz ari dira jokatzeko, baina hogeit hamar jarri dituzte alarma egoera ezarri zutenetik

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Udaltzaingoa jakinarazi duenez, alarma egoera jarri zutenetik hogeit hamar jarri ditu dagoeneko eta herritarrei gogorarazi gura die zeintzuk diren konfinamendu sasoi honetan bete beharreko jokaera arauak. Hiru puntu hauek ekarri gura ditu gogora Oñatiko Udaltzaingoa: erosketak etxetik hurbilen dauzkaten dendetan egin ditzatela. Bestetik, gune pribatu amankomunak –garajeak, atariak...– ezin dira erabili aisialdi jardueretarako: "Guztiz debekatuta dago. Udaltzaingoa abisuren bat jasoz gero, konprobatzera joango ginatke, eta, egiaztatuko bagenu, isuna jarriko genuke". Eta hirugarrena da txakurrak etxetik hurbilen atera behar direla, eta haien beharrek egiteko behar duten denboran bakarrik.

Portaera arduratsua dute

Gogorarazpen horrekin batera, baina, Idoia Lazpita udaltzainburua adierazi du "orokorrean" ona dela jendearen portaera: "Jarritako isunak arauak ez betetzearren jarri ditugu, bai, baina egia da orokorrean herritarrak ondo ari direla konfinamendua betetzen. Arduraz ari dira jokatzeko, eta hori zorian-tzekoa da".

Herriko kaleetan ibiltzen dira udaltzainak, oinez, baina baita autoz ere erdigunean zein landa auzoetan eta paseo tokietan. "Goizean ikusten da jendea en-karguak eta egiten, baina behin

eguerdia pasata ez da inor ikusten; arratsaldeetan, gehienetan, txakurra dutenak bakarrik. Ibilgailuekin paseo lekuetatik ere pasatzen gara, eta ez da inor ibiltzen. Eskertu egin gura nuke, eta horrela jarraitzeko gomendatu", dio udaltzainburua.

Ordutegi berria Udaltzaingoa

Alarma egoera honetan zeregin hauek dituzte udaltzainek, esate baterako: zabalik egon daitezkeen dendetan neurriak betetzen direla ziurtatu, itxita egon behar dutenak itxita jarraitzen dutela ikusi, inork baldintzaren bat betetzen ez badu kasu bakoitza aztertu eta horren arabera isuna ipini, herri barruan trafiko barruan doazenek babes neurriak betetzen dituztela konprobatu, eta, aldi berean, autoan bidaiatzearen zergatia ezagutzeko eta gazteen lokalak bisitatu barruan gazterik dagoen ikusteko. Bestalde, koronabirusagatik ezarritako alarma egoera honek irauten duen bitartean, hauxe izango da Oñatiko udaltzainen ordutegi berria: astelehenetik domekara, egunero, 08:30etik 20:30era. Gainontzeko orduetan, Ertzaintzara deitu beharko du herritarrak: 112 edo 943 53 47 20.

ALARMA EGOERAN EGUNERO EGONGO DA ZABALIK OÑATIKO UDALTZAINGOA, 08:30ETIK 20:30ERA

Kiroldegiko frontoian egingo dute gaurko odol ateratzea

Beharrezkoa da odol ateratzea, baina Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak protokoloa egokitu du, neurriak zorroztu tokian tokiko odol ateratzeak gauzatzeko. Oñatin gaur, apirilak 3, izango da odol ateratzea. Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan egingo dute, eta aurrez deituak izan diren odol emaleek soilik joan beharko dute. Ordua ohikoa da.

Olabarrieta auzoko jaiak bertan behera gelditu dira

Koronabirusaren eraginez, bertan behera gelditu dira Olabarrieta auzoko jaiak. Horrela jakinarazi du auzoko jai batzordeak. Maiatzaren 1aren bueltan egiten dira Olabarrietako jaiak, baina dagoeneko adierazi dute aurten ez direla egingo. Auzoetako lehenengoak izan ohi dira horiek. Ikusteko dago hurrengoekin zer gertatuko den.

Garbigunea goizez egongo da zabalik, gremioendako soilik

Urrutxun dagoen garbigunea goizetik egongo da zabalik, apirilaren 9ra arte, Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi duenez. Aste barruan, astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 09:00etatik 13:30era. Alarma egoerak irauten duen bitartean, baina, gremioek bakarrik erabili ahal izango dute garbigunea.

Guraso bakarreko herritarrei ere deitzen dihardu Udalak

COVID-19 gaitzak sortutako egoeran, 70 urtetik gorako herritarrei deika hasi zen Oñatiko Udala, euren laguntza ezagutzeko eta eskaintzeko. 1.800 dei baino gehiago egin ditu dagoeneko, eta jarraituko dute deitzen. Zerbitzua zabaldu, eta aste honetan guraso bakarreko familietara etxera deitzen hasi da, helburu berarekin.

Hamahiru milioi euroko gerakina utzi du 2019ak

Hamahiru milioi euroko gerakina utzi du joan den urteko likidazioak, eta aurtengo gastuak eta inbertsioak berrantolatu ditu Udal Gobernuak. Oposizioak kritikatu du ez diotela aukerarik eman parte hartzeko, eta elkarlanerako borondatea eskatu du

Oihana Elortza OÑATI

Joan den urteko ekonomia balantzea eginda, 2020ko gastuak eta inbertsioak berrantolatu ditu Udalak, eta, azken osoko bilkuran, martxoaren 26an, eztabaidatu zituzten. Hamahiru milioi euroko gerakina izan zen. Horietatik 8,3 aurtengo aurrekontuetako inbertsioetan martxan dauden azpiegiturretara, proiektuetara, txertatuko dira: kiroldegira, Araozko ostatura eta Natur Eskolara. Kiroldegirako eskatu den mailegua ordaintzeko izango da zati bat, inbertsio berrietarako ere utzi dute milioi bat euro, gutxi gorabehera, eta beste 2,6 milioi ezer zehatzetara bideratu barik gelditu dira. "Badakigu urte berezia izango dela, Udalak sarrera txikiagoak izango dituela, eta ez dakigu egungo egoerak ze premia sor dezakeen gero. Eta horretarako izan ahal da kopuru hori, sor daitezkeen behar horietarako", azaldu du Sozioekonomia batzordeburu Xabier Igartuak.

Urbietako sarrera egokitu

Osoko bilkura egiteko egunari eta orduari eutsi arren, egoerak behartuta ez zuten osoko bilkuren aretoan egin, telematikoki baizik; modu horretarako egin den lehen osoko bilkura izan da.

Xabier Igartuak berak eman zuen gerakinaren eta diru horrekin egiteko asmoa dutenaren berri. "Aurrekontuetara txertatuko ditugun 8,3 milioi horiez gain, 785.000 kiroldegiko obrak ordaintzeko eskatu dugun mailegura bideratuko ditugu. Adostu genuen 2021ean hasiko gine-la ordaintzen, baina iruditu zaigu hurrengo urteetako karga arintzen lagunduko duela aurtengoak. 1,2 milioi izango dira kreditu gehigarrietarako".

Partida berriak sortzeko ere gorde dituzte 900.000 euro. Horien artean: Urbietako sarreraren egokitzapenerako, udaletxe-



Zubikoa kiroldegia berritzeko lanak. O.E.

ALARMA EGOERAN EGONDA, OSOKO BILKURA EZ DUTE OHIKO LEKUAN EGIN, TELEMATIKOKI BAIZIK

ko ekipo informatikoak berrizteko, industrialdeetara bidegorria helarazteko eta Azkoagaingo lanei gehitzeko.

Oposizioaren kezka

Oposizioan dagoen EAJri "aurrekontuen oso gainetik" dagoen kopurua iruditzen zaio hori eta horietako proiektuetako batzuk aurrekontuetan zergatik ez zituzten sartu galdetu zuen bozeramaileak, Ainhoa Galdosek, kudeaketa aldetik "aurreikuspen eta planifikaziorik eza" leporatuz.

Gastuen eta inbertsioen berrantolaketa horren berri ez eman izana ere leporatu zion oposizioak Udal Gobernuari. "Ez dugu aukerarik izan parte hartzeko, eta informaziorik ere ez dugu jaso. Non dago transparentzia?", galdetu zuen Galdosek. Elkarlanerako borondatea ere eskatu zuen.

Anjel Biain jeltzaleak ere hitza hartu zuen bere "kezka" azaltzeko: "Gogo barik nago lanerako. Prozesu txarra izan da. Diruari dagokionez, ez genekien horrenbeste gelditu zenik. Hori gertatu da aurreko urtean egitekoak ziren inbertsio guztiak ez zirelako egin, eta norbaitek esan beharko luke zerbait horri buruz", gaineratu zuen. Izaro Elorza alkateak azaldu zuen aurrekontuak 2020ko sarrerak kontuan izanda egin zituztela, eta gero, likidazioan gelditu den gerakina kontuan hartuta egin dutela egokitzapena.

Eskertza eta doluminak

Koronabirusaren krisiak ekar dezakeen ondorio ekonomikoak arintzeko herritarren eskura jar daitezkeen laguntzen proposamenak aztertzeotan gelditu ziren udal ordezkariak.

Bestalde, alarma egoera honetan herritarrek erakutsi duten ardura eta prestutasuna aipatu zituen alkateak, eta eskerrak eman zizkien herritarrei. Egoera honetan hil diren herritarren senideei doluminak helarazi zizkien denen izenean, ezin izan dituztelako ondo agurtu.

Neurri ekonomikoen mahai berezia eratu du Oñatiko Udalak

COVID-19ak eragin dituen kalteak arintzeko neurriak hartuko ditu; dirulaguntzak eta neurri fiskalak, adibidez

O.E. OÑATI

COVID-19 gaitzak eraginda herriko hainbat sektore pairatzen ari diren kalteak arintzera bideraturiko neurri ekonomikoak zehazteko mahai eratu du Oñatiko Udalak: COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaia. Dirulaguntzak, neurri fiskalak eta bestelako laguntzak jarriko lituzke martxan. Aste honetan ziren egitekoak lehen bilera, besteak beste, sektore zaurgarrienak identifikatzeko, balizko neurriak aztertzeko edo berriak sortzeko.

Udalbatzako alderdi bietako udal ordezkariak osatzen dute mahai hau: Elorza alkatea, Igar-tua Ogasun eta Sozioekonomia batzordeburua, Zubizarreta Partaidetza eta Garapen komunitario batzordeburua, Galdos oposizioako udal bozeramailea eta Gerrikagoitia Sozioekonomia batzordeko kidea; baita hainbat alorretako udal teknikari ere –Ogasun, Sozioekonomia eta Gizarte Zerbitzuen alorretakoak–. Udal Gobernuak aurreratu du dagoeneko jarritako bide batzuk mahaira eroango dituela.

Ingurumen bekaren deialdi berria dagoeneko zabalik da

Oñatiko Udalak 12.000 euroko beka emango du ingurumena ardatz hartuta egingo den ikerketa beka burutzeko. Gaia da nekazaritzaren zein abeltzaintzaren izaera multifuntzionalari eusteko udalerrian gutxi erabiltzen diren nekazaritza lurren azterketa egitea. 2021eko abenduaren 31rako entregatu beharko du lana bekaren irabazleak.

Hau da bekarako aukeratu den gaia, zehatz: nekazaritzaren zein abeltzaintzaren izaera multifuntzionalari eusteko helburuarekin –lurraldea eta paisaia kudeatzea, ingurumena babestea, animalia-arraza autoktonoak gordetzea eta nekazaritza-gizarte eta kulturari eustea– Udalaren ondare-lursailen zein udalerrian gutxi erabiltzen edo utzita dauden nekazaritza lurren azterketa eta ekintzarako aukerak. Oñatiko udaletxean egin behar da eskabidea.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

Umeak eta irakurketa

Irakurketak hainbat onura ekartzen ditu umeen garapenarentzako, eta oso garrantzitsua da txikitatik zaletasuna sortzea. Lehenengo pausoa haurrei irakurtzea da: horrela, orrien artean abenturarako eta dibertsiorako hamaika mundu daudela konturatuko dira eta beraien barnean liburuak jakin-mina piztuko da. Nabarmena da ere bai eredu izatea eta helduok irakurtzea, umeek ikusten dutena kopiatzen dutelako.

Behin irakurtzen ikasten dutela, haien zaletasuna zehazten joango da; zorionez, gaur egun umeentzako liburuen eskaintza oso zabala da, generoan zein motan: narratiba, irudikatua, komikiak, misteriozkoak, fantasiakoak, autoestimua lantzekoak, umorezkoak...

Nolanahi ere, funtsezkoa da irakurzaletasuna modu atseginean eta ume bakoitzari egokitu sustatzea. Inoiz ez da irakurtzera derrigortzen saiatu behar, zeren Jorge Luis Borgesek esan zuen legez: "Irakurri aditzak, maitatu aditzak eta amets egin aditzak bezala, ez du agintera modua jasaten".

Herriko gazteen emanaldiak, etxetik

'Gazteak etxetik' du izena konfinamendu egoerari aurre egiteko eta herriko gazte sortzaileen lana plazaratzea helburu duen Antixena gaztetxeak antolatutako ekimenak. Horrekin batera, eguenetan entzun ahal izango den irratsaioa sortu dute

Maialen Regueiro OÑATI

Konfinamendu egoera honi aurre egiteko, eta herriko gazte sortzaileen lana plazaratzeko asmoz, *Gazteak etxetik* izeneko ekimena jarri du abian Antixena gaztetxeak. Aitor Regueiro arduratu zen ekimen honen estreinaldiaz, sare sozialen bitartez eskaini zuen zuzeneko emanaldiarekin, eta, Mikel Garai egitasmoren antolakuntzako kideak adierazi duenez, ekintza hau konfinamendu egoera amaitu arte luzatuko da. Are gehiago, apirilaren 12ra arteko emanaldiak lotuta ditzutela aitortu du hark.

Garaik azaldu bezala, egunero –eguenetan izan ezik– herriko gazte sortzaile baten, biren edo hiruren lana ikusteko aukera izango da gaztetxeak sare sozialen bitartez –Youtube, Twitter, Facebook eta Instagram–. Emanaldi gehienak aurrez grabatuta daude, baina batzuek zuzenekoak eskainiko dituzte Instagram bidez. Horrekin batera, Garaik gaineratu du emanaldi guztiak Youtuben daudela ikusgai.

Ekimenaren harrera

Antolakuntzako kideak pozik azaldu dira ekimena izaten ari den harrerarekin. Gainera, Garaik azaldu du herritar asko



Aitor Regueiro ekimen honetan parte duen artistetako bat da. AITOR REGUEIRO

KONFINAMENDU EGOERA AMAITU ARTE IRAUNGO DU 'GAZTEAK ETXETIK' EKIMENAK

sartzen direla emanaldiak ikustera eta horrek artistak gustura sentiarazten dituela.

Dagoeneko sei artisten emanaldiez gozatzeko aukera izan dute herritarrek –Aitor Regueiro, Jone eta Alex Markuleta,

Naia eta Eider Herraez, Luis Txintxurreta, Jon Etxarri eta Maider, Urko eta Lide Arregi–, eta antolakuntzak adierazi du asteburuko protagonistak Albistegi Anaiak, Haritz Olaeta eta Julen Agirre izango direla.

'Berandu eta gaizki' irratsaioa

Konfinamendu egoera honetan, Antixena gaztetxeak *Berandu eta gaizki* izeneko irratsaioa jarri du abian, non gaur egungo gaiak jorratuko dituzten. Herritarrek eguenetan izango dute irratsaioa entzuteko aukera.

'Tap' pausoa ikasteko erronka Lindy Hop elkartearen eskutik

'Shim Sham' izenez ezagutzen den tap pausu segida ikastea da Lindy Hop elkarteak proposatutako erronka

M.R. OÑATI

Lindy Hop elkarteak erronka bat proposatu die herritarrei bere sare sozialen bitartez. Helburua da konfinamendu egoera amaitzean egun bat zehaztea eta helarazi duten mezuan proposatzen den dantza guztion artean dantzatzea, baina horretarako ezinbestekotzat jotzen dute etxean praktikatzeko.

Proposamena da 20 eta 30. hamarkadetan sortu eta 80. hamarkadan, ezaguna egin zen Frankie Manningen *Shim Sham* tap pausu segida bat ikastea da.

Horretarako, aipatutako mezuan bi bideoren loturak utzi dituzte erronka honetan parte hartu nahi duten herritarrek eskuragarri izan ditzaten. Batean, tap pausua gutxika azaltzen da eta bestean, koreografia osoa ikus daiteke, musika eta guzti. Modu horretan, konfinamendu egoera honek irauten duen bitartean, herritarrek *Shim Sham* tap pausu segida etxean praktikatu ahal izango dute. Horrekin batera, elkarteak adierazi du, elkarte-ko eguna eta ordua sare sozialen bidez jakinaraziko dela.

Erraldoia egiteko tailerraren bideoa jarri du eskura Oñatzek

Erraldoiaren burua etxetik egiteko bideo ikastaroa helarazi du Oñatz Dantza taldeak sare sozialetan

M.R. OÑATI

Oñatz Dantza taldea 50. urteurrena ospatzen ari da, baina krisi egoera honen ondorioz, antolatuta zituzten hainbat ekintza bertan behera utzi behar izan dituzte. Martxoaren 15ean, esate baterako, 300 haurrekin ekintza ludikoak egitea zen asmoa, egun osoko jai batean, baina, egoerak hala eskatuta, ezin izan zuten egunaz gozatu. Maiatzerako egitarauan, erraldoia egiteko tailerra zeukaten aurreikusita, eta konfinamendu egoerak hau ere "hankaz gora"

jarri die Oñatzekoei. Hala ere, dantza taldeko kideek lanean jarraitu dute eta, sare sozialei esker, aurreikusita zegoen erraldoia egiteko tailerra beste modu batera egitea pentsatu dute.

Gauzak horrela, euren sare sozialetan erraldoia etxetik egiteko bideo ikastaroa helarazi diete herritarrei. Lehenik, burua egiteko beharrezkoa den materiala zein den jakinarazi dute –kartoia, egunkaria edo ura, besteak beste–, eta ondoren, jarraitu beharreko pausoak ikus daitezke bideo horretan.

Aurrerantzean, Potx eta Lotxen 'Etxean' saioa sarean ikusgai

Potx eta Lotxek duela urtebete inguru estreinatu zuten *Etxean* ikuskizuna eta hainbat emanaldi egin dituzte. Baina pailazoek asteen jakinarazi dute gaur 15:00etatik aurrera herritar guztientzat eskuragarri egongo dela euren azken lana. Izan ere, *Etxean* ikuskizuna *Algaraz ikuskizunak* izeneko Youtubeko kanalean estreinatuko dute eta pailazoan


helburua da herritarrek umoreaz gozatzeko.

Etxean ikuskizuna sarean estreinatzearekin batera, euren ikuskizunetako bideo, pasarte edota pertsonaia bat aukeratu eta imitatzeke proposamena egin diete Potx eta Lotxek jarraitzaileei. Horrekin batera, jarraitzaileek egingako imitazioa grabatzeko eta *potxetalotx@gmail.com* helbide elektronikora bidaltzeko eskaera egin dute pailazoek. Bidalitako bideoen artean sariak banatuko dituzte.




EIDER ETA NAIA HERRAEZ
MUSIKARIAK

"Bi aldiz pentsatu gabe onartu genuen erronka. Ez genekien zein kanta abestu, baina lortu genuen egitea. Pozik gaude jasotako erantzunarekin".



LUIS TXINTXURRETA
MUSIKARIA

"Herriko arlo kulturalari ekarpenak egiten dizkio ekimen honek. Oso gustura aritu naiz eta, gainera, herritarren erantzuna sekulakoa izan da".



JON ETXARRI
MUSIKARIA

"Ekimen honek monotonia honi beste kutsu bat ematen dio. Erronka pozik onartu nuen eta nire saltsan aritu nintzen, herritarrek entretentzen".

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pesealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Irabalbarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Oñatiko Fagor Industrial lantegia, atzo, aparkalekua hutsik duela. MIREN ARREGI

Miren Arregi ARRASATE

COVID-19 gaitzaren krisia hasi zenetik hainbat neurri hartu dituzte erakundeek gaitzaren zabalkundea gutxitze aldera, eta honako aste hau ekonomian eta industria jardueran eragin handia izan duten erabakiekin hasi zen. Eztabaida eta kontrako irizki gehien piztu dituen erabakia joan den zapatu gauean eman zuen aditzera Espainiako presidente Pedro Sanchezek. Agerraldian, "funtsezkoak ez diren jardueretan" ari diren langileek etxean geratu beharko dutela agindu zuen, mugikortasuna murrizteko helburuarekin. Neurriak apirilaren 9ra arte iraungo du indarrean; hots, zortzi lanegunetan. Bi asteen lanera joatea galarazita izango dute, "ordainpeko baimen berreskuragarria" deritzona bideratuko du Madrilek. Hau da, lanera joan gabe kobratzen jarraituko dute eta zortzi lanegun horiek 2020ko abenduaren 31 baino lehen berreskuratu beharko dira; enpresaren eta langileen ordezkaritzaren artean negoziatuko da horretarako modua.

Erreakzioak, berehalakoak

Dekretuaren gaineko erreakzioak berehala iritsi ziren agintarien, politikarien, sindikatuen zein Confebask patronalaren eskutik. Eusko Jaurlearitza kezka handiz hartu zuten erabakia. Ajuria Enetik, lehendakari Iñigo Urkullu Espainiako Gobernuko presidente Pedro Sanchezekin ha-

Industriarendako asterik zailena

Espainiako Gobernuak joan den zapatuan iragarritako dekretuak eragin itzela izan du Debagoieneko industria-enpresatan, asko eta askok ekoizpena eten behar izan baitute. Neurriak, gainera, aurretik ere gori-gorian zegoen eztabaida are gehiago piztu du

rremanetan jarri zen, eskatzeko erkidegoek izan zezatela zein sektorek itxi eta zeintzuk ez erabakitzeko eskumena. Arantza Tapia Ekonomia sailburuak, gainera, erabakia "disparate" handia dela esan zuen eta komunitate bateko industria ekoizpena ezin dela modu horretara gelditu gaineratu zuen, lurralde horretako "industri-ehunaren ezaugarriak kontuan hartu gabe". Confebaskeko Eduardo Zubiaurre ere oso haserre azaldu zen; haren ustez, "euskal enpresen jarduerari kalte itzelak eragingo dizkio, eta krisia areagotu eta

"EPE MOTZEAN ARDURA NAGUSIA DA BEZEROEI ARAZO LARRIRIK EZ SORTZEA"

PELLO TXINTXURRETA, METAGRA

errekuperazioa nabarmen zailduko ditu". EH Bilduk eta ELA eta LAB sindikatuek neurria txalotu bazuten ere, berandu zetorrela nabarmendu zuten. Honela zioen Arnaldo Otegi domeka gauean telematikoki egindako agerraldian: "Inprobisatzen ari diren sentsazioa dugu, Madril eta Gasteiz berandu eta gaizki ari direla. Baten batek esango dit eskuduntza ez dela gurea, baina herri honetan sor genezake alderdi politikoak, sindikatuak eta bestelako eragileak batuko dituen mahai bat; erantzukizunagatik eskatzen dut". ELA eta LAB sindikatuek ere neurri ona dela azaldu zuten, uste baitute osasun publikoa lehenesten duen eta normaltasuna azkarrago berreskuratzea ahalbidetuko duen neurria dela. Hala ere, berandu etorri dela ere salatu dute.

"Funtsezko jarduerak"

Espainiako Gobernuaren dekretuak zehazten dituen funtsezko jardueretan sartzen dira, besteak beste, garraioa, aduanak, energia, petrolio eta gas hornidura bermatzeko beharrezkoak diren lanpostuak eta azpiegitura kritikoetakoak; premiazko ondasun eta zerbitzuen —jakiak, edariak, animalientzako elikagaiak, garbiketa produktuak, botikak, osasun produktuak— ekoizpena eta banaketan lan egiten dutenak; osasun teknologiaren eta materialen nahiz erietxeetako ekipamenduen ekoizpen

"ARAU APLIKATU BAINO 24 ORDU LEHENAGO ESATEA EZ DA SERIOA"

JOSEBA BILBAO, LKS NEXT

katean eta banaketan lan egiten dutenak; garraioan lan egiten dutenak; osasun zentroetako langileak, eta adinekoak, adingabeak eta mendekotasunen edo ezgaitasunen bat dutenak artatzen dituzten zentroetako beharginak baita COVID-19ari aurre egiteko ikerketa eta garapen zentroetan lan egiten dutenak ere, eta horiei zerbitzuak ematen dizkieten enpresen gutxieneko zerbitzuak; hileta zerbitzuetako beharginak; finantza zerbitzuak, bankuak, aseguruak eta inbertsioak, ezinbestekoak diren zerbitzuak emateko soilik; genero indarkeriaren biktimak babesteko eta artatzeko zerbitzuei lotutakoak; ur horniduran, depurazioan, garraioan, arazketan eta saneamenduan lan egiten dutenak, edo prentsa eta komunikabideak saltzen, inprimatzen eta banatzen lan egiten dutenak.

Ondorioak industria-lantegietan

Dekretua iragarri ostean, itxialdira egokitzeko 24 orduko epea eman zien "oinarritako jardueratarata" dedikatzen ez diren enpresei. Hain zuzen ere, horietako askoren ikuspegitik "azkarreri eta modu nahasian" hartutako erabakia izan da. Mondragoneko LKS Next aholkularitzako arduradunen iritzia da hori, besteak beste. "Aplikatu baino 24 ordu lehenago izaera eta garrantzi horretako neurriak iragartzea eta hori arautzen duen araua aurreko gauean argitaratzea ez da serioa. Egun batzuk lehenago abisatzeak, esaterako, aukera emango zukeen enpresa bakoitzaren errealitatea neurritara egokitzeko.", dio bertako Joseba Bilbaok. Eusko Jaurlearitza eta patronalek gogor kritikatu eta sindikatuek babestu duten dekretuak erakuntzan eta industrian eragin du bereziki, eta, aurrez esan moduan, Debagoieneko ehun industrialaren zati handi batek itxi behar izan ditu atea. "Duela bi aste, %80ko jardueraz hitz egiten genuen, duela astebate %50ekoaz. Gaur egun, enpresa asko %50etik behera daude", dio LKS Next-eko Joseba Bilbaok. Esan moduan, asko izan dira euren jarduna eten behar izan duten enpresak: Oñatin, esaterako, Betikek, ULMA Packagingek eta Natrak soilik jarraitu ahal izan diote ekoizpenari. Fagorren, esaterako, gehienak gelditu dira; hori da, besteak

beste, Fagor Automationen kasua, nahiz eta funtsezko jardueretara bideratutako zerbitzuetan gutxieneko ekoizpena mantendu duten. Egoera bera dute Ederlanen ere. Bergaran, TTTk, Lazpiurrek, Tornilleria Debak, Soraluze Koop-ek eta Ecnarro Koop-ek eten egin behar izan dute jarduna. Baita automoziora dedikatzen den Metagrak ere. "Ez da bidezkoa neurria hartu zen bezala hartzea. Zapatu arratsaldean prentsurrekoan jakinarazi, domeka gaueko hamabietan BOEn publikatu eta ordu berean indarrean sartzea", dio enpresako zuzendari Pello Txintxurretak. "Domeka arratsaldean zortzi-bederatzi zirriborro ibili ziren bueltaka eta, azkenik, dekretua erabat diferentia izan zen", erantsi du. Txintxurretaren hitzetan, nahasmen handia eragin zuen dekretuak: "Gure kasuan, esaterako, zapatu arratsaldean garbi geneukan enpresa itxiko zigutela. Domekan, eta zirriborro horietan oinarrituta, lanean jarraitzeko aukera ikusi genuen, eta, azkenik, ezetza berriro". Fagor Automation-eko presidente Aitor Irurek azaldu duenez, "egoera ikusita alde batetik ulertzen" du horrelako neurriak hartu behar izana, baina euren uste zuten martxan ezarritako segurtasun protokoloak ondo zaindaz gero bateragarri zela bazkide langileen osasuna bermatzea eta lana mantentzea. "Tristura handiz gelditu dugu lana; eskaerak bazeuden, lana bazegoen, eta gelditzea gogorra izan da".

Lantegiak ixteak izan dezakeen ondorioen gainean, Metagrako zuzendaria ere oso kezkatuta azaldu da bezeroa galtzeko duten arriskuarekin: "Guk Espainian bezero gutxi dauzkagu, gure salmenten %20 baino ez dira hara bideratzen, bezero horiekin ez dago horrenbesteko arazorik, gure egoera berean daudelako, baina nazioartekoekin izan ditzakegu arazoak. Epe motzean ardura nagusia da bezeroei arazo larririk ez sortzea. Bidali diegu karta bat nolabait egoeraren berri ematen eta nolabait ere babestuak izan gaitezten eskatzen; dena den, berehala erantzun digute eskaerak ez dituztela onartzen eta gure betebeharrak betetzeko esanaz". Gainera, automobilen salmentak 2020 eta 2021ean izango duen bilakaeraz ere ardura handia

"Ekonomia eta osasuna ez dira kontrajarriak, gauzak ondo eginda"

EDUARDO ZUBIAURRE CONFEBASK-EKO PRESIDENTEA

Confebaskeko presidentea oso haserre azaldu da joan den zapatuan Espainiako Gobernuak iragarritako dekretuarekin.

Gogor eta haserre azaldu zara Pedro Sanchezen azken neurriekin. Nola baloratzen dituzu?

Bai, benetan oso kaltegarria da herri bat guztiz ixtea, eta, bereziki, egin zen moduan, alde aurretik jakinarazi gabe, asteburu batean, zirriborroak etengabe aldatuz, ikaragarriko anabasa eta kezka sortuz. Benetako disparte. Sinistu ezinezko arduragabekeria.

EAEn neurri horiek izan dezaketen eragina handiagoa da beste erkidego batzuetan izan dezaketena baino?

Denetan da larria, baino enpresa industrialetako prozedurak eta konpromisoak beste sektoreetakoak baino konplexuagoak dira eta egokitze zailagoa dute.

Zein ondorio ekarriko dituela uste duzu?

Kaltea beti dago: zenbat eta luzeagoa izan geldinean, orduan eta handiago. Baina okerrena



EDUARDO ZUBIAURRE

da lan egiteko aukera galtzea eta bezeroei zerbitzu eskasa ematea. Bereziki, mundu osoko lehiakideak irekita daudenean. Baita Italian ere, industria jarduera gehiena lanean ari da eta.

Ekonomia eta osasuna kontrajarritu daude?

Biak dira bateragarriak, baldin eta gauzak ondo egiten badira. Eta hori da guk aldarrikatzen duguna: lehenengo osasuna, eta, bateragarri eginez, lana.

Posible zuten industriak eta eraikuntzak aurrera jarraitzea segurtasun neurriak aintzat hartuta?

Bai, zalantzarik gabe. Lan prozedurak daude lan baldintzak seguruak izan daitezten.

Europako Batasunaren jarrera nola baloratzen duzu?

Europak elkarri laguntzeko aukera hau galtzen badu, agerikoa da bere amaieraren hasiera izan daitekeela.

erakutsi du, aurreikuspen baikorren arabera %15 eta %20 arteko jaitsiera espero baita sektorean. Fagor Automationen kasuan ere, kezka handia dute bezeroak hornitu ahal ez izateaz. "Gure lehiakide alemanak lanean ari dira eta gu ematen ari ez garen zerbitzua beste batzuek emateko arriskua dago".

Enpresak irekitzeko aukera

Astelehenean enpresek itxierak antolatu ostean, dekretuaren interpretazioak eta enpresek debekuan zirrikituak zabaldu

"ESKARIA BAZEGOEN ETA LANA ERE BAI, GOGORRA IZAN DA GELDITZEA"

AITOR IRURE, FAGOR AUTOMATION

ahal izateko saiakerak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila argibide-ohar bat kaleratzera behartu zuen martitzenean. Besteak beste, "ezinbesteko gutxieneko jarduera" honela definitu du Jaurlaritzak: "Enpresari barne-egoera optimoa eta ekoizpen-jarduera nahikoa mantentzea ahalbidetzen diona, eta jarduera ixtea eragin dezaketenean egoera traumatikoak saihestea ahalbidetzen diona".

Jaurlaritzaren oharra industria elektointentsiboari ere egin zion erreferentzia "bereziki garrantzitsua" EAEn: "Sistema elektrikoaren hornidura eta egonkortasuna bermatzeko beharrezkoa den industria elektointentsiboa ezinbestekoa izango da; horren barruan agertzen dira, besteak beste, metalurgia

"Komunitate zientifikoari kasu egitea besterik ez zegoen"

AMAGOIA LASAGABASTER ELA

Euskal sindikatuek behin eta berriz eskatu dute azken asteetan jarduera ez funtsezko guztiak eteteko neurria.

Nola baloratzen duzue Espainiako Gobernuaren azken dekretua?

Guretzako albiste ona izan da Estatuko Gobernuak funtsezkoak ez diren jarduerak gelditzeko erabakia hartu izana, nahiz eta lehenago hartu behar zela uste dugun. Komunitate zientifikoak esandakoari kasu egitea besterik ez zegoen.

Jarduera ekonomikoa lehenetsi da orain arte? Horrek ze sentsazio eragin ditu langileriarengan?

Lehentasuna izan beharko luke hasieratik koma sanitarioa saihestea, eta ez balizko koma ekonomikoa.

Eusko Jaurlaritzak aktibitate guztia ez etetearen alde egin du. Zela baloratzen duzue hori?

Ez dakigu etorkizunean ekonomia nola egongo den, baina uste dut agerikoa dela



AMAGOIA LASAGABASTER

birus hau ez badugu gelditzen ekonomia oraindik ere egoera traketsagoan egongo dela. Ez ditugu Eusko Jaurlaritzaren erabaki ugari ulertzen, ardura gutxi erakutsi dute. Osasun publikoa lehenetsi behar da normaltasunera ahalik eta azkarren bueltatzeko.

Enpresa askok eta askok jo dute ERTEetara. Zer ekarriko diote erabaki horiek langileari?

ERTE batek kontratua eten egiten du, baina inoiz ez du bertan behera uzten. Hortaz, noski, alarma egoeratik ERTEa ezarri dieten langile guztiek hau pasatakoan lanera itzuli beharko dute.

Etorkizunarekin lotuta, zein da zuen kezka nagusia?

Langileek ez dezatela ordaindu oraingoan ere krisiak eragindako kalte guztia. Amesgaizto hau pasatzerakoan, beharrezkoa den trantsizio produktibo, sozial eta ekologikoari heldu behar diogula uste dut, lehenbailehen.

eta burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuen fabrikazioa". Argibide horien ondoren, esaterako, Oñatiko Garay enpresak martxan jarri ditu makina batzuk, lan egitera baimendutako bezero jakin bat hornitzeko ekoizpena ziurtatzera bideratutakoak.

Aldi baterako etenak

Aste honetako dekretuaren aurretik ere, COVID-19aren krisiak eraginda, hainbat eta hainbat enpresak itxi zituzten ateak eta aldi baterako lan-erregulazio espedituek (ERTE) iragarri zituzten. EAEn asko izan ziren aukera hori egin zutenak; besteak beste, Oñatiko Hijos de Juan de Garay enpresa da adibide. ERTEan dauden pertsonen kontratua etenda dute, eta langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute

epe horretan zehar. Aldi baterako lan-erregulazio espedituek eragin duen egitatea amaitzean, lan kontratua bere horretara bueltatuko da; beraz, langilearen postua mantendu beharko litzateke. Lankideak kotizazio oinarriaren %70 jasoko du lehen sei hilabeteetan, eta %50 zarpigarren hilabeteetik aurrera. ERTE egoerak dirauen bitartean ez da opor eskubiderik sortzen eta langabeziagatiko prestazioa jasotzen den denbora ez da kontuan izango etorkizunean, eta, beraz, ez da langabezia kontsumitzen.

Kooperatiben egoerarekin lotuta esan behar da ERTEak besteren konturako langileei aplikatzen zaizkiela. Beraz, kooperatibek lan-kontratuko langileak badituzte –bazkide ez direnak–, beste edozein enpresak bezala ERTE bat eska dezakete.

Xabier Urzelai ARRASATE

Badira hiru aste liga txapelketak eten zituztenetik, eta motibazio handiagoarekin ala txikiagoarekin, baina jokalariek euren etxeetan jarraitzen dute entrenatzen. Sare sozialei esker, badira lan-saioak batera egiten dituztenak, eta gehienek dute galdera bera buruan: "Zelan amaituko dugu liga?". Izan ere, denboraldiko azken txanpan sartuta daude denak, eta batzuen kasuan gatzik eta berakatzik gabeko ikasturtea izan badabil ere –sailkapenaren erdian daudelako, ez aurrera eta ez atzera–, badira helburu konkretuengatik borrokan dabilzanak, liga irabazteko puntuan daudenak, ala maila galtzeko zorian daudenak. Eta horietako batzuekin egon da GOIENA.



Mondragon Unibertsitateko jokalaririk Atxa, Pas Pielagosoren kontrako partiduan, kontrarioz inguratuta. GOIENA

JULEN BARRUTIA

ARRASATE RUGBY TALDEKO
ENTRENATZAILEA

"Lau partidu geratzen zaizkigu denboraldia borobiltzeko"

Arrasate Rugby Taldeko mutilek ligan jokatu dituzten hamasei partiduak irabazi egin dituzte, eta lau norgehiagoka geratzen zaizkie helburu nagusia lortzeko, Euskadiko Txapelketako lehen mailara igotzea: "Baina ez dakigu zelan amaituko den hau guztia. Espainiako lehenengo mailan, esaterako, liga datorren urtera arte bertan behera utzi dute, baina gainontzeko kategorietan oraindik ez dute ezer esan, eta guri Federazioak ere ez digu ezer esan. Uste dut eurak ere zain daudela, oraindik goiz dela erabakia hartzeko".

Hala, garbi dago aurtengo liga bertan behera uztea erabakitzen badute Arrasate Rugby Taldea oso talde kaltetua izango litzatekeela: "Guk datorren urtean Lehenengo Mailan jokatu gura dugulako". Eta, bestalde, Barrutiak garbi dauka geratzen diren lau jardunaldi horiek jokatzeko denboraldi-aurre txiki bat egin beharko luketela: "Errugbia kontaktuzko kirola da, eta jendea etxean entrenatzen badabil ere, ez da gauza bera. Jokalarien artean seguru batzuk fin-fin ibiliko direla bidaltzen dizkiegun ariketa guztiak egiten, eta beste batzuk ez direla horren fin ibiliko, baina etxerako lanak

Orain artekoak balioko du?

Ligak bertan behera geratu diren honetan, talde guztietako jokalariek etxean airi dira entrenatzen. Baina inork ez daki aurreratzen ligak ostera ere berrekingo dituzten, eta hala bada ze baldintzatan izango den. Eta orain arte egindako lanak balioko du?

ondo eginda ere, zuzenean lehiaketara itzultzen bagara ez da askorik behar jokalariek min hartu dezaten; hainbat entrenamendu saio egin beharko genituzke hasi aurretik".

OLATZ LEGARDA

LEINTZ ARIZMENDI FUTBOL TALDEKO
KAPITAINA

"Liga irabazteko lanak nahiko bideratuta utzi genituen"

Leintz Arizmendi futbol taldeak emakumezkoen Ohorezko Erregional mailan ez du kontrarioz izan, jokatuak 22 partiduetatik 19 irabazi ditu eta. Tolosa da sailkapenean gertuen dagoen taldea, eta pentsa, zortzi puntura dago. "Lau partidu geratzen zaizkigu, eta denetik entzun

dugu: partidu horiek jokatu egingo ditugula, liga dagoen moduan amaituko dela... Baina inork ez du jakinarazpen ofizialik eman", dio taldeko kapitain Olatz Legardak.

"Pena izango litzateke horrela amaitzea, jokalariorik jokatu gura dugulako". Eta penagarriagoa izango litzateke orain arteko lan guztia, 22 jardunaldi, ezerezean geratzea. Baina hori ez dago euren esku: "Gu etxean bagabiltza ahal dugun moduan entrenatzen, baina baliabideak ere ez dira aproposenak. Hala, garbi dago kirol munduan sartuta gaudenondako geldialdi hau ez dela batera ona, orain arteko dinamika eten dugulako. Eta ostera ere liga berrekin beharko bagenu garbi dago egokitzapen txiki bat beharko genukeela. Baina, azken batean, datorrenarekin aurrera egingo dugu".

ARATZ KORTAZAR

ESKORIATZAKO ARETO FUTBOL
TALDEKO JOKALARIA

"Ezingo gara berehalakoan hasi, esprint bat nahikoa da min hartzeko"

Eskoriatza areto futbol taldekoen aspaldiko ametsa izan da maila nazionalera igotzea, eta helburua lortuta, modu *xelebrean* osatu behar dute denboraldia: "Eta erretiroa hartzeko asmoa genuenok ere ez dugu amaiera txukuna izango", dio umorea galdu ez duen Aratz Kortazarrek. GOIENAREN deia taldekideekin batera entrenatzen zebilela jaso du kapitain eskoriatzarrak: "Indar ariketak eta halakoak elkarrekin egiten ditugu, sare sozialak erabilita, eta bueno, egia da lana entrenigarriagoa dela horrela".

Taldearen egungo egoerari dagokionez, Eskoriatza mailari eusteko borrokan dabil, baina atzetik beste lau talde ditu: "Oraingoz, ez gaude arriskuan, baina ez dakigu liga zelan amaituko dugun, ekainean eta uztailean jokatzeko jarraituko dugun, geratzen diren partiduak irailera atzeratuko dituzten... Taldekideok atzo bertan izan ginen gauza hauetaz guztiez berbetan, eta inork ez du informaziorik. Garbi dagoena da nahiz eta etxean ariketak egiten ibili, hilabetez etxean egon eta gero ezingo ditugula partiduak segituan hasi, esprint bat egitea nahikoa da eta lesionatzeko".

ENDIKA RUIZ

ALOÑA MENDI FUTBOL TALDEKO
ENTRENATZAILEA

"Liga ezerezean uzten badute, kolpe handia hartuko nuke, lan handia egin du taldeak"

Oñatiko futbol talde nagusiaren azken urteotako helburua mailaz igotzea izan da, Ohorezko Erregional mailara itzultzea, eta aurtengo txankikuarrak sekulako denboraldia egiten dabilta. Erregional preferenteko lehenengo postuan daude, eta zazpi puntura dute bigarren sailkatu Lagun Onak taldea. "Baina ez dugu ideiarik ere hau guztia zelan amaitu behar den. Espainiako Futbol Federazioaren nahia da ligak amaitzea, baina bereziki futbol profesionalera begira dihardute hori esaten, diru asko dagoelako jokoan; gureak moduko kategoriak ez dira lehenetasuna", dio Aloña Mendiko entrenatzaile Endika Ruizek.

Kategoria horretan zortzi partidu geratzen zaizkie liga amaitzeko, eta Ruizek uste du posible dela horiek jokatzeko: "Hilabete eta erdian liga amaituta izango genuke; partidu batzuk aste barruan jokatu behar badira, bada, aurrera, ni prest nago uztailean ere jokatzeko. Izan ere, abuztuaren 14an hasi ginen lanean eta hilabete asko egin ditugu lanean gauden lekuraino iristeko. Uste dut liga amaitzea dela guztiondako justuena, liga dagoen moduan amaitzea ez litzateke eta beheko postuetan daudenondako batere justua izango. Eta bestalde, liga hau ezerezean uzteak sekulako

mina egingo liguke; nik, behintzat, kolpea hartuko nuke. Egia da garai hauetan osasuna dela lehentasuna eta beste guztia bigarren mailan geratzen dela, futbola baino ez da, baina hona iristeko lan handia egin dugu azken urteotan".

SILVIA MARTIN

ESKORIATZA SASKIBALOI TALDEKO KAPITAINA

"Orain jokatu behar genituen kontrario zuzenen kontra partidu erabakigarriak"

Eskoriatzako saskibaloitza taldea sailkapenaren azken postuan dago. "Urte gogorra daramagu. Entrenatzaile aldaketa izan genuen, eta ordutik dinamikaz erabat aldatu badugu ere, sailkapenean azken postuan gaude. Horrenbestez, aurtengo liga bertan behera geratzen bada eta datorren urtean hutsetik hastea erabakitzen badute, guretako ez da erabaki txarra izango", dio Silvia Martinek umorez.

Hala ere, oraindik eskoriatzarreri sei partidu geratzen zaizkie liga amaitzeko, eta euren esku dago jaitziera postuetatik ihes egitea: "Aukerak ditugu horretarako. Dagoeneko jokatu dugu talde gogorrenen kontra, eta orain jokatu beharreko partiduak kontrario zuzenen kontrakoak ziren; hau da, gure moduan mailari eusteko borrokan dabilzanen kontra. Eta nik uste dut irabazteko moduko partiduak direla. Baina ikusiko dugu hau guztia zertan geratzen den".

IÑAKI OGARA

MU SASKIBALOI TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Susmoa dugu ligei ez dietela osterera berrekingo, oso zaila da eta"

EBA kategorian Mondragon Unibertsitatea sekulako denboraldia egiten zebilen, duela hiru aste dena hazkaz gora geratu zen arte. Hala, orain momentuan MU kategoriako lehenengo postuan dago, Megacalzado Ardoik eta Arha Hotelesek duten puntu kopuru berberarekin (37), baina partidu bat gutxiago jokatu: "Baina egoera honetan saskiba-



Julen Barrutia.



Olatz Legarda.



Aratz Kortazar.



Endika Ruiz.



Silvia Martin.



Iñaki Ogara.



Olatz Kortabarria.



Josetxo Muniategi.

loia bigarren mailan geratu da, jendearen osasuna da lehentasuna".

Etorkizunera begira, entrenatzaile gasteiztarrak zail ikusten du ligari jarraipena ematea: "Hori da klubetako ordezkariok dugun susmoa, baina ez dago berri ofizialik. Talde askotako jokalariek atzeritarrak euren etxeetara itzuli dira; hori da, esaterako, gure taldekide Zachen [Kirschbaum] kasua. Egoera aztertu genuen jokalariekin batera, eta ikusi genuen onena zela Zach AEBtara itzultzea, familiakoekin egotera. Beñat [Barberena] berriz Txinara itzultzekoa zen, baina, azkenean, Arrasaten geratu da".

Hala, Ogarak espero du federazioetatik irtenbide bat emango dutela: "Ez dut uste kategoriari eusteko borrokan dabilzan taldeendako oso justua denik liga horrela amaitu eta maila galtzea, baina uste dut aurrealdean borrokan gabilzanendako soluzioak badaudela, formatu bereziko txapelketa bat antolatzea... Liga irabazteko borrokan gabilza, eta orain arte egindako lanak zerbaitetarako balio beharko luke".

Hori horrela, jokalariek etxean prestaketa lanetan dihardute: "Baina lan horiek eginda ere jokalariek batek kantxa ukitzen ez duenean... Galera handia egoten da hor. Ikusiko dugu ze irtenbide ematen diogun honi guztiari; oraingoz, egon gaitezen denok lasai etxean".

OLATZ KORTABARRIA
CONSTRUCCIONES ALOÑA MENDI
ESKUBALOI TALDEKO KAPITAINA

"Atzetik hiru talde daude; oraingoz, salbu egongo ginateteke"

Euskadiko Txapelketan mailari eusteko borrokan dabil Construcciones Aloña Mendi. "Hiru jardunaldi geratzen zaizkigu liga amaitzeko eta sailkapenean gure atzetik beste bi talde ditugu; horrenbestez, liga horrela amaitzea erabakitzen badute,

uste dugu salbu egongo ginatetekeela", dio taldeko kapitain Olatz Kortabarriak.

"Hala ere, goiko kategorietan gertatzen denak eragina izango luke gurean ere; horrenbestez, ikusi egin behar. Baina ez dugu inolako informaziorik, eta uste dugu hiru partidu horiek jokatzen baditugu kategoriari eustea gure esku egongo litzatekeela, partidu horiek irabazteko kapaz gara", dio. Baina, inolako informaziorik ez daukatenez, Kortabarriak garbi dauka egin beharrekoa: "Etxean entrenatzen

jarraitu, partidu horiek jokatzen eskatzen badigute ahalik eta ondoen egoteko".

JOSETXO MUNIATEGI

SORALUCE BERGARA ESKUBALOI TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Hola amaitzen bada, kategoria galduko, genuke seguruenik"

Soraluce Bergara eskubaloitza taldea iaz igoera fasera sailkatzeko kapaz izan zen, eta aurtengo txanponaren beste alde bizitzea egokitu zaio, mailari eusteko borrokan dihardu eta. Bergararak sailkapenaren atzealdeko postuetatik ihes egiteko borrokan dabilza, eta atzetik beste hiru talde badituzte ere, taldeko entrenatzaile Josetxo Muniategi uste du ez liekeela batere mesederik egingo liga dagoenetan amaitzea: "Uste dut gure ligan lau talde jaitziko direla eta, oraingoz, hor gaude; goiko kategorietako karanbolek ez ligu-kete batere mesederik egingo".

Hala ere, bergararak ez daki zer gertatuko den: "Antza, Euskadiko Federazioko presidentek esan du igoerak eta jaitzierak egon egongo direla, hau da, ez dela urtea hutsean geratuko, baina ez dakigu geratzen diren lau jardunaldiak jokatuko ditugun ala ez. Gainera, ekainean jokatu behar badugu, baliteke ordurako Labegarrietan obrak hasita egotea".



Leintz Arizmendiko Etxeandia, Touringen kontrako partiduan. GOIENA

"Harremani buruz da; nerabeentzat, bereziki"

OIHANA ARANA IDAZLEAI

'Urruzunotarrak gehituz' sariketaren laguntzarekin 'Portuak' nerabeentzako eleberria idatzi du eskoriatzarrak; Ilargi, protagonista, sare sozialetan aurkezten ari dira orain

Aitziber Aranburuzabala ESKORIATZA Bertsolari moduan eskarmentua duen Eskoriatzako gaztea liburu idazten estreinatu berri da. Iazko *Urruzunotarrak gehituz* lehiaketan irabazi zuen beste hainbat lehiakiderekin eta Fernando Morillo idazlearekin batera astebeteko egonaldia; eta handik jaino da *Portuak* eleberria. **Zeri buruzkoa da?**

Nerabeentzat pentsatutako eleberria da, edonork irakurtzeko modukoa den arren. Nerabezaroaren gorabeherak eta bereziki nerabezaroan garatzen diren harremanak dira ardatz nagusia; izan ere, garai hori harremantzen ikasteko eta harremantzeko moduak aldatzen ikasteko garaia dela uste dut. Hortaz, protagonistak bere gorputzarekin, inguruko lagun eta senideekin, heriotzarekin eta bere buruarekin dauzkan harremanetan oinarritu naiz eleberria idazteko orduan. Horrez gain, portuak ere azaltzen dira une oro; hortik izenburua, Ilargi protagonistak oso harreman berezia baitu bere Aitona Matiasekin, eta harekin duen loturetako bat zera da: portuekiko duten obsesioa.

Zerk bultzatuta idatzi duzu?

Urruzunotarrak gehituz literatura ekimeneko sarituetako bat izan nintzen iaz, eta, astebetez,



Oihana Arana etxean idazten. OIHANA ARANA

"ISTORIA NIK IDATZI DUT, BAINA LIBURUA EZ DA BAKARRIK NIREA; ATZEAN JENDE ZORAGARRIA DAGO"

beste sarituekin eta Fernando Morillo idazlearekin batera egonaldi itzela egin genuen. Egun ederrak izan ziren, non literaturaren hainbat esparru ezberdin lantzeko aukera izan bainuen, inguru ederrean eta kide pare-

gabeekin batera. Egonaldia amaitu berritan, Fernando Morilloren deia jaso nuen eta proposamena egin zidan; iazko irailaren hasieran izan zen deia, eta aurtengo otsailerako bukatura neukan jada.

Zelan izan da idazte prozesua?

Gogorra bezain polita izan da. Hasieran, asko kostatu zitzaidan proiektuan sartzea eta zer egin nahi nuen erabakitzea, baina, erabaki ondoren, oso gustura egon naiz, eta asko ikasi dut. Donostian idatzi dut gehiena, han bizi naiz-eta orain, baina

hainbat eta anitzak izan dira liburu idazteko baliatu ditudan tokiak: ohea, liburutegiko mahaia, autobusa, kaleko bankuak... Ez zait gustatzen beti leku berean lan egitea, eta idazteko erabilitako materiala ere ezberdina izan da lekuaren arabera: tarteka eskuz, tarteka ordenagailuz.

Zure kontua bakarrik izan da ala izan duzu gertuko laguntzailerik?

Ez da izan nire kontua, inondik inora ere, eta hori oso garbi gera dadin nahiko nuke. Lehenik eta behin, *Urruzunotarrak gehituz* literatura ekimenean saritu izan ziren gainontzeko lagunak babes osoa jaso dut, eta idatzi ahala beraiekin partekatu izan ditut kapituluak; oso garrantzitsua izan da niretzat beraien iritziak eta babesa une oro jasotzea. Inguruko zenbait lagun eta senitartekori ere helarazi nizkien testuak, baita pisukideei irakurri ere; eta, nola ez, Fernando Morillo idazleak ere asko lagundu dit, eta beste hainbat sortzaile ere beharrezkoak izan dira. Azala, adibidez, Malen Aménabar ilustratzaileak egin du. Istoria nik idatzi dudaren arren, liburu hau ez da nirea bakarrik, jende zoragarri asko dago atzean. **Argitaratzeko dago, baina egoerak bultzatuta atzeratu egingo da, ezta?** Bai, Gaumin argitaletxearekin aterako dugu, eta gure esperantzak da ahalik eta azkarren ateratzea. Formatu fisikoan izan bitartean, itxaronaldia errazagoa eta dibertigarriagoa izateko asmoz, proiektua aberasten duten hainbat kontu lantzen ari gara; horien artean, adibidez, Instagram kontua egin diogu liburu protagonista Ilargi Areitiori –@ilargi.areitio–, eta,aldi berean, *book-trailerra* ere egiten hasiak gara.

Maiatzaren 8a da AEDren lehiaketetarako azken eguna

Ilustrazioak, narrazioak bertsopaperak, poesiak mikroipuinak eta komikiak jaso nahi dituzte aurten

A. Aranburuzabala ARRASATE

COVID-19ak eragindako aldaketan ondorioz, Arrasateko euskara elkarteak antolatzen dituen 33. Arrasate Literatur Lehiaketan oinarrietan aldaketa batzuk egin dituzte: lanak entregatzeko epea maiatzaren 8ra luzatu dute eta sari-banaketa ekitaldia ekainaren 11n egingo dute.

Hiruna lehiaketa proposatu dituzte parte hartzaileen ikas mailaren arabera: LH-5 eta DBH-2 mailakoentzako, ilustrazioa, narrazioa eta bertsopaperak; eta DBH-3 eta Bigarren Batxilergo bitarteko ikasleentzako, mikroipuinak, poesia eta komikia. Antolatzaileek idazle gazteak parte hartzera bultzatu gura dituzte: "Zoritxarrez, egoerak behartuta, opor egunak izan beharko ziren horiek etxean igaro beharko ditugunez, anima ditzagun inguruko gaztetxoak barruan daramaten sormena deskubritu eta kanporatzera".

Posta elektronikoz bidali beharko dira ezinbestean lanak, aed@aedelkartea.eus helbidera; eta ilustrazio eta komikiak eskaneatuta zein argazki formatuan onartuko dituztela diote. Lehiaketaren oinarriak Arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com atarian daude.

HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA, 90EKO HAMARKADAKO KIROLA (2. ATALA)
APIRILAREN 3AN, EGUBAKOITZEAN, 11:30EAN ETA 21:00ETAN
BALOIARI OSTIKOKA

goiena
Zu hemen zaude.





Pello Gutierrez, Paul Urkijo eta Josemi Beltran epaimahaikideak Iban del Camporekin sariak erabakitze bileran. HUHEZINEMA

Traba guztiak gaindituta, Huhezinemak arrakasta

Hiru egunean 1.625 bisita izan dituzte Twitch plataformako kanalean; June Lakaren 'Kresala' filmak irabazi zuen Goiena saria, Mundukideren saria 'El infierno'-k, Iñaki Tenarentzako Ikusleen eta Vertigo sariak eta La Horrorosa izeneko Mikel Carrillok

A. Aranburuzabala ARETXABALETAK Hamahirugarren Huhezinema jaialdia bukatu berrian, buru-belarri ari dira ordainketak, prentsa dosierra eta bestelako lanak egiten, eta maiatz-ekain inguruan Arkupen jaialdia egiteko asmoa azaldu du antolaketaren taldeko Iban del Campo irakasleak: "Ekitaldi presentzial batekin borobiltzea gustatuko litzaiguke. Film emanaldia eta luntxa Arkupen, ohi moduan, zuzendariarekin eta publikoarekin".

Sentsazio gazi-gozaok dituzte la diote antolatzaileek: "Gazia, ezin izan dugulako betiko formatuan egin; eta gozoa, irudimen, lan eta ahalegin handiarekin aurrera ateratzea lortu dugulako; eta harrera oso onarekin egileen, ikusleen eta komunikabideen aldetik. Edukiera arazorik ez dago sarean, eta inoiz baino jarraitzaile gehiago izan ditugu; Arkupen 99 lagunendako tokia dago, eta aurten, Twitch plataforman hiru egunean 1.625 bisita izan ditugu eta Instagra-

men 558 jarraitzaile; Idoia Be-diagaren zuzenekoan 192 ikusle izan ziren eta 275 ikusle izan zituen AZ Gaubelak-en emanaldiak. Ikusleek zuzenean oso mezu politak bidali zizkiguten, eta oso eskertuta gaude".

Goiena saria, June Lakak

Kresala filmaren egilea gaixorik zegoen, eta ezin izan zuen ekitaldian parte hartu. Honako hauek esan zituzten epaimahai-kideek June Lakaren lanari Sail Ofizialeko film onenaren Goiena Saria emateko: "Haurtzaro garaiko bizipen eta kezkek era eder poetiko eta arduratsuan azaltzen ditu, eta gidoiak maisuki errealitatea eta fantasia uztartzeko duen indarra du".

ANTOLATZAILEEK, FILMEK ETA IKUSLEEK "MAILA ONA" EMAN DUTE HUHEZINEMA JAIALDI BIRTUALEAN

Iñaki Tena Huheziko ikasle ohiak Vertigo eta Ikusleen sariak eskuratu zituen. "*Petita*-k bi sari irabaztea oso pozgarria izan da guretako, eta berak saria sekulako bultzada izango dela esan digu. La Horrorosa saria ere ikasle batzuek egindako *Idoia* lanak jaso du", dio Del Campok.

Sierra Leonako kartzeleki buruz

Chenu mutiko gaztea da Mundukide saria irabazi duen *El infierno* filmaren protagonista. "Baldintza kaxkarretan kartzelan ahaztuta hiltzen ari diren pertsona horien istorioak lehen planoan jarri nahi dituen filma da", dio Fundazioko Urri Urizarrek, eta zera gaineratu du: "Emozio gazi-gozaok eragiteko ahalmena du. Gomendagarria benetan. Egileek sariaren dirua protagonistari emango diote".

Sarean ikusgai

Esan beharra dago Huhezinemak kanal bana duela Youtube eta Filmin plataformetan.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira martxoko irabazleak!

CHROMECAST

Mertxe Saenz de Galdeano Landa (Oñati)

HARREMAN DENDA KO OTARREA

Maria Mercedes Jauregialzo Zabala (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Jose Mari Iñarra Kortabarria (Arrasate)
Ioanes Urrate Sanchez (Oñati)
Eñaut Alvarez Berrio-Otxoa (Bergara)

TXOPEKUA JATETXERAKO BI

PERTSONEN DAKO OTORDUA
Agurtze Intza Araiztegi (Oñati)

TABERNA BERRI JATETXERAKO BI

PERTSONEN DAKO OTORDUA
Lorenzo Iturbe Jauregi (Antzuola)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina saria izango dituzte Arrikrutzeko txartelduek. Sarearek 3 hilebeteko epe mugatu izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAK.** Areatz Auzoa, OÑATI: 943 08 20 00. Orituegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Auzoetako hitzordus egiteko) Harreman dendako oteare **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara: Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen saria jasotzeko,** zafaz GOIENAREN egoitzera. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera emen behar da. **GOIENA** Otsolara Lizentziaduna 31. Arrasate: 943 25 05 05. Orituegia: Asteleheneretik egunez: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

LASA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

📞 943 25 05 05 ✉️ klubak@goiena.eus

📍 KLUBA Jaitetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...




2020ko bazkidetza: 56€
Deitu: 943 25 05 05
klubak@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA



Rosario Azula Askasibar
Lauri Letamendiren alarguna



2020ko martxoaren 28an hil zen, 90 urte zituela.


Eskerrik asko, amama, emandako guztiagatik. Etxekoak.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditugu. Egoerak ahalbideratzen duenean egingo da hileta meza.

Arrasaten, 2020ko apirilaren 3an.

ESKER ONA

Ascension Martin Murillo
Marcelino Melladoren alarguna



2020ko apirilaren 2an hil zen, 84 urte zituela.


Izandako momentu onengatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko. Maite zaitugu.

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko da hileta eguna eta ordua.


Iturbide Egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Arrasaten, 2020ko apirilaren 3an.

ESKER ONA



Alberto Lopez Sainz
'Naparra'



2020ko martxoaren 27an hil zen, 74 urte zituela.


Eskerrik asko senar, aitabxo eta aitxitxa, eman eta erakutsi diguzun guztiagatik.

Larrialdi egoera gainditzen dugunean, zehaztuko dira hileta eguna eta ordua. Eskerrik asko inguruko denei.

Bergaran, 2020ko apirilaren 3an.

OROIGARRIA

Joxe Bidaburu Heriz



2020ko martxoaren 29an hil zen, 74 urte zituela.

Goizeko elur malutekin batera ekin diozu azken hegaldiari. Ixilian utzi gaituzu, baina, agurtu gabe joan arren, betiko izango zara gure bihotzetan.

Bidaburu familia.
Arrasaten, 2020ko apirilaren 3an.

OROIGARRIA

Jose Bidaburu Heriz



2020ko martxoaren 29an hil zen, 74 urte zituela.

Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.

Naiararen kuadrillakoak.
Arrasaten, 2020ko apirilaren 3an.

OROIGARRIA



Alberto Lopez Sainz
'Naparra'



2020ko martxoaren 27an hil zen, 74 urte zituela.

Bizi garen artian gure bihotzetan eruango zaitugu. Eskerrik asko, tio Alberto.


Zure ilobak.
Zubia senideak.

Bergaran, 2020ko apirilaren 3an.


HILDAKOAK

- Enrique Delgado Arribas.** Arrasaten, martxoaren 26an. 79 urte.
- Saturnino Aramendia Diaz.** Arrasaten, martxoaren 26an. 87 urte.
- Luisa Ruiz de Munain Anduaga.** Oñatin, martxoaren 27an. 96 urte.
- Alberto Lopez Sainz.** Bergaran, 27an. 74 urte.
- Jose Martin Gonzalez.** Arrasaten, martxoaren 27an. 87 urte.
- Rosario Azula Askasibar.** Arrasaten, martxoaren 28an. 90 urte.
- Francisco Sanches Francisca.** Arrasaten, martxoaren 28an. 86 urte.
- Eugenio Otxandiano Berecibar.** Arrasaten, martxoaren 28an. 87 urte.
- Jose Ignacio Berrio Parra.** Arrasaten, martxoaren 29an. 63 urte.
- Jose Bidaburu Heriz.** Arrasaten, 29an. 74 urte.
- Aurelia Bastardo Pinacho.** Arrasaten, martxoaren 29an. 100 urte.
- Alfonso Alonso Madera.** Bergaran, martxoaren 30ean. 90 urte.
- Filomena Saz Tubilla.** Arrasaten, 31n. 99 urte.
- Pablo Barrena Berezibar.** Arrasaten, apirilaren 1ean. 93 urte.
- Maria Magdalena Iraolagoitia Murua.** Bergaran, apirilaren 1ean. 93 urte.
- Felisa Muguruza Alberdi.** Bergaran, apirilaren 1ean. 86 urte.
- Sebastian Oregi Zabaleta.** Bergaran, apirilaren 1ean. 89 urte.
- Ascension Martin Murillo.** Arrasaten, apirilaren 2an. 84 urte.
- Javier Rincon Garcia.** Arrasaten, 2an. 78 urte.

OROIGARRIA



Alfonso Alonso Madera
Maritxu Egurenen alarguna



2020ko martxoaren 30ean hil zen, 90 urte zituela.

Seme-alabak: Begoña eta Leonardo Zenekorta, Alfonso eta losune Epelde, Mila eta Angel Mari Eguren; bilobak: Denis eta Nere, Xabi eta Mikel eta beste senide guztiak.

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko da hileta eguna eta ordua.

Bergaran, 2020ko apirilaren 3an.

OROIGARRIA

Javier Rincon Garcia




2020ko apirilaren 2an hil zen.

Emaztea: Marivi Ercilla Arregi.
Seme-alabak: Ivan eta Sonia.
Arreba: Lourdes.
Ilobak, bilobak eta gainerako senideak.


Zauden lekuan zaudela, izarretan elkartuko gara.

Arrasaten, 2020ko apirilaren 3an.

OROIGARRIA



Luisa Ruiz de Munain Anduaga
Bixente Markuletaren alarguna



2020ko martxoaren 27an hil zen, 96 urte zituela.

Izar berri bat piztutzeroa zoz Euskal Herriko zeru gainean. Beti izango zara gurekin.

Zure familia.

Larrialdi egoera gainditzen dugunean zehaztuko dira hileta eguna eta ordua.

Oñatin, 2020ko apirilaren 3an.

BABESLEA



OROIOLORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Momentu zail hauetan, lankideok, Jonek, Ibanek, Mariok eta Maribik, sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu Beti izan dugun lan egiteko eran.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

TXUTXU-MUTXUAK



1. Osasun biserengatik, eskerrak
Bergarako osasun zentroko langileak oso eskertuta agertu ziren Miguel Altuna Lanbide Heziketakoekin. Eskolan egindako osasun biserak erabiltzen dihardute.

2. Xakean jokatzeko
Ainara Rezabalek xakean jokatzeko erabaki du, konfinamenduko orduak arinago pasatzeko. Aitarekin kontra jokatu zuen, eta berdinketarekin bukatu zuten partida.

3. Masterreko azken eskola
Oñatiko Lege Soziologia Institutuan masterra egiten diharduten ikasleek bideo-konferentzia bidez jaso zuten Jiri Priban irakaslearen azken eskola.


4. Aitarekin kirola egiten
Markel Irizarren etxean kirola taldean egitea erabaki dute. Aitarekin batera plantxak egiten ibili ziren Xabat, Aimar eta Unai. Arrafolean ere ibiltzen dira.

5. Txotxongiloekin
Urtzi eta Itsaso Guinart anai-arrebek etxeko txotxongiloak dantzan ipini zituzten aurreko asteburuan. Eskulanekin berriak egin, eta antzerkia irudikatu zuten.


6. 62 urte ezkontuta
Bergarako Manuel Moreno eta Isabel Martin 1958ko apirilaren 6an ezkondu ziren. "Zorionak, bihotz-bihotzez, zuen seme-alaben eta iloben partetik! Asko maite zaituztegu!".

7. Erroskilla anisdunak
Axier Lopez eta Maddi Lopez aita-alabek erroskillak egin zituzten, amaren laguntzarekin. *Bekerreke.com* webgunetik hartutako errezeta erabili zuten.

ZORION AGURRAK




ARRASATE
Paule Juldain Alcalde
Apirilaren 7an,
urtebete. Zorionak
amamaren, aitaitaren,
tio lñakiren eta
amatxoren partetik!




OÑATI
**Erlantz
Alberdi Elorza**
Apirilaren 6an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun!
Familixa osuaren
partetik, muxu
handi-handi bat. Ondo
pasatu eguna!



OÑATI
**Auritz
Gorosabel Urrutia**
Apirilaren 6an, 10 urte.
Zorionak, Auritz! Patxo
handi bat etxeko
danon partetik.
Ondo-ondo pasatu
zure eguna!



OÑATI
Kimetz Bellido Arza
Apirilaren 5ean, 8 urte.
Zorionak, Kimetz!
Etxean bada ere, beti
bezain ondo ospatuko
dugu zure eguna.
Patxo handi bat,
amatxoren eta
aitatxoren partetik!



ANTZUOLA
Inar Cabo Mundiñano
Apirilaren 5ean, 14
urte. Zorionak, Inar! 14
urteen ospakizuna ez
duzu nolanihi
ahaztuko! Etxean
egonagatik ere, ederki
ospatuko dugu! Muxu
handi bat eta animo!



BERGARA
**Oier Gabilondo
Muguruza**
Apirilaren 5ean, 7 urte.
Zorionak, maitxia! Segi
beti bezain jator. Ondo
pasatu zure egun
berezia! Patxo potolo
bat, familia osoaren
partetik.



BERGARA
Maria Maiztegi Arruti
Apirilaren 4an, 8 urte.
Zorionak eta urte
askotarako, politx hori,
familixakuen partetik!
Primeran pasatu zure
eguna. Aurten erramu
zapatua tokatzen
da-eta!



ARETXABALETA
**Nahia
De la Torre Muñoz**
Apirilaren 3an, 11 urte.
Zorionak aitaren,
amaren eta Anerren
partetik. Asko maite
zaitugu. Egun ederra
izan!



BERGARA
**Ioar
Gonzalez Fernandez**
Apirilaren 3an, 10 urte.
Zorionak, maitia.
Egoera berezi honetan
bada ere, asko
disfrutatu zure eguna.
Maite zaitugu!



BERGARA
June Osa Jimenez
Apirilaren 2an, 8 urte.
Zorionak eta urte
askotarako! Primeran
pasatu jolasean eta
bizkotxo goxo-goxoa
janez! Iratxoren eta
familiarren partetik,
besarkada handi bat!



BERGARA
**Markel
Lamikiz Crespo**
Apirilaren 2an, 2 urte. Zorionak, *pitxin*. Patxo handi
bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
**Izar
Lukas Aginagalde**
Apirilaren 2an, 8 urte.
Zorionak Izar ! Ezingo
dugu denok elkarrekin
ospatu zure eguna
baina etxekoekin
ondo-ondo ospatu.
Muxu erraldoi bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI
Mattin Goitia Osinaga
Apirilaren 1ean, 5 urte.
Zorionak, maitia!
Azkenian aillau da
hainbeste desio zeben
eguna. Aurten berezi
xamarra, baina, ahal
dan dana egingo dogu
bihar dan moduan
ospaketako! Patxo
potolo pila bat!
Maitte zau!



OÑATI
**Markel
Bengoa Igartua**
Martxoaren 30ean, 7
urte. Zorionak, Markel!
Aurten bi merendola:
zure egunian etxian eta
aurterau familiarrekin
eta lagunekin. Segi gure
bizitza alaitzen!



OÑATI
Ane Ormazabal
Martxoaren 29an, 27
urte. Zorionak, Aneo!
Nahiz eta etxean
pasatu behar,
ondo-ondo pasatu
eguna! Jaso
kuadrillako guztion
partetik, txokolate eta
marrubizko muxuak!
Ospatuko dugu guztia
amaitzean!



BERGARA
Loli Azcoitia
Martxoaren 27an, 67
urte. Zorionak,
amama, familia
danaren partetik. Ondo
pasatu!



ARRASATE
**Ixone
Zuriarrain Arcauz**
Martxoaren 26an, 13
urte. Zorionak, maitia,
ondo pasatu eguna.
Asko maite zaitugu.
Familiako guztion
partetik.



BERGARA
**Haiz Alberdi
Lasagabaster**
Apirilaren 1ean, 11
urte. Zorionak eta
ondo pasatu! Etxeko
partetik.



ARRASATE
**Katixa
Uriarte Etxebarria**
Martxoaren 31n,
urtebete. Zorionak eta
patxo potolo bat,
etxeko danon partetik!



OÑATI
Haiz Biain Agirrezabalaga
Martxoak 29, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat
etxeko partetik, Eñaut eta Elur onduan.



BERGARA
Naroa Calles Moreno
Martxoaren 28an, 14
urte. Zorionak! Egun
politza izango
zenuelakoan, jaso
amaren, aitona-
amonaren eta
izeba-osaben
besarkada bero bat.



ESKORRIATZA
**Juan Mari
Arrese Beitia**
Martxoaren 25ean, 68
urte. Zorionak, tio!
Mañurtiko danon
partetik, egun ezin
hobe bat pasatu
deizula opa dotzugu.
Jarraitxu beti moruen,
guretako artzainik
onena zara-eta.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Ezin gelditu

Aspaldian asko aldatu da gure bizimodua. Etxean gelditzeko agindua jaso genuenetik geldiune bat izan dugu gure bizitzako eremu askotan. Eta honek, bere txar guztiarekin, daramagun bizimodu eta erritmoaren inguruko hausnarketa egiteko balio lezake.

Presoei idazteko. Baita sistema kapitalistak sortzen dituen baldintza, injustizia, desoreka, eta abarren inguruan sakon hausnartu eta iraultzeko estrategiak pentsatzeko ere.

Baina aukera ez dugulakoan aprobetxatuko nago. Bizimodu *erreal*a bizimodu *virtual* bihurtu dugu eta kitto. Lehengo erritmo berean bizi gara, baina presentzialki ezin denez, birtualki. Eskola guztiak urrutiko hezkuntza-zentro bihurtu ditugu, sare sozialak sutan ditugu egun osoan bateko eta besteko proposamenekin, programatuta zegoen guztia eta gehiago egin behar dugu... birtualki.

Aurrera jarraitzen dugu gure erritmo eta bizimodu frenetikoarekin, online bada ere. Oraindik egun batzuk gelditzen zaizkigu eta aukera ona daukagu zurrumbilo honetatik ere ateratzeko.

BUKATZEKO

Futboleko eskularruen tokian, erizainarenak

Erizaina da Oihana Aldai aretxabaletarra eta koronabirusak sortutako krisiaren aurrean bere burua aurkeztu du osasun arloan laguntzeko prest dagoela esanez. Atezainaren eskularruak erantzi eta erizainarenak jantzi ditu, bata eta maskareekin

Oihana Elortza ARETXABALETA

Duela aste pare bat adierazi zion GOIENARI Oihana Aldai futbol jokalaria aretxabaletarrak klubari baimena eskatu eta erizain lanetan hasteko asmoa zuela. Eta horrela egin du. Atezainaren arropak erantzi eta erizainarenak jantzita dabil egun.

Bere burua eskaini

Koronabirusak sortutako egoera ikusita hartu zuen erabakia Aldaik: "Ikusten nuen hedatzen ari zela COVID-19a eta osasun arloko profesionalak lanez gainezka zeudela. Nik ere gura nuen ahal nuen neurrian lagundu, eta erizaina izanda nire burua eskaini gura nuen, beharra egonez gero lanerako gertu nagoela esanez". Horretarako, baina, Pozoalbense klubaren baimena behar zuen aretxabaletarrak. Kordobako talde horretako atezaina da bera urtarritilaz geroztik, eta hori utzi behar zuen, lehenengo, erizain hasteko. "Futbol partiduak eten zituztenetik gure lana ere beste bat izan da. Prestatzaile fisikoak bidaltzen dizkigu ariketak eta horiek egiten ditugu taldekideok, bakoitzak bere konfinamendu tokitik, baina egoera ez da nor-



Oihana Aldai erizain jantzita Zumarragako ospitalean. O.A.

mala eta klubari nire asmoa zein zen planteatu eta erizain lanetan hasteko baimena eskatu nion. Ondo ulertu zuten nire laguntzarako asmo hori eta baimena eman zidaten. Joan den astean etorri nintzen etxera. Astelehenean hasi nintzen lanean Zumarragako ospitalean. Oso gustura nago", dio Aldaik.

Aretxabaletarrari berdin ziztaion zein herritan edo ospitalean lan egin: "Beharra zegoen tokira joateko prest nengoen, baina, aukeran, egia da nahiago nuela etxera etorri eta Euskal Herriko ospitale batean jardun". Hala, Zumarragakoan osasuneko profesionalak behar zituztela komentatu zion lagun batek eta hara bidali zuen mezua bere burua aurkeztuz eta zer lanetarako beharra zuten galdetuz. "Ospitalean lan egiteko lan erantzun zidaten eta hantxe nabil orain. Apirilaren amaiera arte egongo naiz, momentuz", zehaztu du.

Etxean gelditzeko gomendioa

Ez daki Pozoalbense taldera bueltatuko den edo erizain jarraituko duen: "Kordobako, Pozoblanco herriko pisuan utzi ditut traste guztiak eta haiek jasotzera, behintzat, bueltatuko naiz, baina ez dakit nola bukatuko dugun denboraldi hau".

Bitartean, futbol taldeko lagunekin harremanetan jarraitzen du eta agindutako ariketak elkarrekin egiteko ere jartzen dute zita, orain lehen baino ordu gutxiago baditu ere kirola egiteko. "Kontziente izan behar dugu egoeraz eta gure esku dagoena egin. Etxean gelditu, ahalik eta gutxien atera kalera guztiok, eta animo denoi".

ETXETIK PLAZARA

**SORTU ETA BIDALI ZURE
BIDEOAK HORIZONTALAN**

688 69 00 07



goiena
Zu hemen zaude.